

JAKIN sorta

RIKARDO  
**ARREGI**

*Rikardo Arregi*  
*Alfabetatze Batzordea*  
*Joseba Arregi*  
*Joan M. Torrealday*

Editorial Franciscana Aránzazu

JAKIN SOTIA

RIKARDO  
ARREGI

E. F. A. (N.º de Registro 1692)

Depósito Legal: S. S. 1/1971

---

Arantzazu-ko Inprimategian argitara emana. Oinati, Gipuzkoa.

# aurkibidea

Gizonaren bideak: <i>familiak</i> .....	5
a) Lehen partea: Rikardo-ri buruz entseguak	
Kulturagintza eta Rikardo: <i>Joan Mari Torrealday</i> .....	11
“Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu” <i>Joseba Arregi</i> ....	43
Rikardo Arregi, alfabetatzearen eragile: <i>Alf. Batzordea</i> ....	54
Alfabetatzea Rikardo-ren iritzian: <i>Alf. Batzordea</i> .....	58
b) Bigarren partea: Rikardo-ren entseguak.	
Sozialismoa modan dago .....	69
Ezkertiar berriak .....	88
Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu .....	114
Eguzkialdeko haize horiek .....	133
Kalekumeon ordua eta jentilismoaren tentazioa .....	163
d) Hirugarren partea: Rikardo-ren hitzaldiak.	
Euskaldunen gizagintza .....	171

# GIZONAREN BIDEAK

## FAMILIAK

1942-an, irailaren 22-an, jaio, Andoain-en.

1952-an, 10 urterekin, Seminariora.

1962-an, Seminarioa uzten du.

Jakintza ekonomikoak ikasten hasten da.

1964-an, gartzela.

1966/68-etan, soldadutza.

1969-an, uztaren 10-ean, heriotza.

## SEMINARIOA

*“Humanidades” ikasketak (5 urte).*

*“Filosofia” hiru kurso. Hemen azaltzen da bere adimen sarkontasuna ta ikasketa abstraktuetarako balioa.*

*“Teologia” ikasketak hasi besterik ez ditu egiten. Gaixorik jartzen da. Biriketatik.*

*Filosofia ikasten ari zenekoak dira bere lehenengo euskerazko lanak: “Balmes eta Kant”. Garai hartakoak dira, baita bere*

*"scout" ibilaldiak ere. Ilusio handia izan zuen garai haretan gauza hauetarako.*

## SEMINARIOA UZTEN DU

*1962-an, martxo aldera. Bachiller seigarren urteko rebalida egiten du ekainean, eta udara bukaeran, "Preu". Jakintza ekonomikoak ikasten hasten da.*

*Klandestinidateko politikan parte hartzen hasten da. 1964-an, udazken aldera, kartzelatua. EGI-koa dela edo ez urte beteko gartzela ematen diote zigor. Ez du bete beharrik. Gartzelatik pasa ta gero bere politiko pentsamentua forma hartzen hasten da. Garbi ikusten du Euskal politikak industriadzea serioski hartu behar duela; industriadzea ta haren ondorenak: proletargoa, gizarte arazoak, klase borroka etab. Sentidu horretan joango da eboluzionatzen. Garai honetakoak dira hainbat hitzaldi, Euskal Herri guzian zehar Rikardok emanikakoak.*

*Marxismoa ezagutuko du ta onartuko. Sinismena kolokan jartzen zaio. Marxista giroan aurkitzen ditu lagunak, eta hauekin marxista kutsuko joera batzuetan ibiliko da.*

*1966-an: soldadutza. Marina tokatzen zaio. Ia bi urte: 21 hilabete pasatzen ditu. Lehenengo zazpiak Ferrol-en. Gainontzekoak San Fernando, Cádiz-en. Garai hau garrantzi handikoa da Rikardoren bizitzan eta pentsaeran.*

*Pentsatzeko eta gauzak aztertu eta aurnatzeko denbora nahikoa izan zuela dirudi. Hiru joeratan gertatzen da Rikardoren eboluzioa:*

- euskaltzaletasuna, abertzaletasuna indar berriz aurkitzea. Ikus "Ezin-etsi".*
- marxismoaren gainditzea edo, marxismoa desmitotegizatze*

moduko zerbait. Ikus "Sozialismoa modan dago", "Ezker-tiar berriak", etab.

- Kristau sinismena indar berriz eta esan nahi berri batez aurkitzea. Ikus "Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu". Rikardo bere azken azken garaietan serioски kristau sutsua izan zen.

Soldadutza garaian, pentsatukoak dira Alfabetatze Kanpaina. Lur editoriala, berak pentsatu zuen bezala, alfabetatzearen osatzaile beharrezko bezala.

## **BERE BIZITZAKO BESTE DATO BATZUEK**

Seminarioa utziaz geroztik, "Pax Christi" ekintzan ibili zen, Santamaria jaunarekin (Karlos Santamaria jauna izan zen bere bizitzan influentziarik handienetakoa izan zuen pertsona. Maixu ta pertsona bezala).

- "Zeruko Argian", aldizkari honen ia hasiera beretik, idatzitako lanak. Urte batean (1965-gn.) artikulo lan batzuen-gatik "Lauaxeta" saria jaso zuen, urte haretako artikulari onen bezala.
- Nahiz eta "jakintza ekonomikoak" ikasten jardun, gehienbat "jakintza politikoak ikasten zituen, soziologia ta filosofia alde batera utzi gabe.
- Euskaltzaindiaren laguntzaile izendatzen dute 1964-gn.
- Euskeraren batasunerako azken garaietan azaldu den joerari bere baiezko osoa eman zion, eta batasun honen eragile izan zen. (Problema hau alfabetatzearekin eta editorialarekin josia ikusten zuen).



*...eta gizona bidetik...*

# KULTURAGINTZA ETA RIKARDO

*Joan Mari Torrealday*

Rikardo Arregi-ri buruz idatzi behar dut. Hain zuzen, nik ahal dudan neurrian, bere kultura-pentsakizunak azaltzeko. Ene asmoa hauxe da: liburuan zehar sakabanaturik eta barreiatu-rik azaltzen diren haren ideiak batasun-jarraipen batean lotu. Irakurleari laguntzea nahi nuke, ez besterik.

Rikardo hurbildik ezagutzeko zoria izan dut. Bere bizitzako hiru urte aberatsenetan alkarren ondoan izan gera, JAKIN taldean baitipait. Horregatik batez ere kultura arloan ezagutzen dut. Eta ene ustez, beti kulturari gagozkiola, bi merezimendu nabarmen ikusten dizkiot Rikardo-ri:

- 1.—langilea zela, izugarri langilea. K. Santamariak ez dio gezurrik "...langile izugarria zen, ezin sinestekoa, Herriaren alde ekiteko beti prest", Z.A.-n idatzi zuenean. Liburu hau langiletasun horren testigutzarik onena dugu. Eta alfabetatzea, eta hitzaldiak. Eta JAKIN: aldizkari batek beti du izkutuan egiten den lan ixila, askotan inportanteena; eta horretan Rikardoren lanaren lekuko naiz. Aitortzen dut —eta pozik!— lan handia egin zuela.



2.—berpentsatzailea dela. Rikardo ez zen inertziaz bizi. BERPENTSATZAILEA zen bai politikan, bai euskal arazoan eta bai erlijioan. Errotik euskalduna zen eta errotik gaurkoa. Problemaren kontzientzia biziarekin, asmo honi heldu zion, alegia, euskaltzaletasuna eta gaurkotasuna ezkontzeari. Bere kultura-lanek (eta zenbaitek barkatzen ez zizkioten kritikak) helburu honi erantzuten zioten.

Irakurle, besterik gabe aurrera joan zindezke. Eta noizbehinka Rikardoren iritzia ez badut ongi jaso, nire eskasiaren erru da, ez nire borondate txarrarena. Eskasa bada ere, Rikardori zor diodan ordain-saritzat har zazu azterketa hau.

## GIZAGINTZA

Gizagintza. Ematen du urrundik hasten gerala. Euskal kulturaren arazoa ikusi nahi dugu, eta ez gizonarena, esan lezake batek. Hala da. Baina bi problemok ezin daitezke eten. Jean Lacroix-ek arrazoia du: *“Gizon izatea, naturaleza mailatik kultura mailara igarotzean gertatzen da”*.

Konprenitzen da, beraz, zergatik heltzen diogun gizagintzari. Puntu honetan Rikardo Arregiren ideia batzuk behar ditugu aztertu.

## GIZONA, MUGATUA ETA OSAGABEA

Arazo honetaz, idatzi baino mintzatu egin zuen gehiago Rikardok. Euskaltzaletasuna finkatu nahi zuenean, berak zion “euskaltzaletasun berria”-ren burruka justifikatu nahi zuenean... gizona zer den aztertuaz hasten zen beti.

Rikardorentzat, mundu osoa, izadi eta gizadi, eboluzio bidez esplikatzen da. Eboluzio horren gailurra, gizona da.

Gizona, beraz, naturalezaren fruitua da, beste izaki guziak

bezala, ba ditu bere legeak, bidea markatua du. Zerbait egina da gizona. Baina, gizonak bere baitan kontradizio gogor bat dakar: Kontzientzia! Zergatik kontradizioa? Esan dugu gizona zerbait "egina" dela. Eta hala da, izaki den aldetik. Bidea markatua duela esan dugu. Eta halaxe da. Baina, bestalde, ba dakigu gizonak bere burua egiten duela, gizonak naturaleza hori gainezkatu egiten duela sarri kontzientziaren bidez. Kontzientzia du gizonak, alegia, askatasuna, hautamena, bide bat utzi eta beste bat aukeatzeko ahalmena.

Horregatik, gizona "egina" den bezala, "eginkizun" da.

Ez daukagu, honela, aingerukeria erortzerik. Gizona ez da izpiritu hutsa: konkretua da beti. Konkretua hasieran eta mugetan: historia, geografia, gizartearen kondizionamentuak, sorlekua, gorputza, bizitza... Terrenu honetan eraiki beharko da gizagintza. (Ohar bat: Unibertsalismo asko ez dira aingerukeria besterik).

Oinarri hauekin aingerukeria erortzerik ez dugun bezala, ezin gaitzeko ere materialismo primario batean amildu. Gizona ez bait da materia hutsa, ez bait da zerbait "egina", berriz diogu. Hor dugu kontzientzia materia gainezkatzen.

Bi printzipio hauek hots, konkretutasuna eta kontzientziatasuna, oso inportanteak eta beharrezkoak dira gure gizagintza behar bezala konprenitzeko. Ez dago gizagintza abstrakturik, ez dago gizagintza erabakirik. Nork jarri lezazke derrigorrezko giza-ereduak? Nork erabaki lezake gizakera jatorra zein den? Gizagintza bat noiz eta non gertatzen den kontuan (ondo kontuan!) eduki behar da: hori da dena. Eta gaurko kultura zanpatzaileek hauxe da buruan sartu nahi ez dutena. Eta hain zuzen horrexegatik dira zanpatzaileak, sasi-unibertsalismo baten banderaren izenean herri txikien kultura eta nortasuna birrindu egiten dituztelako.

Gizagintzaren problema planteatzerakoan, euskaltzaletasuna-

ren arazoa planteatzen dugu. Gure gizagintza, esan dugu, ez da abstraktua, zehatza eta oso zehatza baizik. Euskaldunen "konkretutasuna" Euskal Herrian oinarritzen da. Honela dio Rikardok: "Nigan gizon izatea da esentzia eta euskaldun izatea kontingentzia, gizon izatea sustraia eta euskaldun izatea gizon izateko "modua". Horregatik nigan ezin ditzazket bereiz gizon izatea eta euskaldun izatea; gizon euskaldun bezala bakarrik izan ninteke, bestela ez".

(*Narzisoak*, Z.A. 66, epaila, 27)

Bestalde, gizona eginkizun den aldetik, esan dugu gizonak berak eraman behar duela aurrera bere gizagintza. Baina konsumoko zibilizaziopean gaudenontzat, hementxe sortzen dira *handicap* handienak. Eta sistema honek nork bere burua urkatzea, nork bere nortasuna ukatze agintzen du. Sasi-kultura horrek pasibukeriara, hartzaile hutsak izatera garamazki. E. Freijo-k dionez "gizonari, pentsatu behar duena pentsatua ematen zaio, hautatu behar duena hautatua; egina, egin behar duena. Funtsean, berdin da edo "partidu bakarrak" edo "komertzioko firmak" egitea hau. Orobat, bere kontzientzia eta hautatzeko ahalmena ito egiten dizkiote..."

## GIZONA, GAUR ETA HEMEN

Gizona sustraitua eta konkretua dela esan dugunean, bistan da Euskal Herria gogoan eduki dugula. Behin baino gehiagotan esango du Rikardok euskalduntasuna "gure gizon izateko modu konkretua" dela eta hori "txaketa aldatzea bezala, aldatu daitekean zerbait" ez dela. Printzipio hauetatik, nik uste, ondorio asko atera daitezke. Laburki eta gaingiroki bederen, ikus ditzagun batzuk:

- 1.—Gure estrukturak, gure giza-ereduak, gure giroak, hitz batean, gure gizarteak ez digu uzten gizon izaten, gure gizakera eusk-era delako. Beraz, euskaldun bezala gaude baitipait menderaturik. Orduan gure burruka ez da planteatzen ahal gizarte-mailaka. Eta bai herri menderatua-  
ren neurrian. Zergatik? Arrazoia, aise konprenitzekoa da. Zanpatua dena gure kultura da.
- 2.—Burruka hori planteatzerakoan, emigrazio arazoak sortzen ditu burukomin eta bereizketarik handienak. Gure eta kanpotiar horien arteko diferentzia Rikardok aipatzen duen “hasieran” dago: gure eta haien konkretutasun horren jatorria, desberdina dela. Baina, hona etorri eta hemen bizi direnez gero, “muga” eta “etorkizun” berak ditugu. Beraz, horiek ere gu bezalaxe aurkitzen dira. Eta hemen gauden guzian artean osatu behar dugu Euskal Herria. (Burruka hau aurrera eramateko taktikarik ez du Rikardok bere idatzietan aipatzen, oker ez bango).

Bestalde, ez da dudarik gure kultura-barrutian bizitzea hautatu duten horiek, (hautamen hau behartua izan bada ere) gure nortasuna errespetatu behar dutela. Ez, ordea, haintzat hartu bakarrik, ontzat hartu ere bai bere bizitzatan, hau da, bereganatu.

Ondotxo daki Rikardok, ez dela hizkuntza Euskal Herriko errealidade osoa, baina bai sinbolua, neurria, termometrua. Honen arauera esan dezake Rikardok “euskeradunok” inperialistak (hitzagatik barkamena eskatuaz) behar dugula izan, Euskal Herri osoa “euskeraduna” bihurtu behar dugulako, hain zuzen geure nortasuna, geure gizagintza gorde ahal dezagun. Korrontearen kontra ibiliz, ito-zorian gaude beti.

Euskal kulturari bizi nahi baldin badugu, giroa behar dugu euskeratu. Gure giroa alienatzailea da. Formazio eta informazio-bideak arrotz ereduarekin jokatzen dute. Aipatu besterik ez da telebista, irratia, eskola... Gogoratu besterik ez dugu euskaldun izaten jarraitzeko dugun zailtasuna.

- 3.—Baina zer da euskaldun izatea? Azkenengo hamar urte hauetan, nik dakidanez, problema hau nahiko sakondu izan da. Halere, oraindik gaur, aldizkaritan, eztabaida-zipriztinak aurki ditzazkegu. Zergatik? Ene ustez, batabestearen artikulak ez ditugulako irakurtzen. Eta horrela, arazo beraren inguruan ari gera beti, askotan lehen-goak baino argudio sinpleagoak plazara ateraez. Puntu honetaz, esate baterako, ene gardiz erantzunik osoena Jose Azurmendik emana da. (JAKIN, 27-28, 66-91 hor.).

Hori dela-eta, eta Rikardok uste zuena bere lanak irakurriz aski garbi dagoelako, ez dugu hemen aipatu. Arazo beraren beste alderdi bat aztertuko dugu Rikardorekin.

*Gaur* behar dugu euskaldun izan. Gure gizazintza ez da zerbait osatua, amaitua: gizona egiten-egiten doa. Gure eginkizuna, beraz, ez da, ezin daiteke izan, zerbait errepetitu beharra. Eskolastizismo guziak arbuatu egin behar ditugu. Rikardok idatziko du “desgaraikoa, eskolastikoa (hau da, errepetitzailea) izatea kaltegarria dela gizatiar izan nahi dutenentzat” (Z.A., 69, jorraila, 13).

Gure euskaltzaletasunean ere, eskolastizismo hone-tantxe eroriak ikusten gaitu Rikardok. Askorentzat, euskaltzaletasuna zerbait itxia da. Horien iritziz, hogeigarren mendean jaio garen euskaldunontzat eginkizuna hauxe liteke, alegia, lehen-go eredu batzuk zintzoki jarraitzea.

Euskal Herria, sekulan izan ez den Arkadia izan dela sinestu nahi izan da, euskaldun *jatorra* giro horretan bizi izan den gizon baketsua zelarik. Hauxe da *jatorrismo* bezala Rikardok gogorki salatzen duena. Eta salaketa-rekin batean desipuitzeari ekingo dio, esanaz: "...*eta guztia* (desipuitzea, alegia) *gizonaren izenean, gizarte gizontiarago baten izenean*" (*Absolutugintza*, Z.A., 67, urrila, 29).

Euskaltzaletasuna eguneratu egin behar dugu, gizagintza bezala euskaltzaletasuna ere irikia da.

## GIZONAREN NEURRIA

Benetako kultura zein den jakiteko, zerk lagunduko dion gizonari jakiteko, gizon honen neurria erabaki behar dugu.

Jainkoaren irudira eginak gerala sinisten dugunontzat, gure giza-neurria oso urruti dago. Ezin daiteke arrapalada batean erdietsi. Jainkoa dugunez gero Absolutu bakartzat, biderdiko jainkorde eta sasi-absolutu guziak sustraitik behar ditugu atera. Kristauok gera radikalenak. Bistan da zergatik, gure eredia ez bait da edozein txorimalo eta "Jainkoa sinisteak ez digulako baka-ziorik ematen gure gizagintzan", Rikardoren hitzez esanda.

Benetan gure gizagintzan ez dugula bakaziorik! Hain zuzen beti ernai behar dugulako egon, kristau moralak debekatuko du moskortzea: gizon izatea uzten bait dugu orduan. Eta gizonak bere gizagintza ezin lezake bazter, esan dugu. Bere gizatasuna ez dezake beste inoren eskuetan utzi: ez ardoaren, ez gobernuaren, ez taldearen, ez telebistaren... Etabar luze bat.

Gizagintzaren helburua, Jainkoaren antzekoak izatean jarri dugunez gero, ezin gaitezke oneski biderdian gelditi. Dela politikaren, dela ekonomiaren, dela kulturaren edo beste zernahiren arlotan, edozein estruktura edo erakunde kristau soluzio bakar-

tzat hartzen badugu, lagundu nahi dugula diogun Kristianismo horren kontra ari gera. Sentidu honetan, behin baino gehiagotan, idatziko du Rikardok politika taldeen konfesionalismoa aztertzerakoan.

Gainera, gizonak kreatzaile behar du izan beti, hautatzeko gai, bere buruaren jabe, munduan zehar bere etxean bezala ibiliko dena. Benetako kultura, gizona bide honetan jartzen duena izanen da, ez besterik.

## **KULTURA**

Guztiok dakigu hitzaren bidez elkar ulertzea gero eta nekezagoa dela. Ez kuriosidadez, baizik hitzaren funtsa zehazki ezagutu nahiz, hitz hori nork, noiz eta non esan duen jakin behar dugu. Honela, nork daki zer esan nahi den bakearekin? Zer biolentziarekin? Zer erreboluzioarekin, sozialismoarekin, ordenuarekin? Zer, azkenik, kulturarekin?

Hitz hauetako bakoitzak, mundu oso bat du barnean. Eta lehen, mundu hori, gutxi edo asko, kolore batekoa baldin bazen, gaur mila kolore desberdin ditu.

Bestalde, gure kontsumoko gizartean, mintzaira klitxe bihurtu da, nominalismo hutsa. Publizidadean garbi ikusten da. Hitz biritu batzuk guztion ahotan dabilta, baina ez dakigu zer adierazten duten ere. Halere, hitzari gaurkotasuna eta jakintza-kutsua eman behar zaionez... Hau da gure gizartearen seinale garbia: ze "esaten den" jakitea maiteago dugula, esakuntza horren "egia" ezagutzea baino.

Kulturak zer adierazten duen aztertzerakoan, oztopo hauek denak topatu ditut. "Kulturak askatuko zaitu" irakurriko diozu bati. Marcuse batek bere "Kultur und gesellschaft I" horretan kultura goitik behera errebisatuko dizu. Eta Herbert Read-ek dea-

bruaren ipurdira bidaliko du hitz hori, bere liburuaren titulua justifikatuz: "To Hell With Culture". Nork asmatu! Halere, bildu ditudan argizpiekin, arazoa lehen baino argixeago gelditzen delakoan nago.

## **KULTURAREN DEFINIZIOAK**

Ruth Benedict anderearen "Patterns of culture" liburuan ez da dudarik kultura zera dela, alegia, gizon soil edo biluziari gainean ezartzen zaion dena (den hori, ohitura, erlijio, jokabide, pentsaera, sentipen eta gainontzeko edozer delarik).

Bronislaw Malinowski-ren gardiz, kultura hau da: "Osotasun bat, non sartzen diren kontsumoko tresna eta ontasun guziak, gizarte-taldeak antolatzen dituzten arauak, ideiak eta arteak, sinesteak eta ohiturak". Giza-azterketa baterako, begi onez ikusten du Marcusek kulturaren beste definizio hau: "gizartearen jarraipenarekin izpirituaren lokera".

Cirilo Flórez-ek, kultura hitzak esangura asko inguratzen dituela esan ondoren, bereizketa zabal bat egiten du: naturaleza alde batetik, eta bestetik kultura edo zibilizazioa. Iritzi honen arauerara, Jean Lacroix-ek ongi dionez, "gutako bakoitza zibilizazioz «jantzia» dago". Zibilizazioz eta kulturaz.

Kultura gabeko gizarterik ez giza-banakorik ez dago, bada.

Raiph Linton-ek, bere "The Cultural Background of Personality" liburuan puntu hau argituaz, esango du Kultura "edozein gizartearen biziera dela, eta ez soilki gizarte honek goitiartzat edo estimagarriagozat jotzen dituen mailetako bizimodu hori".

Gure artean nagusitzen den kultura iritzia, ba dakigu zein den. Ez noski herriak sortua, ez herriak eskuartean erabiltzen duena, ez Linton-ek dion "edozein gizarteren biziera". Kontrara baizik. "Goiko maila" horietan kokatua dago beti kultura, pentsatzen dugu. Eta lortzen saiatzen gera. Eta lortzen dugunean, ez



dugu herriarengana joan nahi, hori "jeistea" delakoan horrela kategoria galtzen dugulakoan. Hori da gure gizartearen ustea. Dorticós-ek Cubako intelektual eta artistei esan ziena sartu behar genduke ondo buruan: "Herriarengana joan behar da. Ez herriarengana jeitsi. Herriarengana igo egiten da".

Bestalde, gure gizarteak kultura, hautabehar edo alternatiba gisa aurkezten digu: marfilezko torrea ala plaza! Alegia, *kultura* (jakituria fin eta mehe hori, giza eta izpiritu-azterketa, liburu lana) ala *giza-bizitza* (eskubide-eskariak, istiluak, makinaren zarata, erakundeen eraberritzea...). Bereizketa honek bere onetik ateratzen du J. Folliet, berak dionez, ez bait dago kulturarik ekin-tza sozialik gabe. Kulturaren eta lanaren arteko haustura gure gizartean garbi ikusten dugu. Gainera, kultura egin edo eduki "daitekean" zerbait da, lana derrigorrez egin "behar" dena. Ezaguna da Bizkaian lanari "beharra" deitzen diogula. Agian ba du zer ikusirik.

## **KULTURAREN HISTORIA**

Hitz hau, gaur ematen zaion zentzuan, Herbert Read-ek dio 1510-gnean agertzen dela lehendabizikoz, hots, kapitalismoaren hastapenetan. Halere, emandako zehaztapenei esker, ba dakikegu hitzak baino errealidadeak historia luzeagoa duela. Hitzak da gutxienean.

Kulturak, kondaira zehar, hartu dituen era eta modu guziak ez ditut nik hemen aztertuko. Ez gehienak ere. Ez, nahi baduzu, garrantzitsuenak ere. Baina bai, gure euskaltzaletasuna hurbildik ikuitzen duten eta gure historia-une hau esplikatu lezaketen forma batzuk.

Azterketa honetan, J. Folliet-ek eta B. Losadak egindako lanetaz baliatuko naiz.

## 1.—Nekazaritza-kultura

Biziera bat, munduaren ikusmodu osoa, beraz, benetako kultura dela garbi geldi bedi.

Bere jaiotza, aspaldiko garai haietan galtzen da, hain zuzen urrutiko paganismoan. Gero, halere, kristianismoz jantzia bilatuko dugu.

Uri-kulturaren influentziaz noski, zerbait idazten den arren, ez da kultura idatzia. Ahoz-aho igarotzen da jakintza guzi hau. Entzumenak ikaragarritzko inportantzia izango du, jasotzen den guzia belarriz hartutakoa bait da beti.

Kultura honetan, erlijioa eta teknika-gaiak bakarrik erakusten dira zuzenki eta espres. Gainontzeko jakintza guzia denboraren eta pazientiaren poderioz egiten da.

Eta jakintza hori nola adierazten da? Dantza, errefrau, kantu, ipuin, esaera eta jazkeraren bidez. Gaur folklore zientzian sartzen diren ezaupideak.

Kultura, hau, bukatzeko, igaroetako garaietara so dago.

## 2.—Apaiztiar eta burges kultura

Nekazari-kulturaren kontrara, honek geroari begiratzen dio. Kultura honen berezitasunak oro, ruralismoko zibilizazioaren kontrakoak dira. Baserri giroko kultura hori, ipuinez, aurreiritziz eta mitoz hezurmamitutako aurre-kultura besterik ez da, hauen iritziz; kasurik onenean, zenbait bitxikeria kontserba daitezke, antigualaren ezaupidetzat, ez besterik.

Hura ez baino hau zen benetako kultura, idatziz eta inprentaz baliatzen dena, latina (hots, hizkuntza hila) erabiltzen duena. Begien memoria da hemen nagusi. Kultura hau, intelektualista da, herri-tradiziotik etena eta berezia, abstrazioa maite duena, konzeptu eta arrazoi-zalea.

Eliza eta monasterioen lur baketsuan erne baldin bada ere,

XVI mendetik gaurarte, burgesiaren kultura bilakatu da. Eta J. Folliet-ek xehetzen du: burgesiaren alderdi liberalak erabilia eta monopolizatua. Mundua aldatzen ez baino esplikatzen saiatzen den gizona sortu du kultura honek. Marx-ek barre egiten du. Eta arrazoiz.

Burges edo intelektual kultura hau, gaur, dagokion zigorra hartzen ari da. Beste era eta mundu anitz ezagutzean, errelatibizatu egin da. Halabeharrez eta zorionez! Absolutu-kutsu hori galitzen du, bai historian eta bai geografian. Ba dakigu orain, mediterranoetarra, uritarra, mendebalekoa, klerikala, unibertsidadekoa dela, eta ez besterik. Eta bere utilitarismoa talde bakarraren aldekoa denez, gisa da talde hori gainbeheraka datorrenez gero, kulturak ere bide bera jarraitzea.

### 3.—Kontsumoko kultura

Kultura hau, klasista da, talde menderatzaileen monopolioa. “Edozein pertsonak ba du eskubide komunitatearen kultura-bizitzan libreki eskuartzeko...” aldarrikatzen duen arren *Giza-eskubideen deklarazioak*, hautamen bat beraren mitoa deusezteko hor dugu munduko errealitatea.

Kulturako klasismo hori, sakonagoko gizarte-banaketan sus-traitzen da, alegia, diruaren arauera jarriak direla giza-pertsonaren ahalatasun eta posibilitadeak oro. Kultura honek, benetako Jainkoaren truke “mamona” eskeintzen digu, “diru ahalguztidun” hori.

Talde nagusien eskuetan daude, osorik, kultura indarrak. Eta ez pentsa harma hori uzteko prest daudenik. Arrisku handia da, izan ere, herriari begiak irikitzea, herriari askatasun bidea erakustea. Jakinaren gainean, (bai horixe!), herriari kulturabideak itxi egiten zaizkio, eta bere “bihotz onaren adierazgarri gisa” beste kultura hori eskeini: deportea, drogak, atseginkeria, iheskeria, protestakeria... Beraz, kulturaren orde zasi-kultura

eskeintzen zaigu. Bai, kultura honek esklabuak behar ditu, baina —hau zinismoa!— libreak direlakoan bizi diren esklabuak” (P. Montcheule).

Uniformismora eta pasibukeriara garamazki zuzenki zibilizazio honek. Robot bihurtu behar gaitu. Zer egin, nola egin, noiz egin, . . . , goitik erabakita hartzen dugu. Baina, —zoritxarra zoritxarraren gain!— erabaki horiek ez dituzte jakintsuek zuzentzen eta antolatzen, ekonomiaren jauntxoek baino!

Heinz Aboesch-ek honela zertzen du ohargabeko gizon hori: “Gizonak bere diruak haina pixatzen du . . . Besteak bezala bizi . . . modaren arauera jantzi, margodun prentsa irakurri . . . telebista ikusi . . . estranjerian bakazioak pasa, astean behin bederen zinemara joan, eta noizean behin elizara . . . Amerika maitatu eta boltxebismoa gorrotatu”.

Hala dirudianarren, ez da karikatura. Gutartean telebistan, oraintsu oraindik, publizidade bat ikusi ahal izan dugu, halatsua ziona: “. . . Zure familiak zenbat balio duen? Guk dirutan neurtzen dugu zure familiaren balio hori”. Eta halaxe zen: pixu-plater batean familia, eta bestean dirua barra-barra . . . Honatx kapitalismo nazkagarriaren benetako aurpegi arbuiagarri bat.

Kultura teknokrata eta materialista da hau, desklasatzailea eta konfort-zalea.

Arbola fruituetatik ezagutzen bada, nolakoa izanen den hau pentsa dezagun. Konfuziok zioena: “Pareta garbitzea alferrik da, zimaurrez egina denean”.

## EUSKAL KULTURA

Ez da dudarik. Euskal kultura, eusk-eraz egiten dena da soilik.

Hau hola delarik, desegokitasun handi bat ikusten dugu Euskal Herrian. Gure herria, industriaren eta teknikaren aldetik hazia dago, baina bere kultura ez dago maila berean. Malinowski-k bezala, herri baten hazkuntza gizonarenarekin konparatzea maite zuen Rikardok. Eta honela esango du, gizonengan bezala gerta daitekeala herrietan ere: gorputza hazi arren, izpiritua txiki gelditzea. Herriaren gorputza, teknika da. Eta izpiritua, ba dakigu: kultura. Teknikaz, hemeretzigarren gizaldian hazten da Euskal Herria, baina ez izpirituz gero! Oraindik gehiago esatera ausartuko da Rikardo, nahiz-eta bildurrez: Euskal Herria, bere buruaren jabetasuna galdu zuelako, industrializatu zela. Gero, hemeretzigarren mendea ikustean, argituko dugu iritzi hori.

Rikardoren iritzi, euskal kulturak, eiztaritza eta artzaintza ongi igarorik, nekazaritzan "stop" egiten du. Geldiune luzea hauxe!

Hau da gure kulturaren kondizionamendu bat.

Beste bat. Herri txikia gera, eta kultura handiz inguratua. Gure izkuntza ez da sekulan mintzaira ofiziala izan. Ez bakarrik hizkuntza ofiziala, kultura modernuaren hizkuntza ere ez. Arrotzentzat eta etxeoentzat, lehen latina eta gero bere alabak (frantzesak eta espainola) izan dira Euskal Herrian.

Egoera hau, hemeretzigarren mendean oraindik, hasarrerik gabe ikusten da. Euskaldunek ez zuten hor euskal kulturaren heriotze-arriskurik ikusten.

Guk, bai kulturaren eta bai kontrako indarren kontzientzia hartu dugunez gero, eta kultura horren heriotzarik-eza bakarrik ez baino hazkuntza bizia eta bortitza lortzeko, kultura herriko, borrokalari eta aurrerakoi bat nahi dugu.

## BURRUKALARIA

Gure eginkizuna ez da erreza. Kultura batek, haziko eta hezikio bada, giro bat behar du. Euskal kulturak giro hori ez du inon bilatzen. Ostera baizik, giro guzia, lau aldeetatik, kontra dugu. Ofizialtasunik ez... egiturarik ez... erraztasunik ez... (Litania luze bat jar liteke hemen... zuk zeuk ez badakizu, galdeiozu kultura lanean jarduten den edonori).

Koñsumoko kulturak, haizeak bezala, inguratzen gaitu. Jazkeratik hasi eta gizakeraraino, dena ematen zaigu beste nonbait moldatua eta taxutua. Ondorioa: era horiek ez dira guretzako eginak; are gehiago: ukatu egiten gaituzte.

Zer egin?

Ukapenari, ukapena. Ukatzen gaituena, ukatu. Ezetza esatea, askotan, gizon izateko modu bakarra dela idatzi zuen Rikardok. Euskal kulturak, egiten duen baino gogorrago ezetza ematen ikasi behar du. Baina gurea ez da ukapen itsua, ikonoklasta. Ukatuaz, geutasuna baieztan dugu, "geutasun betea" Salvatore Mitxelenak esango lukeanez. Gure gizagintza debekatzen duenari ezetza emanaz, geure nortasuna defenditu besterik ez dugu egiten. Nola beraz, erderari, kultura berdintzaile horien tresnari, leku egin gure kulturari? Gure kultura, euskeraz da, edo ez da gurea.

Honela, T. M. Olasorekin bat gatoz, dioenean: Ulertuko gaituzte, ulertzen ez gaituztenean. Ulertzen ez gaituztelako ulertuko gaituzte. Garbi dago. (Ulermena duenak, uler dezala).

Hainbeste ukazio eta ezeztapen ikusteak ez gaitzala izu. Zerbait hautsi nahi badugu, horren lekuan beste zerbait jartzeko da. Baina aitor dezagun, halere, desipuitze-lan handia daukagula euskal kulturari. Rikardok bezala euskaltzaletasuna berpentsatu duen gazte batek, desipuitzea beharrezko ikusiko du, eta sasi-absolutugintza asko kondenatzea preminazko.

Gure kultura “marjinala” da, baztertua dago, ez da ez aipatu ez aipatua. Eta Rikardok esango digu, hain zuzen hortik datorkiola bere borroka indarra eta esperantza: “Gaur egun asko dira “konsumuko zibilizazioaren” ondorio txarretaz mintzatzen direnak. Euskera da sistema horretan ez integratzeko garantirik onena. Dakizutenez, gaur, munduan, marjinalak, ertzean, baztertuak daudenak dira gizadiaren esperantza bere baitan daramakitenak —beltzak, hirugarren mundua, estudianteak—, bada gu ere, euskera mintzatzen dugunok, bizi geran gizartean erabat marjinalak gera. Hori da gure indarra, gure izate hutsa, delako gizarte horren ukazioa bait da, eta baita ere, zergatik ez esan, gure ahuldadea”. (*Gure Izarra*).

## AURRERAKOIA

Euskal kulturaren arazo interesgarrienetako baten aurrean gaude oraintxe.

Gaurko munduaren martxa laisterrean, bizi nahi badu, euskal kulturak ez du geldi egoterik. Hil-ala-biziko dilema planteatzen zaio hementxe. Eskailera automatiko horietan geldi zaudela esaterik ba ahal dago? Zu mugitu ez arren, eskaileraren martxa jarraituko duzu. Euskal kultura, gelditzen bada, kultura handi horiek markatutako bidea segitu beharko du. Eta hor galduko da.

Horregatik euskal kultura ez zaio kontserbatzeari lotuko. Ez du hortik etorkizunik. Lortzera jo behar du. Egoera berriei planteamendu berriak: hori da efikaziaren legea. Eta gaur, lortzea da batez ere gure eginkizuna. Zer lortu? Mila gauza, baina baitipait bi, alegia, *euskaldunak alfabetatzea* (hitzaren zentzurik sakonean) eta *erdaldunak euskalduntzea*.

Alfabetatzeaz gero mintzatuko gera. Ikus zagun bigarren puntua.

*Erdaldunak euskalduntzea*. Arazo zailenetako bat dugu hauxe.

Eta, beharbada, bildur diogulako, ez dugu sakonki aztertu. Euskal Herri osoan erdaldunei zuzendutako inkestarik ere ez daukagu eskuartean. Gure artean diren erdaldun horieri, euskal kulturari integra ditezen, laguntzeko, kultura-taldeak ez dute planifikaziorik.

Bestalde, puntu honetan frogatzen da benetako euskaltzaletasuna. Sokaren bi muturrak salbatu behar dira: burruka eta etorkizun batean denok lotzea, eta euskal kultura ireki honetara integratzea. Sokaren bi muturretatik bat askatzen baduzu, zure kontra datorkizu beste soka-muturra. Ez dugu “ghettoan” bizitzerik, baina ez dugu sasi-zabalgo baten izenean “geurea” galtzerik ere: horretan da hauzia.

Puntu honetan ezin dezakegu amor eman. Rikardok zionez “inperialistak” behar dugu izan. Inperialista izateak, kasu honetan, bizi nahi (eta behar!) dugula besterik ez du esan nahi. Euskal Herria “euskeraduna” egiten ez duguino, ez daukagula bizitzerik pentsatzen dugu. Eta pentsaera honen arauera jokatu behar du euskal kulturak.

Oraindik euskal kulturak ez du ikasi defentsarik onena atakatzeari dela, ez bere baitan biltzea eta kanpoko haizeei bildurrik izatea. Eta hain zuzen, narzisismo horretan murgildurik ikusten dugu, “euskal animaren esentziaren mitoa” sortuz. Virgilio-ren garaiko bukolismo innoxente batean finkatutako eta aspaldiko garaietan kokatutako mitoa. Kasu aurpegi emateko adorerik-ezaren ezaugarri den narzisismo horri! Egur ederra ematen dio Rikardok narzisismoari bere lan batean.

Berdin salatu behar dugu folklorekeria ere, herri baten balio goa aintzinasunean jartzen bait du. Halare, inolaz ere ez genduke ahaztu nahi, folkloreak ba duela, herri baten kontzientzia-hartzearen maila batean, bere eginbeharra: pizgarria da. Eta haintzat hartu beharra dago, ez zenbait “politikari klitxezaleen” esanetara makurturik, besterik gabe arbuia.

Baina pizgarria ez baino asegarria ere izan daiteke. Euskaltza-



le asko hortxe, folklolean, gelditu dira, kulturaren muinera heldu gabe. Nork ukatu, gure kulturaren burruka honetan, errezagoa eta politagoa dela, azalean gelditzea?

Eta folkloreak ba du beste arrisku bat: ohargabeen, etsaiaren jokua egitea. Ez gera buruz mintzatzeko ari. Euskal Herrian ikusi dugu, ipar eta hegoaldean. Azkenaldian ikusitakoa dut baitipait, orain, buruan. Uda partean Donapaleun bizi izan naiz hilabete batez, eta hango eta inguruko euskal jaialdiak ikusteko zoria izan dut. Zer ikusi dudan? Pariseri begira eginikako folklorea. Euskal Herriaren azalaren axala erakusten zuena. Gure benetako problematika (oraingoa eta lehengoa) ez zen sekulan azaltzen han. Euskera ere ez zen agertzen eta, kontuak atera! Han ikusten nuen nik euskaldunaren alderdirik tristegarriena: nola menderatzaileari atsegin izan lehiatzen. Eta zertako? Udatiar haiek, (gure lepotik barre egiteko ez denean), "izan zen herri baten" fotografia batzuk har zitzaten, bere Pariseko lagunei "Pyrenées Atlantiques" horretan dagoen herri bitxi baten azalkizun bitxiagoak erakusteko. Esklabutzaaren kontzientziarik-eza bai dela triste! Ipar aldeko adiskide batek esanik hain zuzen, Rikardok "folklorea Euskal Herriaren prostituzioa" dela onartu zuenean, munduko arrazoi guzia zueen berarekin.

Euskal kulturaren arazoketa folkloreak baino askoz sokenagoa da, askoz garratzagoa, askoz ere larriagoa. Berritu ala hil!: hori duzu dilema.

Zer da, funtsean, berrikuntza hori? Deus ez, hauxe besterik: kultura gizonaren zerbitzutan jartzea. Euskalduna non bizi da gaur? Hirian, kalean, industria-giroan. Euskal kultura ere, beraz, hiritartu, kaletartu egin behar dugu, zeren-eta nekazari-giroan gelditu zela baieztu dugu lehen.

Bai euskal kulturaren egoera hurbildik ezagutzeko eta bai kultura honi soluziobide batzuk bilatzeko, hemeretzigarren menderari begiratu bat ematea preminazkoa eta interesgarria da. Heme-

retzigarren mendean, bada, fueroak galtzen ditugu, *ius zena privilegium* bilakatuz, eta hain zuzen industria (hitzaren sentidu modernua) giro honetantxe sartzen da Euskal Herrian.

Gorputzez (lehen aipatua berrituz), XIX gizaldian handitzen da Euskal Herria, industriaren sartzearekin.

Baina izpirituz, lehen bezain txikerra gelditu zen. Zergatik? Industria hori erdal pentsaeraz eta erdal joeraz sartzen delako. Industriazaleak liberalak ziren, Ebroko mugari, beraz, ez zioten maitasun handirik. Euskal Herriaren onerako ez baino kalterako zela uste zuten. Industriarik gabe atzeraturik geldituko zela Euskal Herria ikusten zuten liberalak. Eta karlistek pentsatuko zuten industriaren sartzearekin Euskal Herriak bere nortasuna galtzen zuela. Pentsamentu-ardatz hauen inguruan sortzen diren pentsaera eta politika, elkarrengandik gero eta urrutiago izanen dira. Liberalak: aurrerariak, erdalzaleak, berrizaleak, zentralistak, librekanbistak izango dira. Baitipait Bilbao eta Donostian bizi dira. Karlistak: fuerozaleak, autarkizaleak, aislazionistak, nekazariak. . .

Abertzaletasuna karlistek monopolizatuko dute. Autonomiaren etsai bezala zetorkielako, ez zuten berrikuntzarik nahi. Eta berrikuntzaren sinbolu madarikatua, industria da. Haientzat joera honek euskaltzaletasuna osoki kutsutuko du: itxia, atzerakoa, defentsibakoa, kontserbadorea, nekazari-girokoa bihurtuko du. Gaur arte etorri den kulturak karakteristika horietaz duda-izpirik ez digu uzten. Berezitasun bera garbi garbi ikus daiteke literaturak eta folflorak ekarri diguten berdinketa hauetan: “euskaldun=fededun”, “euskalduna=baserritarra”. Peru Abarka hor dugu, gainera, zera frogatzeko, alegia, Maisu Jaunak, ikasiak, baserritar bategandik asko ikasi behar duela. Eta ez alderantzira.

Gaur ere oraindik tendentzia jakina dugu “ikasiak” “ez-jakinei”, “medikuak” “enplasteruei” . . . kontrajartzea, bigarrenago hauei arrazoia emanez. Jatorragoa da “enplasterua”, garbiagoa da “ez-ikasia”, berrikeria horiek kutsutu gabe kontserbatzen de-

lako noski. Euskaldun jatorraren irudia ez da kaleko gizonarena izan, eta bai, baserritarrarena. Gizona bas-herrian bizi zenean, irudi normala zitekeana, gaur ez da. Gaur, euskalduna kale giroan bizi da; beraz; lehenari erantzuten zioten irudiak ere aldatu egin behar ditugu. Ematen du euskaldun askok zera pentsatzen dutela, alegia, zibilizazioak (kulturak) zenbat eta gutxiago landu gizona, hobe delako. Momentu honetan, Rousseuren "basati ona" gogoratuko liguke Rikardok. Euskaldun askoren jokabidea, euskal kulturak aurrerapenari bildur diola pentsatzeko modukoa da.

Oraintsuarte, euskaltzale bakar honek monopolizatu du euskal kultura. Baina, Rikardok idatzi duenez, 1960-gn. urte inguruan, belaunaldi berri bat aterako da plazara, topikoak deseginaz, industria-gizarteko planteamentuekin, marxismoarekin topo eginaz bidean. Bistan da, euskaltzaletasun honen berezitasunak, lehen-goaren aldean, oso bestelakoak dira. Euskaltzaletasun hau, aurrelaria, radikala, burrukalaria eta sozialismo zalea da.

Belaunaldi berri honen sortzearekin, euskal kultura fenomeno berri baten aurrean dago: bi euskaltzaletasun daude orain, ez bat. Bitasun honek aditzera ematen du hoberen, ene ustez, bai politikan, bai gizarte-bizitzan eta bai hizkuntza-arlotan dagoen sokatira, tensio eta burruka hori. Nahi-eta-nahiezkoa den burruka, bestalde. Halabeharrezko eta ezinbesteko denik ez nuke esan nahi, baina bai ez dela harritzekoa. Nolako arinkeriaz juzgatzen den euskaldunen arteko burruka, horrek harritzen nau ni benetan. Batzuen "egoskorkeria" eta besteen "berokeria" nahasturik egon arren, horiek ahal dira, bada burrukaren lerro nagusiak? Ez eta ez! Geure arteko asarre honen sustraira ez goazen artean, geure buruaren kaltetan gabiltza. Gure egoeraren azterketa sakon bat zor diogu euskal kulturari. Eta hori egin ondoren, burruka nahi-eta-nahiezkoa ikusten badugu, askoz ere nahi-eta-naiezkoagoa ikusiko dugu bi joerok elkar ukatuz ez baino elkar osatuz aurrera egin dezatela.

## HERRIKOIA

Herrikoitasuna aipatzerakoan, modu eta xede zehatz batzuk adierazi nahi genituzke. Ez bedi herrikoitasuna, herrikoikeriarekin, populukoikeriarekin nahas. Euskal kulturaren herrikoitasuna indartzea preminazkoa dugun neurrian berean behar dugu herrikoikeria uxatu. Izan ere, populukeria euskaldungoa edo ahaztu edo baztertu edo ukatu egiten du. Eta une honetan bizi dugun kinka larriak euskaldungoaren kontzientzia biziaraztera bultzatu behar gaitu. Batasun-nahiak gorpuzten saia gaitzen. Euskal Herri bati, kultura bat dagokio. Eta hizkuntza bat, euskera batua.

Batasunik-eza, herria zapaldurik edukitzeko bide aproposa bilakatzen da. Problema bera dute afrikatarrek. Hego-Afrikan, esaterako, 7 hizkuntza ofizial bide daude. "Apartheid" politika dela-eta, gutxigoa egiten duten zuriak gobernatzen dute. Bada, gobernari hauek, delako "herrikoitasunaren" eta "herri-kulturaren" izenean, tribu-hizkuntzak aukatzen dituzte, eta beltzak inglesa eta afrikera bateratu ("afrikaan") ikas dezaten ez dute nahi. Zer lortzen dute joku horrekin? Nahi zutenaz ongi jabetu zen "Apartheid" politika estudiantzeko O.N.U.-k eraturako Batzorde horietako bat: "Sistema horrekin, inglesa eta afrikaan-a oso gutxiestua gelditzen dira. Eta horrela, tribu-hizkuntzak mintzatzen ez dituzten zuriak zuzenduriko ekonomia baten moldatzeko, eta beste tribuetako afrikatarrekin elkarbideratzeko ere, zailtasun larria topatzen dute hemen afrikatarrek". Besteak ziona: "Zatitu bai, irabazi duzu!"

Guk euskal kultura herriarentzako nahi dugu, ez goiko mailakoek, ez talde hautatu batzuek hartaz balia ditezten. Aristokratizismoa eta kulturalismoa ez dugu uste euskal kulturaren salbaidirenik. Ongi liteke aberatsak euskeraz mintzatzea, ongi liteke agintariak gure kulturaz arduratzea... noski! Baina ongi ez litekena da, hori lorturik, euskal kulturaren soluzioa bilatu

dela pentsatzea. Sekulan eta inon ere egia ez den hau gutxiago da gure artean eta gure gaurko egoeran.

Euskal kultura, herriarentzako izateaz gainera, herriak egina nahi dugu. Monopolio eske datozkigun taldeak, joerak eta sistemak uxatu egin behar ditugu. Herria behar dugu kultura horren egile. Ez hartzaile hutsa. Pentsatzen nago Rikardok berak ere herria ez ote zuen nahiko pasibu bezala hartzen. Herria kulturizatu egin behar dela eta kultura herritartu egin behar dela esaten zuenean, kultura hori banandu, xehetu, zabaldu, egin behar zela, defenditzen zuela uste dut. Merkantzia hobea herriari saltzearekin ez dugu dana egin: lehen bezin pasibu jarraitzen du.

Kultura herrikoia, herria herri bezala osatzen duena eta herriak herri bezala osatzen duena da. Baina zein da "herria herri bezala" osa dezakean kultura? Herriak herri gisa eratzen duena.

Hitz-joku honetan gure gizagintzaren eta herrigintzaren arazoa sartzan da. (Irakur zazu atzera eta ikusiko duzu).

## RIKARDO ETA...

Azken lerro hauetan, berak amestu eta maite zuan euskal kultura aurrera eraman nahian, Rikardok hartutako zenbait bide, laburki, oso laburki, ikusiko ditugu.

### 1.—EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Rikardoren penarik haundienetakoa zen gure kultura ez dela espezializatuak eta profesionalak landua. Zenbateraino gaituak diren askotan dudatu daitekean arren, andereñoak dira ia gure kulturaren profesional bakarrak. Profesionalak gehiagotu egin behar dira euskal kultura desarroilopetik ateratzeko. Adolezen-

tismoaren, espontaneismoaren eta amateurismoaren amildegitik gure kultura lehenbailehen ateratzen ez badugu, erdi-hazitako kultura bat izanen da beti, ez besterik.

Eta herri baten termometru bezala diren idazleak zeuzkan gogoan Rikardok. Idazleen artean, nor bizi da idaz-bidetik- Idazleak plurilaneatik bizi behar duen artean, Erdi-Aroan bezala Elizaren babespeko kultura izanen da gurea.

Bestalde, idazleak herriaren zerbitzutan behar du egon. Herri honen beharrei erantzun eta herri honen okerbideak zuzentzen saiatu behar du idazleak. Horregatik, idazleak programa eta planifikazio zehatz baten barruan jokatzea beharrezkoa da. Gure artean batez ere, herriaren eta euskeraren momentuari behar zaio begiratu: ikastoletan hor daude hainbeste ume tekstu-liburuen beharrean, alfabetatzeak sortzen dituen irakurle berriak ezin ditugu ahaztu. Eta euskeraren batasuna ere ezin dugu ahaztu, Etabar, etabar...

Gaur, zorionez, ez Euskaltzaindiaren lekua hartzeko, gutxiago Euskaltzaindiari kontra egiteko (norbaitek esan bide du!), ba dugu Euskal Idazleen Elkarte bat. Rikardok ez zuen ezagutu, bera hilda handik hilabete batzutara sortu zelako. Halere, Rikardo ahalegindu zen idazleen elkarte bat sortzen. Barne--Araudi bat ere egina du, eta hiruzpalau aldiz zenbait euskaltzale bildu ginen Elkarte hau nola aurrera eraman ikusteko.

## 2.—EUSKAL LIBURUGINTZA

Bere onetik ateratzen zuen Rikardo euskal editorialen axolarik- eta pulamenturik- ezak. Espontaneismoa, intransijentzia, kezkarik-eza, sasi-historia, folklokeria eta poesia lirikoa: horra Rikardok salatzen duen egoera. Baina liburugintzaren egoera hau euskaltzaletasunaren azalkizun bat besterik ez zela ondo zekien berak. Situazio honen nagusitasuna ezin jasanik sortuko da "Xi-

boletarren” arazoa bezala Karlos Santamariak bataiatu zuen haserre hura.

Liburugintza ondo eramateko, euskal argitaldarien bide batzuk behar dituzte markatu eta idazleak hartara behartu. “Politikaren atarian” dakuskegunez, euskal liburuaren programazio batek oinarrizko hiru sail hauek behar lituzke:

—Kulturaren dibulgaziozko oinarrizko liburuak.

—Itzulpen eta saiaera laburrak.

—Literatur-kreazio hutsezko obrak.

Nik dakidanez, Rikardoren iritzian, lehenengo saileko liburuak ziren beharrezkoenak, eta ez saiakerak eta ez literaturazkoak. Eta hau hurbildik ezagutzen dut, JAKIN taldean sortu zelako, hain zuzen Frantziako “Que sais-je” bildumaren antzeko zerbait egitea.

### 3.—EUSKAL ALFABETATZEA

Alfabetatze Batzordeak egin lanaren ondoren, ezin dut askorik esan. Osagarri gisa, puntutxo batzuk emango ditut. Rikardok bere ordurik gehienak alfabetatzearen inguruan eman dituela esango nuke. Baina bere alfabetatzailetasuna ez da herriz-herri emandako hitzaldi horietan bakarrik mugatu behar. Astero astero ziarduen Rikardok herria alfabetatzen, izkribu bidez. Urrutienera idatzirik ere, asmo hori garbi asko nabari da.

Alfabetatzea, funtsean, zer den? Kultura herrikoi batek behar duen infra-estruktura sostengarri eta zabalzailea, esango nuke. Hain zuzen, hain handi batean, kultura bat posible egiten duena.

Euskal kulturak ere beharrezkoa du infra-estruktura hori. Baina baldintza batekin: ez dedila “mini-euskerarekin” ase! Saldukeria latza egingo bait genioke, horrela, zerbitzatu nahi genuen herriari. Alfabetatzea ez da idazten eta irakurtzen irakastea.

Hona O.N.U.-k analfabetu ez izateko eskatzen dituen kondizioak:

- “nork bere mintzaira garbi eta aise hitzegin eta ulertu;
- bizitza arruntean preminazkoen dituen irakurzatiak leitu;
- idatziz bere ideiak aditzera emateko gai izan;
- aritmetika-operazio errezak egin;
- bere aberria beste nazioekin lotzen dituen lokarriak eta hartue-manak, zerbait bederen, ezagutu;
- bere gizarte eta lurraldeko historiaren, zibilizazioaren eta egituren ezagupena izan”.

Alfabetatzearen lehen mailako eginkizuna hauxe da. Oinari hauek segurtasun guztiarekin ezarri behar ditugu, etxea gainera eror ez dakigun.



## ELKARRIZKETA OSAGARRI BAT

Artikulua egin eta irakurri ondoren, zenbait puntu argitzeko eta beste zenbait biribiltzeko, elkarrizketa bat izan dugu Manex-ek eta biok. Manex nor den? Erdozaincy-Etchart, Baxenabartarra, Ibarlanen jaioa, 1934-ean. Euskaltzale porrokatua. Saiolari eta olerkaria. Aspaldi honetan Toulousen bizi da, eta horregatik Rikardo ez zuen bistaz ezagutzen. Baina bere artikulua irakurtzen zituen, eta oso interesgarriak iruditzen zitzaizkion.

Elkarrizketa hau magnetofonuz hartu dugu. Inprimaturik ematen dizugu zuri, Rikardo Arregi eta euskal kulturari buruz zuk ere holako "mahain biribil" batzuk egin ditzazun. Gaiak me-rezi duela pentsatzen dut. Eta Rikardori egin zenezaioken omenaldirik onenetakoa duzu.

*Erdozaincy:*—Zuk, hitzaurre horretan, Rikardoren kultura-idea nagusiak agertu nahi izan dituzu, irakurlea bere pentsaeraz hobeki jabe dadin. Esaten bezala duzu Rikardoren azken hiru urteak izan zirela aberatsenak. Baina ez diguzu aipatzen noiz hasi zitzaion bere euskaldun kontzientzia?

*Torrealdy:*—Ez dakit hori. Nik Rikardo, lankide gisa, berandu ezagutu nuen, hain zuzen azkenengo hiru urte horietan. Ha-

ren arreba Begoñari eskatu diot bere bizitzako datu nagusiak eman dezaizkigula. Hortik atera genezake, beharbada. Halere, apaizgai zela, JAKIN-en bilkuretan izaten zela ba dakit. Ez dakidana da nolako sakontasuna zuen, artean, Rikardoren euskaltzaletasunak.

E.—Gazte hutsa gutartetik itzali zaigu Rikardo! Ba ote dakizu noiz, zer adinetan hautatu zuen Euskal Herriari buruz lan egitea? Zeren-eta, bere bititze epe labur horretan, interesgarria litzaziguke, inondik ahal bada, bere pentsamentu eboluzioa ezagutzea. . .

T.—Noiz hautatu zuen Euskal Herriari buruz kultura-barrutian lan egitea, hori bai esan dezaket. Soldaduskan, oker ez banoago, Rikardo politikan ibilia da, gartzelan egona. Gero politikan ez baino kultura alorrean bere burua opaltzea erabakiko du.

E.—Nik Z.A.-ren bitartez ezagutu dut Rikardo, kaseta honetan astero idazten zituen artikuluen bitartez: gogotsuak aurkitzen nituela behar dut aitortu, eta uste dut Rikardo politikari ekarriago zela kulturari baino. Gainera, politika deritzat gizonaren hedadura osoa, eta alde horretatik pizgarri zitzaidan Rikardoren joera. . .

T.—Zer nahi duzu esatea? Nahi baduzu, zurekin nago. Baina, ene iritzia argitzeko, bi ohar nahi nituzke egin.

Bateko, idazle politikotzat zuen Rikardok bere burua. Baina nik politika ez zuela hautatu esan dudanean adieraztea baino ulertzea errezagoa den zerbait esan nahi dut. Konpentsazio-mogimendu bategatik, gizon guztiek egin behar dutela politika, eta denek egiten dutela uste da orain. Egia da, baina zer ulertzen duzu "politika" hitzarekin? Zuk sentidu zabalean hartzen duzu, eta nik itxian. Rikardok ez zituen taktikak aipatzen, Rikardo ez zen talde jakin baten militante: hori da esan nahi nuena.

Besteko, Rikardok politikaz ere alfabetatzea egiten zuen. Hautatzen zituen gaiak eta gai horiek nola erabiltzen zituen zehazki aztertzen baduzu, hau garbi dago.

E.—Enezat, Rikardok molde horretaz Euskaldunen kontzientziak nahi zituen atzar-arazi. Bestela, zer gerta liteke? Emeki-emeki Euskalduna bere mugetan gal liteke. Beste herrietako gertakari aipagarrienak —guretzat jakingarri diren neurrian— erakutsiz, Rikardok mugak jauzarazten eta irekitzen zituen.

T.—Eta ez hori bakarrik. Baizik “han” gertatzen zena aztertuz, “hemen” gertatzen zena agertzen zuen.

E.—RIKARDO BERPENTSATZAILEA dela diozu: euskal historia, euskal kultura hogeigarren mendeko euskalduna bezala pentsatu zuela. Guziz arazo inportantea... Hauxe da hain zuzen, Robert Lafont-ek eta eskualdekatze-zaleek Frantzian egin nahi luketena: zentralismoaren ikusmoldearekin egina izan den historia hori, Pierre Fougeyrollas-ek dionez, “ber-egin” ez bada ere “ber-idatzi” bederen, Occitania, Ipar Euskal Herria, Britainia, eta abar, historia berri horretan sartuz.

T.—Hori da. Eta bidea markatu besterik ez bazuen egin ere, hauxe da, nereko, Rikardoren meriturik handienetakoa.

Izan ere, gure historiari gagozkiolarik, berpentsaketa hau preminazkoa dugu, historia hori kanpotik eta barrutik gaixtotua izan delako.

Kanpotik; beraz, beste interes batzuekin, ikusmolde arrotzarekin (setatsuarekin izan ez denean). Horrela, Zumalakarregik erregearen interesa bakarrik bilatzen zuen, eta ez Euskal Herriarena...

Barrutik; ipuin eta mito askoz ornitua ikusten dugu. Rikardok bezala, desipuitzea eta mitoak larrutzea beharrezkoa da. Gure ibarrak ez dira sekulan Arkadia zoriotsua izan.

E.—GIZON IZATEA dela esentzia eta euskaldun izatea kontingentzia esaten zuen Rikardok. Euskalduna izatea beraz era bat liteke. Neretzako zerbait gehiago dela iduritzen zait, era aldakor huts bat ez behintzat. Asko urte hauetan Euskal Herritik kanpo bizi arren, uste dut ba dudala euskal pentsaera bat, gauzak ikusteko, juzgatzeko euskal jite bat. . .

T.—Baina zer da jite hori, zer da euskal *tasun* hori? Halere jatorriak mugatzen gaituela sinesten dut. Zenbaiteraino, ordea? Hor da hauzia. Dena dela, jatorriari baino inportantzia gehiago eman behar diogu bizi garen gizarteari uste dut. Brian Darling-ek diona: “pour moi, un homme ne se définit pas par son origine géographique, mais dans sa communauté”. Iritzi honetatik bi ondorio atera nahi nituzke:

1.—Ni, bizibeharrez edo hautamenez, Euskal Herritik kanpora bizi banaiz, bizigiro berri horrek moldatuko nau. Bidezko da. Vincent Monteil-ek kontatzen du “Iarru gorri” indioek ez dutela vietnamdarrekin batere batasunik senditzen eta bai ipar amerikatarrekin. Eta Estatu Batuetan bizi arren, jatorriz asiatarrek dira indio hauek. Moldaketa honi kontrarik egin behar geniokenik ez dut ikusten. Halere, bereiztu behar ditugu lurrez Euskal Herritik kanpo bizi arren, Euskal Herrian bizi direnak. Jose Azurmendik Alemanian ikasten du: baina nork dio ez dagoela Euskal Herriaren bihotzean? Txillardegik Euskal Herritik kanpora bizi beharra du: jatorriz bakarrik ahal da euskaldun?

2.—Euskal izate horretan ere, jatorriak baino inportantzia handiagoa du bakoitzaren oraingo komunidaderekin. Perspektiba honetan, Cantalapedran jaio eta Euskal Herrian bizi den bat, berdin izan litake euskaldun, ez?

Geiago oraindik: zu eta ni, euskaltzale bagara, ez da, funtsean, euskaldun jaio garelako, erabaki baten bidez

gizarte hau, komunitade hau, Herri hau, hautatu dugu-lako baino.

- E.—EUSKAL KULTURAK ez duela geldi egoterik diozu. Gelditzen bada inguratzen duten kultura handi horiek markatu bide jarraiki beharko duela. Nahi ala ez horrela izanen dela pentsatzen dut, kultura handi horien bidetik joan beharko du.
- T.—Argi eta garbi mintza gaitezen. Zer esan nahi duzu?: euskal kultura hilko dela? Lavau-k diona egitzat jotzen dut: “Gizadiaren historia zibilizazio eta kulturen hilerria da”. “Aitorren izkuntz zarra” kantu-egilearen segurtasuna nahi genduke beti gure baitan eduki, dionean, “. . . euskera galdutzeko ez dago beldurrik”.
- E.—Ni kultura handi horiek markatu bidearen alde azaldu naizeanean, euskaldunok ez dugula “ghetto”-rik egiterik, aberastasan orokar horretan parte hartu behar dugula, esan nahi nuen. Beste kultura nagusi horien bidetik joatea, gertakari normal bezala ikusi nahi nuen, ez kultura txikien heriotze-bide bezala. Arriskua ba dela hemen ez dut ukatzen. Eta kultura handi horiek integra ez gaitzaten saiatu behar dugula ere ez. Erakutsi behar dugu euskalduna kapable dela, lehen egin duen bezala, egungo zibilizazioa bereganatzeko.
- T.—Alegia, “hautasuna” galtzeko arriskua dugu. (“Hautasuna” Rikardok erabilitako hitz bat da, eta esan nahi du delako “principio de identidad” edo “principe d’identité”). Eta hain zuzen, *hautasun* hau ez galtzeko, beste kulturek integra ez gaitzaten, euskaldun bezala jarraitzeko gauza izan ahal gaitezen, euskal kultura ezin dela inmobilismoan eduki esaten nuen nik. Euskal kultura, hogeigarren mendean bizi den euskaldunaren zerbitzutan jarri behar da. Euskalduna hartaz balia ahal dadila. Eta horretarako, behar dugu eguneratu,

gaurkotu, zabaldu, kaletartu, zibilizatu. Mogimendu gehiago nahi da?

E.—ARAZOAREN FUNTSERA heldu gera, ezarian ezarian. Honen azpian dagoen galdera, hau liteke: Baina gurea bezalako kultura txiki bat salbatzeko hoinbeste lan egiteak deus balio ote du? Ba ahal du etorkizunik Euskal Herriak?

Axaletik begiratuta gure problema ez da ondo ikusten. Aldiz barnagodanik hartuz, nik garbiki esan nahi nuke gure jokabidea ez dela buruberokeria bat, ez dela erokeria. Behar diogu munduaren geroari so egin: mundu berri bat ari da sortzen. Ezin ditugu ez estaduak, ez gizartea, ez Europa gaur bezala hartu... Azken urte hauetan zerbait kraskatu da hoinbeste urtez geldiegi zegoen gizartean. Ez da dudarik Euskal Herrian bertan kraskatze honen ondorioak oraidanik ezagun direla...

T.—Ados naiz zurekin. Nik, ene lanean, ez dut zalantzan jarri Euskal Herria, euskal kultura, euskera, gerora biziko direnentz. Salbatuko diren ustetan, eta salbatzea nahi dugulako, horretarako eta horregatik estudiatu nahi izan ditut kultura horrek hartu behar dituen bide batzuk. Ia beti Rikardoren pentsaerari jarraikiz.

Zuk bezala, galdera beretsuak egiten ditu Robert Lafont-ek eskualdekatzeari edo regionalizazioari buruz: Noiz behar da kultura bat salbatu? Noiz kultura horri eusten dion hizkuntza? Guri ez dagokigula orain erantzunik ematea esango du, etnia- eta kultura-kontzientzia berri honek denbora behar duelako.

Ondo dakizunez, askorentzat gure euskaltzaletasuna buruberokeria hutsa da. Horientzat gure lana ezina da. Baina sinesturik gaude Larramendik bere liburuari "Ezina egina"

jarri zion bezala guk Euskal Herriaren historiari izen bera jarriko diogula: EZINA EGINA.

Bukatzeko. Kulturaren salbaidide batzuk aztertzen ibili naizela esan dut arestian. Baina aitortzen dut xendera eta bidetxigorretan gehiago ibili naizela. Gai bakoitzak kritika gogor bat behar du, estudio sakon bat. Ni ez naiz gauza. Baina estudio eta kritika hau ez kulturari bakarrik. Alor guzietan behar da egin. Esate baterako, politikan. Rikardok idatzi zuen bera euskaltzaletasunetik heldu zela sozialismora. Holako asko dago. Baina ba dira edo sozialismo batetik edo marxismo batetik... hasten direnak. Interesgarria litzake jakitea hauetatik zenbat heltzen diren euskaltzaletasunera. Horietatik zenbat diren euskaltzale, eta zenbat, Che Guevara-ren deiari erantzunaz Euskal Herria Vietnam bihurtu nahi luke-tenak bakarrik.

## «Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu»

*Joseba Arregi*

Ba da zenbait denbora Rikardo Arregi-k hori esan zuela. Eta, askoren iritzian, hori da gaur egun gertatzen ari dena. Gure eskuetan hiltzen ari da Jainkoa. Batzuentzat erlijio berri bat ari da zabaltzen gure egunotan. Besteentzat, berriz, gure Elizetan nausiki bizi ta azaltzen den erlijioa ta Jainkoa ez da kristaua. Historian zehar kultura jakin batekin nahasturik idolo bilakatu bai da Jainkoa, mitu bat, alienazio bat.

Erljioa desegiten ari da, Jainkoa mila gauza bilakatu da. Orain arteko Jainkoa euskaltzaleen Jainkoa zen. Bainan gaur egun euskaltzale izateko ez dago Jainko beharrik. Hori batetik. Eta, bestetik, euskaltzale izatea ez dago modan, ez dago ondo ikusia. Gaur egun euskaldun izan behar da, euskaldun izateak berekin dituen ondorenak azkeneraino bizitzen saiatuaz. Euskaltzaleetasuna gehiegi industriatu gabeko garai bati zegokion; base-ria maite zuen, nekazaritzarako espiritua zuen. Gaur egun folklorismo hitzarekin ezagutzen da.



Euskal Herriko Eliza erdi-minez dago. Apaiz asko, eta apaiz ez diren beste asko ere, Eliza ofizialaren ondoan pareko bezala beste Eliza bat sortzen eta hedatzen ari ote den beldur dire: “Eliza klandestinoa”, “katakunbetako Eliza”. Lehengo kristautasunaren ondoan beste kristautasun berri bat nahi da, lehengo erakundeen orde, erakunde berri batzuek, edo esakunderik eza. Hasieran, era aldatze bat besterik ez zen hau guzia. Liturgia-erak, predika-erak, apostolutza--erak, kristau-erak aldatu nahi ziren, lehengokoak desegokiak bait ziren. Bainan, erak eta barneko mamiak, sustraiak elkarrekin zerikusi handia dutela ahaztu ez genezan, era aldatze honek, mamia ta sustraia jarri ditu kolokan, eta benetan irrikatzen dena mami aldatze bat da. Azkenik, eta sakonera jomez gero, Jainkoa bera dago auzipean. Jainkoa bera edo gizonak dugun Jainkoaren ideia, iritzia; Jainkoaren irudia, adieranahia. Zergatik?

Jainkoa garai jakin batean osatu den kultura bateko elementu bat gehiago bihurtu delako. Gizonen mintzatzeko giza-mintzaira erabili zuen Jainkoak. Jainkoa gizonaren munduan sartu zen gizonarentzat ulerterraz izan zedin. —Eta mundua ez da behinere mundu, soilki, gizonaren mundu baizik, kultura beraz—. Jainkoa, azkenik, gizon egin zen. Eta gizonak ere ez du beste erremediorik. Gizonak, bere burura iristeko, eta beragandik kanpora dagon ezer iritxi ahal izateko, bere adimenaren eta bihotzaren bideak bakarrik ditu. Hau da: gizonak bere buruarekin, besteekin eta munduarekin dituen hartuemanak osatzen dute kultura. Eta Jainkoarekiko hartuemanak ere hor sartzen dira. Gizonak Jainkoa kultura baten barruan bizi du. Jainkoak berak hitzegiten diolako ezagutu dezake gizonak Jainkoa. Eta gizonak adimenez ulertu behar du Jainkoa ta bihotzez maita, edo beldur izan edo errespetatu. Gizonak duen kulturaren elementu berri bat sartzen da, beraz. Elementu berri hori ez da, berez, osoki, kultura elementu bat. Gizonaren sakonenera jotzen duelako, gizonari kontzientzia har-

tzen diolako, kulturen sartzen den elementu berri honen lehenengo joera kultura hori, bere sustraitik, kolokan jartzea da. Bainan hau, gehienetan lehenengo joera besterik ez da. Giza kultura bere burua defenditzen saiatzen da. Eta bide bakarra du hortarako: Jainkoa ta Jainkoak sortzen duen sinismena kulturatu. Horrela, kultura sustraitik kolokan jarri zezakean elementu berri hura, arrazoi berdinagatik, kultura beraren euslerik bikainena ta oin-harririk jatorrena bilakatzen da.

Horregatik esaten dugu "Euskaltzaleen Jainkoa". Esaera honez garai konkretu ta kultura bereizi bateko Jainkoa adierazten dugu. Pentsaera bereizi ta jakin bati zegokion Jainkoa; karlista gudateetan hasi ta Espainia-ko gudateraino euskaldunen kulturako, euskaldunen pentsaerako Jainkoa. Jainkoa garai hortako pentsaeraren elementu bat gehiago zen. Eta ez nolana hiko elementua, oin-harrizko elementua: Jainkoa ta lege zaharrak, Jainkoa ta herria, euskaldun-fededun, Euskal herriaren sinismena, euskaldunen katolikotasuna eta abar. Euskaltzaletasunaren oin-harrian zegoen Jainkoa. Jainkoak eta Jainkoarekiko sinismenak eusten zion euskaltzaletasunari. Ta euskaltzaletasuna nekazaritzari ta tradizioeri ta beste zenbait gauzei lotua zegoenez, Jainkoa ere gauza guzi horiekin lotua zegoen, eta horien eusle zen. Bainan garai haiek joan ziren. Pentsaera horri sorbidea eman zion giro-ingurua aldatu da. Gaur egun ez gera baserrira begira bizi, gaur ez ditugu uneoro lege zaharrak aitatzen, ez gaude tradizioei begira; beste abiadura bat hartu du gure pentsaerak, bai politika mailan, bai sozial mailan. Lehen, Jainkoa ta politika erakundeak —edo politika erakunde batzuen nahia— baturik zijoazen, Jainkoa ta sozial erakundeak baturik zeuden. Bainan politiko erakundeak —eta politika erakundeen nahiak— aldatu egin dira; gizarte erakundeak aldatu egin da, nekazari mundu batetik industariatutako mundu batera igaro gera; baserrietatik mundura, tradizio mundutik teknika mundura; bizitza geldi ta lasai batetik, guziak guzien ezagun

ziren mundutik, ezezagun ta ibilkari izatearen mundura. Jainkoak ez dauka gehiago zer eutsirik, zer oinharriturik. Pentsaera baten elementu bat zen. Eta pentsakera hori, betirako, aldendu da gure artetik. Eta Jainkoa?

Pentsaera bat hil da, edo hiltzear dago, ta Jainko hori, pentsaera hortako Jainkoa ere bai. Garai bat eta pentsaera bat hiltzear daude. Garai eta pentsaera berri bat sortzen ari dira. Eta bitartean gizon asko Jainko gabe aurkitu dira, bere pertsona integratzen duen kultura bat gabe aurkitzen diren bezala. Pentsaera bat hil da eta Jainko bat ere bai.. Hor bukatzen al da guzia? Pentsaera ta garai bateko gizonek bizi duten Jainkoa pentsamolde ta garai konkretu hortan agortzen al da? Kristau sinismenari gagozkiolarik, pentsaera ta garai bateko kristauek bizi duten sinismena erlijio huts bat besterik ez al da? (Erljioa, giza senaren ondorena bezala hartuaz). Jainkoa giza asmakizun hutsa bada, pentsaera hortako giza-elementu bat gehiago besterik ez da, eta pentsaera horren etorkizuna du berea, pentsaera horren etorkizunari hertsiki loturik dago. Bainan kristau Jainkoa ez da giza asmakizuna. Gizonei goitik datorkie. Gizonen erlijio-sena du helduleku, bainan erlijio sen hori hautsi ta superatuaz. Jainkoa kultura barruan sartzen da, giza kulturaren barruan. Gizonengana iritxi ahal izateko beste eremediorik ez dauka. Jainkoak eta berak dakarkien sinismenak giza erlijioaren lokarria aurkitu behar du. Eta hor, dialektika bat sortzen da. Gizonegitearen dialektika. Jainkoa giza kultura, giza pentsaera barruan sartzen da, bainan giza pentsaera hori sustraitik, nolabait kolokan jartzen du. Bainan gizonak bere pentsaera barruan itxi nahi du Jainkoa. Bere pentsaeraren elementu bat gehiago bihurtzen da, sinismena erlijio huts bilakatzen da. Eta erlijioa giza kulturari osorik dagokion elementua da. Eta kultura hori hiltzen denean, Jainkoa ere bai. Edo, hobeki esateko, sinismena erlijio huts bihurtzen denean, Jainkoa hil da. Jainkoa, gehienbat, idolu bilakatzen da, pentsaera, teori-ideia bi-

lakatzen da. Eta hau guzia, gizonaren barru-barrukoa. Horregatik sortzen da horrenbeste ixtilu pentsaera baten hiltzerakoan, Jainkoa den ideia edo teoriaren heriotza sumatzen denean. Orduan "erlijio sentipenak" orru dagi, bere Jainkoa kentzen zaiolako. Eta ez da gezurra. Bainan gogoan izan behar dugu, oiuka hasten dena "erlijioso" sentipena dela, "bere" Jainkoa kentzen zaiolako. Bainan kristau Jainkoa, sinismenaren Jainkoa kultura jakin bateko ideia ta teori bat gehiago bihurtzen denean, giza erlijioaren Jainkoa bihurtzen denean, ez da horrelako oiurik entzuten.

Hau guzia, gertatu beharrekoa bezala azaldu zaigu. Jainkoa, israeldarren Jainkoa, kristauen Jainkoa, giza kulturaren barruan sartzen da, gizon egiten da. Hor sortzen da giza kulturaren eta Jainkoaren arteko dialektika. Ba da honelako dialektikarik, eta gure egunotan ikus dezakegu. Jainkoa pentsaera batekin, garai jakin batean nausi den pentsaerarekin zenbaiteraino identifika ditekenez, garbi ikusten dugu gaurko egunean. Eta, baita ere, nahiko garbi ikusten dugu zenbaiteraino zail den sortu den eta sortzen ari den pentsaera berri batean Jainkoa nola aurkeztu behar den zehatzea, edo ta garai berrietan zenbaiteraino zail den Jainkoagan sinistea. Bainan lehenago aitatu dugun dialektika hori aztertu, oinharritu ta interpretatu egin behar da. Gainontzean, arazoa oso erraza litzake: garai bakoitzak berekin ekarriko du bere pentsaera, ta pentsaera bakoitzak bere Jainkoa. Jainko hori teoria nahiz ideia bat izan daiteke; pentsaera bakoitzeko ta gizarte bakoitzeko oinharri ta eusle. Gure eginbeharra, beraz, besoak tolestatuta egotea litzake, edo gehienez, garai bakoitzaren sorreran, garai berri horri ondoen dagokion Jainkoa asmatzea. Hau guzia errazegia da, ordea; alperkeriaren ondorio.

Jainkoak kulturarekin zerikusia ba du. Jainkoak giza historia-rekin zerikusia badu. Jainkoak munduarekin zerikusia badu. Gizona munduan aurkitzen da. Eta munduan munduko balioekin aurkitzen da. Gizona mundu mailako ta giza mailako balio estruk-

tura batean aurkitzen da. Hori da bere giro-ingurua. Eta gizona histori baten barruan dago. Gizona bera historikoa da. Eta horregatik gizonak ez dezake mundua bere mundutasun hutsean ikus. Bere mundutasunean: izadi bezala, aldaketarik gabeko sustantzia bat bezala, izate bat bezala. Gizonarentzat mundua ere historikoa da. Giro hontan sartzen da Jainkoa. Jainkoaren hitza, Jainkoaren sinismena, gizon egindako Jainkoa ez da gugandik, gure mundutik kanpora gertatzen eta gelditzen den zerbait. Askotan, horrela planteatzen da Jainkoaren eta munduaren —lehen aitaturako sentiduan ulerturik— arteko hartuemana. Kanpoan gelditzen den zerbaitek, Jainkoak, munduko errealidade guziz bestelakoa nola bereganatu dezaken. Bainan planteamentu hau ez da oso zuzena. Jainkoa ez bait da kanpoan gelditzen, barruan baizik, munduko barruaren muinean. Jainkoa gizon egin bait da. Benetan gizon, gizatasunaren barruan sartu da, historiaren barruan, kulturaren barruan.

Gizon historikoa ta mundu historikoa, aldia zehar, eboluzionatzen, osatzen doaz. Bien eboluzioa batera gertatzen da. Gizonak izadiarekiko duen dialektikaz bere burua osatzen doa. Eboluzio honetan gizonak bere buruaren jabetze bat bilatzen eta lortzen doa. Eta era berean mundua. Eboluzio honen joera giza adimenaren nausitzea dela esango nuke. Joera hau maila askotan azaltzen da. (Beste maila batzuetan berriz, zailagoa da ikustea, agian inolako eboluziorik ez dagoelako). Jainkoa, bere Semearen gizon egiteari esker, historian zehar, edo hobeto esateko, historia eginik eboluzionatzen doan gizatasun honetan sarturik dago. Jainkoak, gizon eginik, beretzat hartu zuen gizatasun osoa. Gizatasun honen garai bakoitzeko zabaltzea ta osatzea ere harturik dago. Garai batetik beste batera igarotzerakoan, beste era batera ulertzen du gizonak bere burua, gizatasuna beste era batera bizitzen, betetzen ta osatzen saiatzen da. Bainan aldaketa hori, berez, ez da txarra; sustraitik Jainkoak beretzat hartua da, bere muinean salbatua dago.

Honek ez du esan nahi, ordea, garai bat, edozein, Jainkoaren arreinuarekin identifika daitekenik. Horrela balitz, Euskal Herriak orain arte bizi izan duen garaia Jainkoaren erreinua litzake eta ez luke, inolaz ere, hiltzerik izango. Gaur egun gertatzen dena, naiz itxura handikoa izan, ez litzake sakoneko aldaketa izango. Krisis garai hau igarota, lehenagoko bake ta ordenara itzuliko ginake. Horrela pentsatzea, ordea, gure buruari gezurra esatea litzake. Jainkoa gizatasunean sarturik dago, gizatasuna sustraitik salbatuã dago. Gizatasunaren eboluzio guzia, beraz, muinetik salbatua aurkitzen da. Bainan, eta ideia hau garrantzi haundikoa da, Kristo-ren gizakundea oinazezkoa izan zen, sufrimenduzkoa. Kristo gizon egin zen, eta gizon izatearen ondorio guziak beragan hartu zituen. Eta gurutzean bukatu zuen. Gizon egitean, Jainkoak gizatasuna beretzat hartzen du, giza historian sartzen da, sustraitik salbaturik; bainan azkenean gurutzean hiltzen da, eta gurutzean Jainkoak, berak beretzat hartu duen gizatasun eta historia horri buruzko epaia ematen du. Gizonegitearekin Jainkoak gizatasunari (ta historiari ta munduari) bere baiezkua ematen dio. Baiezko hau osoa ta betikoa da. Bainan baiezkua honek gurutzeko epaia du berekin. Gurutzean Jainkoak mundua epaitzen du. Jainkoaren baiezkua ta epaia elkarrekin doaz. Horregatik, garai bakoitza, pentsaera bakoitza, kultura bakoitza oinharrian salbaturik daude, bainan une berean Jainkoaren epaia beregain erortzen da.

Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu. Jainko hori garai bateko pentsaera ta gizarte konkretu batekin berdindu den neurrian, identifikatu den neurrian, hil egin behar dugu. Jainko horren hiltzeak ez digu, ordea, halako minik eman behar. Gure egunotan osatzen ari den pentsaera, hedatzen ari diren joerak ere, oinharrian, Jainkoak salbatuak dire. Hoiien bitartez ere mintzatzen zaigu Jainkoa. Gertaera ta joera horietan mintzatzen zaigun Jainkoa ikustea ta aurkitzea da lana. Gure garai hau ere Jainkoak bere baietza emana die. Bainan esan berria den bezala, baietz honek

epai bat du berekin, gurutzearen epaia. Horregatik, datozen garai berri horiek ere, ez dira Jainkoaren erreinuarekin identifikatu behar. Sustraiari salbatuak dira, Jainkoaren adierazle izanen dira, baina juzgatu beharrekoak dira. Jainkoa berriro azalduko zaigu, garai haurerik baietza emanaz, eta, une berean, epaituaz.

Gaur egunean eta Euskal Herrian, hori da kristautasunaren eta teologiaren lana ta eginbeharra. Garai berri batzuek datoz, eta gizarte berri bat sortzen ari da. (Bada urte batzuek hori gertatzen ari dela). Elizak giro honetan du bere eginbeharra. Garai berriak bere barruko balioak ba ditu. Balio horiek ez dira sinismenarentzat indiferenteak; balio positibuak dira; kristauak, bere muinean. Eta gizarte berriak berdin. Balioak aitatzerakoan, ez ditut moral balioak bakarrik aitatzen. Balio maila guztiak adierazi nahi ditut: ekonomikoak, politikoak, gizartekoak, moralak, kulturalak eta abar. Guzti horietan ageria da Kristo-ren salbazioa. Ta Jainkoaren epaia ere, balio maila guzietan buruz gertatzen da. Jainkoaren baietza behin betikoa da. Garbi azaltzen da hori gizakundean eta, baita, ere, piztueran. Baina eskatologia iritxi artean, baietzko hori gurutzeko epaiak kondizionatua dago. Kondizionatze honek, ordea, ba du erlatibutasun bat: kondizionatze hori noizbait bukatuko dela, hau da: Kristo-ren bigarren etorrera ondoren, Jainkoaren baietza oso-osoa ta betea izanen da, guztia Jainkoratua izanen da. Eta Jainkoaren gurutzeko epaiean eroritako guztia, betirako kondenatua. Elizak etorkizunaren erantzukizuna ba du. Elizak itxaropen bat ba du, eta itxaropen honen serbitzari da. Itxaropen eta etorkizun honen serbitzuan dago eta hauen alde jokatu behar du. Itxaropen eta etorkizun hauek sartuarazi behar dute Eliza munduko ta gizonen eguneroko errealidadean. Ez bait zaio arrotz eta ajolagabe eguneroko errealidade hau. Errealidade hau baita da Jainko baietzaren ta epaiaren gai. Errealidade hortan doa osatzen Jainkoaren erreinua. Eguneroko errealidade hori da bere si-

nismenaren jokalekua. Duen itxaropenaren benetako erantzule izan nahi badu, egunero *egin* egin behar du itxaropen hori, etorkizuna egunero jaso. Sinismenak ekintza bihurtu behar du, beraz, praxis bat. Eta praxis horretarako argia Eliza erakutsiak eta teologiak eman behar dute. Praxis horrek, sinismenaren ekintza horrek politikoa izan behar du. Eta ekintza hori argituko duen teologiak, teologia politikoa. Sinismenak itxaropenaren arrazoi eman behar du, eta eguneroko bizitzan eman ere, politikak, ekonomiak, gizarte arazoak, lagunarteko hartuemanak, famili bizitzak etab. osatzen duten eguneroko bizitzan.

Sinismenak behar-beharrezkoa duen ekintza horretan, ba du zuzenbide bat, ez da nolana hiko ekintza: etorkizunaren itxaropena. Itxaropen hau da sinismenaren ekintza mamitu, eratu ta zuzpertzten duena. Etorkizun bati buruz ari da kristau sinismena. Eta etorkizun honek ere, kristau sinismenaren oinharri den Kristoren gizonegite, gurutz eta piztuerak bezala, sinismenaren ekintza kondizionatu egiten du. Ez askotan, gizakundea gogotan izan gabe, uste izan dugun bezala, besoak tolestatuta ezer egin gabe egoteko, mundutik ihes egiteko, gure ekintza, gure praxia sentidu konkretu batean zuzentzeko baizik. Etorkizun hori Jainkoaren erreinua da; Jainkoaren erreinua, eskatologia da sinismenaren itxaropena. Honek guziak ez du sinismena mundutik, historiatik, gizatasunetik ateratzen, bertan murgilduarazi baizik, baina bere barruan ase ezin izugarri batekin. Historiaren eboluzioan sarturik aurkitzen da sinismena, eboluzio horretako joera ta indar positibua bultzatu behar ditu, indar ta joera horiek bereak ditu, Jainkoaren erreinuan aztarnak dira. Historian zehar Jainkoaren erreinua osatzen doa. Baina ez da historia honetan behinere osatuko. Bere osamena eskatologian burutuko da. Oraingo historiak gurutz ta piztuera, biak bait ditu. Oinazezko gizakunde baten jarraitzaile da sinismena. Eta historiako eboluzioaren indar eta joera positibua onartu ta eragiten dituen bezala, sustraian Jainkoak



“asumituak” ba dira, Jainkoaren epaia ere berekin du sinismenak, mundu honetan negatibu, menperatzaile, gizonaren kontrako, bigabekeria, opresio, gezur eta horrelako guziak kondenatzeko.

Printzipio hauetan oinharriturik, etorkizuna ez da beldurgarria, sekularitzea, garai aldaketa, pentsaeraren eta bizieraren aldaketa eta hauek berekin duten Jainko itxura baten hiltzeak, ez dira beldurgarriak. Jainkoa ez da guk sines dezakeguna, guggan sinismena sor dezakena baizik. Eta Jainkoa garai guzietako errealidadearen barruan dago, ez batzuetan bai ta besteetan ez. Garai guzietan dago, guziak bai dira beren gizatasunaren parte. Eta gizon eginik gurutzean hila izan zen Jainkoa, ezarritako esturturen positibutasunean azaldu beharrean, oinazearen, kartzelaren, injustiziaren, opresioaren negatibotasunean azaltzen da batez ere. Sinismenaren eginkizuna da hori: Jainkoa non ari den ikusten saiatzea, Jainkoaren erreinua non ta nola osatzen ari den ikustea, eta indarrak horretara jartzea, eta gurutzearen epaia ere benetakoa dela historia honetan ez ahaztea, historia honek bere benetako osamena eskatologian izango duela gogoan izatea.

Hauek guziak gogoan izanik eta, gaur, gure herriaren Jainkoagan sinistu nahi izanez gero, ekintza batera zuzendu gaitzan gaurko giro-inguruaren azterketa bat beharrezkoa da. Kristau sinismenak eta teologiak gure gizarteko errealidadearen azterketa sakon bat egin behar dute. Politiko maila aztertu, ekonomia maila aztertu, gizarte-erlazioen maila aztertu, kultura maila aztertu, erlijio ta Eliza maila bera aztertu. Joera positibuak eta gizatasunaren aldekoak aurkitzen saiatu, gizona menperatzen duten lotura guziak argitan jartzen saiatu (mitu, dogmakeri, propaganda, alienazio, etab.), itxaropen bideak non sortzen diren ikusten saiatu, gizonaren aldeko itxaropen bideak, herriaren aldeko itxaropen bideak, etab. Jakintzaren aurrerabideak eta pentsaeraren eboluzioak gizonen askatasunerako eskeintzen dituzten medioak onartu ta ilusioz begiratu. Azterketa honek guziak ondasun aldetik ikus-

ten den guzia gehiagotzen saiatzea eskatuko du, eta gaitz, oinaze ta gizonaren menperatzaile den guzia burrukatzea eskatuko digu.

Azterketa hau konkretuan egin behar dugu: gaur eta Euskal Herrian. Azterketa honek arrisku handiak ditu: azterketaren gaia, gauza askotan ta maila askotan isilaren estalkipean dagolako, eta, hori dela-ta, era askotara ezagugaitza bilakatzen delako. Azterketa honen gidari bezala, bi linea nausi jarriko nituzke nik: —politika, ekonomia ta gizarte-hartuemanen mailetan berritze sakon baten nahia, berritzearen beharraren kontzientzia, eta kontzientzia honek berekin daramazkien ondoren guziak: kulturaz burua jaztea, euskaldun askok bere buruarekiko lortu duen errespetua, barne-bihurtze sakon bat balioen jerarkia egiterakoan, etab.

—ezinaren errealidadeak eraginda, etsipenak eraginda, itxaropenaren absolutizatzea, eta honen ondorenak: absolutismoak, dogmakeriak, joko zikinak, espak, etab.

Bi joera nausi hauetatik hasi daiteke azterketa sakon bat. Azterketak ekintza bat eskatzen du, sinismenaren ekintza. Sinismenak, ekintza horretan, itxaropenaren kontu eman behar du. Era guzitara, euskaltzaleen Jainkoa hil egin behar dugu, igarotako garai bateko pentsaeraren adierazle bihurtu da, eta gaurko gizonarentzat behar gabeko oztopo. Idolu bat da, Jainkoa gizarte ta pentsaera batekin identifikatu dute. Ta hori gizonegitea gaizki ulertzea da, eta eskatologiaz, Jainko erreinuaz ahaztea. Jainkoa ezin daiteke pentsaera bereizi batean agor. Jainkoa ez da ez garai baten, ez gizarte bereizi baten monopolioa. Jainkoa historian zehar azaltzen doazen indar eta joera positibuetan “enkarnatua” dago. Benetako Jainkoaren aurpegia bilatu behar dugu, ez berriro gizarte konkretu baten monopolioa biurtzeko, berarekin askatasun eragile ta historia egile izan gaitezen baizik. Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu, Jainkoagan sinistu, itxaropenaren erantzule den sinismenaz. Gure garaietan eta gure herriagan, idolurik gabe, itxaropen izan behar dugu.

## RIKARDO ARREGI, ALFABETATZEAREN ERAGILE

*Alfabetatze Batzordeak*

Gizartearen eta gizarte honetarako gizon eta emakume guzientz arazoa berekin zeramikien beti Rikardok. Denok dakigu hori izan zela bere bizitzako kezka, ta horrexek eraginda izan zitzaigun horrenbeste problema eta gora-beheretan bide urratzaile, gidari eta eragile.

Hain zuzen, 1965 eta 1966-go urtetan hasi ginen har-emanetan kezka berdintsuak elkarrengana gertu-arazitako zenbait gazte. Rikardo tarteko zen, eta orduantxe azaldu zigun lehenengoz berekin zeramikien kezka handia: euskaldunen analfabetismoa beren hizkuntzan. Euskaldun gehienek irakurtzen eta idazten ez jakin behar beren hizkuntzan... Rikardok arazo izugarri hau somatu eta aztertu zuen; baina hori bakarrik ez, berehala presentatu bait zigun problema horren soluzio-biderako erremediua: Alfabetatze Kanpaina. Proposamentu hori denok aho batez onhartu genuela esan beharrik ere ez dago. Berehala ekin zitzaion lanari, bakoitzak ahal zuen neurrian, baina beti Rikardoren ardu-

rapean, ta 1966-garrengo urtarrilean Euskaldunen alfabetizazioari buruzko proposamentu bat azaldu zitzaion Euskaltzaindiari "Jarrai" taldearen izenean. Proposamentu hori J. San Martin, Mikel Lasa, Iñaki Beobide eta Rikardok berak izenpetua zen. Euskaltzaindiak ontzat eman zuen, eta urte horretan, otsailean, Gipuzkoako Diputazioan egin zuen bilkuran J. San Martin, Aita Altuna, Mikel Lasa, Iñaki Beobide eta Rikardo Arregi izendatu zituen Alfabetatze gaitarako batzordea osa zezaten.

Handik aurrera, ordea, ez zen nahikoa batzorde bat izatea bakarrik. Lan pratikoari ekin behar zitzaion. Herriz-herriko zabalakunde egin, alfabetatzeari buruzko kontzientzia bat sor-erazi jendeari, irakasle izateko jende egokia topatu ta gaitzeko moduak egin. . . Mila lan. Rikardok berak ba zuen herrietan hamaika eza-gupide hitzaldi bidez eta *Z. Argia*-ko idazle zenez egina. Hauetara jo zen batetik, eta bestetik Herri Gaztediko eta antzerki sailtako ekintzaleengana. Zabalkunde lan hau, ordea, bat besterik ez zen. Ba zen beste bat garrantzi handikoa: Metoduarena, jendea nola alfabetatu. Hortarako hauxe burutu zuen Rikardok: lehendabizikoz, herritako irakasle zitezkenak alfabetatzeari buruzko hama-bost eguneko ikastalditan gaitu gramatika, literatura eta erabili behar zuten pedagogiaz. Gauza zen, eta da, azitakoak euskeraz irakurri eta idazteko gaitzea. Beraz, klase guztiak xede horretara zuzendutakoak behar. Gero, ikastaldi hau egin ondoren eta Euskaltzaindiak emandako agiri baten bidez irakasle hauek egin zezatela beren lana eskualde eta herrietan, toki bakoitzean ikastaldiak antolatuz. Kursillu horiek hilabetekoak izan dira ia beti, eta aurren-aurrenetik hasten da datozenei irakurtzen eta idazten erakustea gure literaturako zenbait autoreen izkribuen zatiz balioturik. Aurren baten, A. Villasanteren gramatika erabili ohi zen. Rikardori langintza horretarako egokientziona iruditurik. Zenbait lekutan Euskaltzaindiko jaunen kolaborazioaz itzaldiak antolatu ziren. Irakasleak prestatzeko lehenengo ikastaldia Donostian egin zen, or-

dea, 1967-go agorrean. Garai hartan Rikardo soldaduska bete-betean, zegoen, bainan permisua bat zela bide eta bere arreba Begoñaren laguntzaz ikastaldi hau antolatu ahal izan zuen. Gipuzkoako ballara guzietatik etorri zen jendea, gazte jendea, eta urrengo neguan ia hasi ziren bakoitza bere herrian lanean. Ikastaldi horren berri *Z. Argiak* eta Donostiako "La Voz de España"-k eman zuten. Dena dela, soldaduska osoan izan zuen berak alfabetatzearen ardura handia. Eten gabe zebilkien buruan nahiz-eta lana zailagoa eta urriagoa izan urrutitatiek eginda. Garai hartan garbi nabarmendu genuen Rikardoren falta langintza honetan genbiltzenok.

Soldaduska bukatu ondoren askozaz ere helduagoak zituen alfabetatzeari buruzko iritzi eta asmoak. 1968-go urtarrilean agiri berri bat egin zitzaion Euskaltzaindiari eta orduan batzorde berri bat antolatu zen Aingeru Irigarai jauna lehendakari zela eta Rikardo idazkari. Garai txarrak ordukoak. Rikardok, ordea, segi ta segi, eta alfabetatzearentzat antolaketa berria egitea erabakitzen du: Kanpainarentzat diru laguntza, hain premiazkoa dena, autofinanziazioa ezina denez gero, sortzeko bideak billatzea. Eta horretarako zenbat elkar-hizketa, zenbat ate-joka, Jainkoak daki zenbat lan igazko udaberri guztian zehar. Horretzaz gainera alfabetatzean bigarren maila jarri nahi lehendik aurrenengoa egin dutenentzat... dibulgazioko liburuak argitaratzeko editorial bat bere aspaldi-aspaldiko ametsa sortzeko pausoak eman, eta zenbat eta zenbat lan. 1969-go otsailean planteatu zuen alfabetizazioaren antolaketa berria erabat seriozki azkenean ematen dugun erara. Alfabetatze lana bere bidetik jarria zuen joan zitzaigunean, eta aurrera doa, berak azia ereinda utzi bait zuen. Guk ez dakigu bera guretik izan balitz langintza honek jarraipen berdina izango zukean ala ez, bainan gauza da Rikardok burutu eta hasiera emandako ekintza garrantzitsu hau ez dela nolnahi izkutatuko, egunetik egunera indartu baizik.

EUSKALTZAINDIA

Alfabetatze Batzordea

A. Irigaray —Lehendakaria  
R. Arregi —Idazkaria

ALFABETATZE BATZORDEAREN BULEGOA

Harremanak

Idazkaritza

Irakaskintza

Herrialdetako ordezkarien  
BULEGOA

Herrialdeko  
Bulegoa

Herrialdeko  
Bulegoa

Herrialdeko  
Bulegoa

Herria


Herria

Herria

Herria

Herria

Herria



## ALFABETATZEA RIKARDOREN IRITZIAN

Lan hau Rikardok idatzitako lanetan eta esandako gauzetan oinarritua dago. Bi partetan azalduko dugu. Bata Rikardok kultura eta Euskal Herriko kulturari buruz zuen iritzia hartuta, eta bigarrena Alfabetatzea kultura bide bezala hartua.

*Zer den eta zertarako kultura:* Gizonak bere gizatasuna osa dezan, bide luzea jarraitu behar du eta ez bakarrik gainera, beste herrikideekin eta gainerontzeko gizonekin batera baizik. Bere buruaz eta bere inguruaz jabetzen laguntzen dion guzia da kultura, beraz gizon batek bere burua eta inguruan duen gizartea hobea gotu behar badu kultura beharrezkoa du. Zehazkiago, euskaldunok gizatasunez jantzi nahi badugu eta gure herriari jabetasuna eman, kultura bideetatik abiatu beharra dugu.

*Euskaldunok behar dugun kultura:* Gizatasun abstraktu bat ez dagoenez, hots, gizon bakoitza leku batekoa eta garai batekoa denez, kultura mota bat dagokio, berea.

Euskaldunok ez gaitezke osa eta ez gure herriari jabetasunik eman, euskerazko kultura baten bidez ez bada.

*Horretarako eragozpenak:* Gure herria kultura gauzatan mendeko da, aspaldidanik, mendekotasun zabalago baten barnean, eta horrek ahuleria ikaragarri batetan gauzka murgildurik. Honen adierazpenak ugariak dira:

—Euskalduntasuna antzinako gauzatan bilatzea. Edozein gizartek du tradizioa eta zenbait gauzatan beharrezkoa du bere nortasuna gorde ahal izan dezan, baina aurreruntz begira, lehenetik oinarri sendo batzuk hartuaz garai bakoitzari dagokion dinamikara lotu behar du, heriotzean ez badu erori nahi.

Denbora luzean, gure herria dinamikaren haria eta benetako oinarriak galduta ibili bide da. Txapela, aizkora, apostuak, ardi narruak, irrintzinak e.a. izan ditu euskalduntasunaren ezagugarritzat, antzinadanik datorren oinarriarik sendoa, euskera, makaltzen utzi duen bitartean.

—Euskera gaurko bizitzak eskatzen duen mailan ez egotea. Hizkuntza batek iraunen badu, benetako tresna izan behar du pentsamentuaren mintzabide bezala eta are gehiago herri baten pentsamoldeak nortasunik galduko ez badu, bizitzaren alderdi guzitan bere hizkuntzaz baliaturik bakarrik lor lezake.

Euskera, ez da berez desagokia gaurko bizitzarako, kondairak mugatu du, lehen esan dugun mendekotasunak.

—Euskaldun gehienok gure hizkuntzan analfabetoak izatea. Gutxi dira gure herrian erderaz analfabeto, baina ez dira gehiago izanen agian, euskeraz idazten eta irakurtzen soilki dakitenak.

Pentsa gainera, ez dezaiekegula hori ere ez dakitenei bakarrik analfabetoak dei, materialki irakurtzen eta idazten



jakiteak ez bait du hizkuntza kultura tresna egiten, hortarako maila bat gorago igo behar da.

Ba du euskera idatziak beste eragozpen latziki ere kultura tresna izan dedin eta denetan argiagoen azaltzen zaiguna batasuna oraindik erdietsi gabe edukitzea da.

Kurpil ero batetan erori gera hau dala ta: irakurlerik ez dagoelako eta euskalki batetako liburuak oso gutxi uler ditzaketelako oso liburu euskaldun gutxi dago, libururik ez dagoelako nekez izan dezakegu euskaldunok euskeraz irakurtzeko ohitura eta horrela ezin irakurlerik egin.

*Egoera hori iraultzeko bideak:* Bere buruz jabetzeak baka-rik eman dezaioke Euskal Herria-ri kultura jabetasun osoa, baina bitartean eta bide batez hortarako, funtzesko eginkizuna du kulturaren egoera hori gainazpi aldatzea. Lehentxoago aipatutako kurpil eroari alderdi askotatik egin behar zaio eraso. Hona bi garrantzitsuenak:

- 1) Benetako argitaldari euskaldunak izatea. Urte askoen buruan, Euskal Herri-ko argitaldarien euskal gaiei buruz erderazko liburuak argitaratzen jardun dira, gure herria bizia egoteko ordez museutan erakusteko zerbaite balitza bezala. Euskerazko liburuak behar ditugu, irakurleak eta idazleak sor ditzeken.
- 2) Euskaldunen Alfabetatzea.

Eta orain azter dezagun bigarren puntu hau. Beraz kulturaren esanahia ikusirik, aisa ikusten da Euskal Herrian diren kondizioek ez dituztela euskal pertsonaren beharrak betetzen. Hau da, kondizio hauek ez diotela euskaldun bateri behar diren neurriak ematen bere personalitate eta osotasun bat izateko, zeren eta kondizio eta kulturaren sentidu hau erabat erdaldunak dira. Honela, agertzen zaigu, euskaldunek euskal-giza maila bat iristerik ez badute, kulturaren esanahia ikusi ondoren, analfabetoak direla.

Beraz analfabetoak direla esaten dugunean pertsona hazietaz eta larrietaz ari gera hitzegiten. Euskal Herria analfabetoa, zergaitik? Lehen esan bezala, bere inguruan eta bere ingurutik hartzen duen kulturak ez diolako Euskal Herri bezala osatzen uzten, ez diolako indartzeko eta sendotzeko arnasik ematen. Beraz analfabeto hitz hau soil-soilik harturik, lehenbiziko epea, Alfabetatze Kanpaina bat sortzea litzake. Kanpaina honen beharra ez dago esplikatatu beharrik, euskaldun gehienek ez bait dakite mintzatzen duten hizkuntzan ez irakurtzen ez idazten. Ez daiteke kanpaina hau bere soiltasunean har. Gizarte guztiaren giroa, lehen esan bezala, —legeak, eskolak, irratia, aldizkariak, anunzioak, etab.—, gizona bere eguneroko bizitzan inguratzen duten gauza eta eginkizun guziek, euskeraz irakurtzen eta idazten jakitea galerazten diote. Kanpaina honek, materialidade konkretu bat bakarrik du, baina ez dira ahaztu behar beregan dituen kondizionamentuak. Euskaldunak euskaldun bezala ez dira osatu, ez dira gehitu, beroei dagokien kultura bat ez dutelako izan, ez dutelako kultura hori idatziaren eta irakurriaren bitartez hartu. Beraz kanpaina honen eginbeharra, idazten eta irakurtzen erakustea izango da materialki harturik, lehen epean, baina hau bide bat, ate bat bezala izanik, euskaldunek behar hau ikus dezaten, bere analfabetismoa oztopo bat dela euskaldun bezala osatzeko, eta hemendik aurrera, dugun euskal kulturari laguntza eta bultzada bat eskeintzeko. Hau guzia bi hitzetan esanaz, Alfabetatzea euskal kontzientzia sortzaile bezala agertzen zaigu. Bestetik hauxe zion Rikardok: euskal kultura idatziak, gaur egun aurkitzen den bezala, ba du zenbait estrukturako gaitz bere baitan, eta gaitz hauek irauten badute, kultura berekin bukatuko dute. Gaitz hauetatik hiru ikusiko ditugu; puntu hauek ikutu ditugu lehen partean, baina orain Alfabetatzeari lotuta aztertuko ditugu.

### 1.—Euskera modernu baten falta edo ahultasuna.

2.—Euskeraren batasuna lortzeko zailtasuna.

3.—Eta lehen esan bezala, euskaldun gehienen analfabetismoa.

Harrigarria dirudike Euskal Herriko analfabetismoari buruz hitzegitea, zeren eta esan bezala hitz hau soil soilik harturik, kasteilanoari dagokionez, analfabetismo indizea oso bajua da, baina euskerari dagokionez ez zion gezurrik Ibinagabeitiak 'Munduan analfabeto gehien duen herria gerala' esatean. Bai analfabetismoa bere esanahi soilean harturik eta bai hitz honek dituen alderdi guzietatik ikusirik.

Beste problema hau harturik, Alfabetatze Kanpainari ere erantzupide hau ikusten zion Rikardok, hiru kuestio hauen problematika azterturik.

*Euskera modernu baten falta edo ahultasuna:* Hizkuntza batek, pertsonaren behar intelektualak eta sentimentalak espresatzeko medio bezala balio duen bitartean, iraungo du. Batzutan, hizkuntzak bere baitan dituen faktore sentimentalak indar bat dira bizi modernuaren mugikortasunean irauteko. Baina luzarora, intelektual espresioaren medio bat ez bada, hizkuntza galdu egiten da.

Euskerari, arrazoi historiko konkretu batzuegatik, honelako zerbait gertatzen ari zaio.

Dударik gabe, euskerak oso balore sentimental handia du euskaldun gehienentzat, baina pentsaera, teknika eta gaurko bizitza espresatzeko medio bezala, ez da tresna egokia. Ahultasun edo ez egokitze hau ez da ordea euskera beraren inkapazidade bat, hots, gaitz intrinseku edo berezkoa, zirkustanziala baizik.

Gaur egun lan handiak egiten ari dira euskera gaitz hortatik libratzeko. Azken urte hauetan aurrerakada handia egin da, euskera hizkuntza modernu bat bihur dedin. Lan hauek bi bide hartu behar dituzte: bata teknikaren bidea, eta zabalkundearena bestea.

Euskeraren modernizatzea edo gaurkotzea, teknikoan lana

da lehenik. Baina ez bakarrik hizkuntzaren teznikoena, baizik eta modernizatzea aurrera eraman behar den sail guzietako teknikoena, ekonomia, teknika, pentsamentua, etab... Modernizatze hau ez da laboratoriko lan bat bezala egin behar, noski, kriterio funtzional eta eginkorrak hautatuaz baizik. Baina dudarik gabe lehenbiziko lana, teknikoena da.

Baina era berean zabalkunde kuestio bat da. Zabalkunde kuestio bat, euskeraren modernizatzearen garaipena euskaldunek erabiltzearen eta teknikoek lantzearen esku bait dago. Eman dezagun teknikoek, hizkuntza bezala, gaur egunekoa den euskera bat lortzen dutela, berehala zabalkundearen problema sortuko litzake. Sozial komunikatze-bideak euskeraren zerbitzutan izanez gero problema soluzionatua legoke, baina gure egoeran beste lotura mota bat behar da euskaldunen eta euskera gaurkotzen dutenen artean, hau da: Herria eta teknikoen artean, eta hau euskaldunen alfabetatze kanpainaren eginkizunetako bat da, hau da, lotura hau sortzea. Problema ez da noski teknikoek gaurkotutako euskera herriari eskeintzea. Horrela diogu baina beharrezko da zerbait gehiago esatea. Errealidadean mugimentuak elkarrekikakoa izan behar du, elkarrekin osatzekoa: Hau da hain zuzen ere Alfabetatze Kanpainak egin nahi duena: idazlea publikuarekin harremanetan jarri. Harek herriari eskeini dezaiokena, honek jasotzeko ahalmena izan dezala.

*Euskeraren batasuna lortzeko zailtasuna:* Denek dakite, geografiz hain zabalero gutxi duen hizkuntza bat literarioki oso zaitua dagoela, hizkuntza literario oso ezberdinetan maiz, eta honek euskera idatziaren irauntzeari oztopo handiak jartzen dizkio.

Esan beharra dago, nola nahi ere, batu egin nahi den euskera ez dela hitzegiten den euskera, idazten dena baizik. Euskera literarioaren batasuna nahi eta nahiezkoa da, irauteko behar duen zabalkundea izan dezan.

Puntu honetan euskeraren modernizazioaz aurkitu dugun problematika berdinarekin topo egiten dugu (errealidadean askatu ezinezkoak biak). Hemen ere idazleak dira batasuna egin behar dutenak. Lan honek ordea, ez du sentidurik euskeradun jendetzari begira egiten ez bada. Aurreko puntuan esaten genuen bezala, Alfabetatze kanpainak zubi hori izan nahi luke, edo izan behar luke.

Eta azkenik ikus dezagun guretzat inportanteena den puntua: *Euskaldun gehienen Analfabetismoa*: Aurretik esandako guzietan, euskera idatzi gaurkotua eta batuaren zabaltzea eskatzen dute. Euskaldun gehienek, hitzegiten duten euskera idazten eta irakurtzen jakingo balute ere, Alfabetatze Kanpaina bat beharko litzake hizkuntzaren gaurkotzea eta batzea egin dedin. Baina esan daiteke, eguneroko bizitzan euskera erabiltzen dutenek, ez dakitela ez irakurtzen eta ez idazten, lehen esan bezala. Baita ere esan daiteke, numeruak handitu gabe, %-tik 95 euskaldun analfabetoak direla normalean hitzegiten duten hizkuntzan. Ba dakite kasteilanoz irakurtzen eta idazten baina euskeraz idatzitako zer-baiten aurrean galduak ikusten dira.


Euskerazko kultura idatziak ez du bere iraupena segurua ikusiko, hitzegiten duten euskera irakurtzen ikasten ez duten bitartean. "Gaur hizkuntza bateko semeak iraupenerako, beharrezkoa dute kultura, beharrezkoa bere hizkuntzan irakurtzen eta idazten jakitea". Eta irakurtzen ez badakite, zaila izanen da idazle berriak behar bezalakoak eta ugaritasunean sortzea.

Honela eta sentitu gabe, aurrerapenik gabeko bidean jartzen gera, edo irtera bakarra dago: euskaldun gehienak alfabetatzea.

Horregatik, hain zuzen, ahal den neurrian, behar horiei erantzun bat emateko sortu zen Euskal Alfabetatzearen Kanpaina".

Beraz, Rikardoren iritzian Euskaldunen Alfabetatzearen xedea honela labur dezakegu:

- 1.—Lehenbizi “euskaldunen alfabetatzea” kontzientzia sortzaile bezala. Kulturak gizonari, pertsonari zer eskeini dezaiokeen eta zer eskeini behar dion ikusirik, euskaldunok euskaldun bezala osatzeko kultura baten jabe ez garela somatzea, nabaitzea.
- 2.—Alfabetatze kanpaina, ate eta zubi, lokarri eta helduleku bezala izan behar duela euskera modernu baten eta euskeraren batasun ekintzetan. Herria eta “modernizatze eta batasun” lanak aurrera eramango dutenen artean lokarri, zubi eta ate bat, euskaldunei irakurtzen eta idazten erakutsiaz eta euskaldun horiei euskeraren, hizkuntza bezala, aurrerabideak eskeiniz.



*... eta gizona barnetik ...*

# SOZIALISMOA modan dago

Estraina, lan hau idaztea pentsakizun bat besterik ez zenean, "MARXISMOA modan dago" izenburuarekin argitaratzeko asmoa nuen. Lana finkatzean, ordea, egokiago iruditu zitzaidan "marxismo" hitzaren ordez sozialismo hitza jartzea, esan-nahi zabalagoa bai du sozialismoak marxismoak baino. Marxista den guztia da sozialista, kontrakoa ordea, ez da beharrezkoa. Hala ere, gaurkoz, sozialismoa ezin daiteke aditu bere osotasunean, historiaren barruan gertatu denez esan nahi dut, marxismoari referentziarik egin gabe. Honegatik, izenburuan sozialismoaren izena jarri baldin badut ere, gehienetan marxismoatzaz mintzatuko naiz.

## EUSKAL BELAUN BERRIA KONFORMAGAITZA

1910-gn. urte inguruan azaltzen da euskal arazoetara belaun



berri bat. Urte hori ezkeroztik, behar bada pixka bat lehentxoagotik, euskal adimena ta euskal sentipena berritu egiten da, bere baitan zartada bat sentitzen du ta orduez geroztik gertaera hau, belaun berri baten esnatzea, kontuan hartu gabe ez dago aztertzerik ez euskal kultura, ez euskal politika, ezta ere euskaldunen artean dabiltzan ideologiak. Hau da azken hamar urteetako gertaerarik bortitzena. Gure histori gertuenaren azalpenik ikusgarriena. Honekin ez dut juizio bat egin nahi, frogatua dagoen gertaera bat aitatu baizik.

Belaun hau rebeldea, konformagaitza ta radikala izango da. Bere jatorria ikusirik, ezin zitekean bestela izan. Euskal arazoak lo-giroan zeuden, iraute hutsean. Betiko topikoak ziren oinarri ta bide. Behar bada ezin zitekean besterik egin. Egoera hori ez zen kasikan euskaltzaleen errua; behar bada hauek ez zuten hainbeste ta hain azkar etsi behar ta besteengandik salbazioaren zai gelditu. Baina nor gera gu hori aztertzeko ta neurtzeko? Ez ditza-gun, beraz, lehengo belaunaren gain juizioak egin.

Euskal arazoan giro hortan sortu zen belaun berriaren euskal kontzientziaritzea. Esnatze ta kontzientziaritze garratza, euskal gauzen egoera nolakoa zen ikusirik, gazteen reakzioa bestelakoa ezin zitekealako izan. Behar bada, segurantza osoan hobetoago, denek —zaharrek eta gazteek— zuten garratzasunaren kontzientzia, baina gazteengan beti reakzioa gogorra izaten dela diote.

Honelako unetan eta honelako gertaeretan gertatu ohi den guztia ere gertatu da euskal belaun gaztearen kasuan. Belaun hau rebeldea ta konformagaitza dela esan dugu. Hortan aurkitzen da euskal belaun gazte honen lehendabiziko epe, etapa, maila batean izango duen zera: topikoak desegin beharra. Euskaldungoatzez kontzientziaritzekoan esnatze garratz batekin aurkitzen dela esan dugu. Kanpoko zirkunstantziak baztertuaz —hoiek kontuan hartzea beste estudio baterako gaia litzakealako—, euskal arazoan gaitza euskal pentsamentuaren eskolatizismoan zegoen.

Eskolatizismoa esaterakoan, hau adierazi nahi dut: repetizio bat besterik ez zela. Gauzak, arazoak, problemak berpentsatu beharrean, berresan. Betiko topikoetan sinestutzen jarraitu.

Bestaldetik, esnatze garratzak, pentsamentuari dagokionez, beste ondoren bat dakar. Esnatze garratza izan zela esan dugu, eriotza gero ta gertuago konturatzen denaren esnatzea baida. Garratzasunak belaun hontako gaztea burrukalaria egiten du, asmoetan behinepehin. Orduan galdera bat eta gertakizun bat azaltzen zaizkio. Galdera hau da: zergatik ez da burrukalaria euskaltzaletasuna? Ta euskal gazteak erantzun hau emango du: burgesa ta konserbadorea delako. Gertakizuna, berriz, hau da: gaurko gure gizartean burrukalarienak langileak dira edo, hobeto esateko, langilerik gabe ez dago burruka egiterik, batez ere industrializatutako gizarteā den EUSKALERRIA-n ez dago ezer egiterik sozialarik gabe.

Galdera edo erantzun hortatik eta konstatazio hortatik jaioko dira urte hauetako euskal belaun gazteriaren pentsamentuaren bi ezaugarri handienak: radikaltasuna ta sozialismoa.

Euskal pentsamentua burgestua ta eskolastikatua zegoela esan dugu, topikoetan finkatua. Hori ez onartzerakoan, topikoak desgitea, historiaren iturrietara joatea, euskal historia ta euskal arazoak hasiera hasieratik eta huts hutsetik estudiatu ta pentsatu beharra azalduko da. Hortan egongo da radikal izatea, huts hutsetik berriro iturrietara joate hortan, euskal historia berriro, pentsatze hortan. Esaten ari naizena garbiegi dago gazteen euskal literaturan.

Bestetik, radikaltasunaz gainera, euskal belaun gaztearen ezaugarri sozialismoa dela esan dugu. Baina euskaltzale gazte-diaren sozialistatze hau ez da epe ta une batean egin, ezta ere neurri ta era berdinean gertatu. Horregatik, lan honen barruan gauza bortitza delako hau, dibisio, banaketa ta astrazio batzuek

egin beharrean aurkituko gera. Aurrez aurre, diogu, bada, gauzak ez direla erabat honela, gehienetan bere bizian nahastuta aurkitzen direla, baina estudioa egiteko zerbait bakandu egin behar ditugula.

## SOZIALISMOAK EUSKALTZALETASUNEAN

Euskaltzaletasunaren eta sozialismoaren artean, hasieratik, adiskidetasuna egon beharrean burruka ixila, etsaigoa ez zenean, zegoen. Biak, euskaltzaletasuna ta sozialismoa, pertsona berdinean aurkitzea zaila zela esan nahi dut, ta ez euskaltzaleak adiskide sozialistak, ta aldrebes, ez zituztenik. Ta biak bat egiteko hasierako saiaketak ez dira jatorrak izan. Esplikatuko naiz.

Nere ustean, lehenago aitutzen genuen radikaltasun honek eman du bere fruitua, euskal arazoaren eta problemaren soluzioak euskal *gizon osoaren* soluzioa izan behar duela konturatzerakoan. Baina, eta ezin zitekean bestela izan, taktikak aurrea hartu dio dotrinari. Hori da, euskaltzaletasuna ta sozialismoaren elkartzea hasiera batean jatorra ez zela izan esandakoan, adierazi nahi nuena. Radikaltasunak eta burruka egin beharrak azkar ikustarazi zuen langileak eta soziala ezin zitezkeala baztertu. Ta hortan zegoen jatortasunik eza, hoietan zegoen indarra beste zerbaiterako aprobetxatu nahi izatean, langiletasuna, proletargoa beste xede batzuetara subordinatzean. Beraz, ez zegoen problemaren bi datoen artean —euskaltzaletasuna ta sozialismoa— hasiera batean eta gerotxoan ere batasunik, batabestearenganako menperatasuna baik. Gaur eguneko euskal pentsamentuaren zenbait problema ta zenbait kontradizio hortantxe daude.

Euskaltzaleen artean, euskal belaun gaztearen artean esan nahi dut, sozialismoa planteatu zenean, lehendabizi *sozialismo esenzialista* bat bezala planteatu zen.

Ba da gauza bat beste ezer baino lehenago esan behar dena.

Makina bat aldiz esan da aurreko lerroetan euskal belaun gaztea burrukalaria dela. Horregatik, sozialismoa dela-ta azalduko diren gorabehera guztietan, ez da behinere azalduko sozial-demokrazia-  
ren tentazioa. Gehienetan tentazio hori teknokrata joera zutenek eta Europa-ren eskapismoan sinesten zutenek izan dute. Gainontzeko guztietan, postura radikalak dituzten guztiak bezala, euskaltzale gazteak beti ezkerretik ibili dira; ezin zitekean sozialismoa onartu nahi izaterakoan sozial-demokrazian erori. Geroago hon-taz ere mintzatuko gera, baina baita ere esan behar dugu, euskal-tzaletasunetik sozialismoan sartu den euskal gazteria, belaun be-zala, ez dela komunismo ortodoxora joan, bakan batzuek hori egin baldin badute ere.

Beraz, lehengoa jarraituaz, lehendabizi sozialismo hitza ta nahia sartu zenean, sozialismo esenzialista bezala izan zela esan dut. Euskaltzale sozialismoaren histori-aurrea zela esan dai-teke, oraindikan benetako sozialismoarekin enfrentatu gabekoa. Hasiera batean, gutxi gora behera, honela planteatzen ziren gau-zak: sozialismoa euskal izaerari dagokion zerbait da, euskal historiak dio euskaldunaren benetako izaera sozialista dela. Horre-gatik da esenzialista joera hau, euskal arimaren, euskal historiaren, esentzi batean sinesten duelako, euskaldunak *berez* honelakoak edo bestelakoak balira bezala. Hau aurrera ta atzera egitea da une berdinean. Aurrera egitea, lehenago euskaltzaleak uste zutena, euskaldunak *berez* demokrata izaera zuela zelako, ta orain berriz, sozialismoa dela; ta bigarrena sinestea lehendabizikoaren orde z aurrerapen bat da. Atzera egitea, berriz, denbora pasian oraindi-kan esenzialista posturretan jarraitzeagatik. Euskal izaera berez demokrata edo sozialista dela uste duten guztiak hau uste dute gutxi gora behera: Euskalerria-ren gaitzak ez dira euskaldunen errua, besteak egin dute txarra Euskalerriko gizartea, beraz euskaldu-nak berak bakarrik utziz gero —hauek onak dira-ta—, bere gi-zarteko gaitz guztiak bat batean konponduko lirake. Ez dago

esan beharrik eta guri urbilegi dagoen euskal historiak hori adierazten digu, zenbateraino dauden itsatsita faszista joerak honelako postura batean. Izan ere, honelako sozialistek ez dute batere zehazten zer sozialismotzaz mintzatzen ari diren. Justizia, kolektibidadearen agintea ta horrelako zerbait, bainan ezer asko ez.

Era guzietara, etapa hau ba da denbora apur bat gainezkatua, superatua, izan zela. Oraindik, ordea, bere apurrak erabat zabalduak dabilta gure giroan eta batez ere esenzialista joera hori gure pentsamentuan sakonegi itsatsita dago, hain da uxagaitza.

## **MARXISMOAREN SARRERA EUSKALTZALETASUNEAN**

Jakiña, gertu gertuko gertaeretzaz mintzatzen ari naiz eta zail egiten zait gauzak behar bezala aztertzea, perspektiba falta zaidalako. Aldaketa handiak eta azkarrak izan baidira euskal pentsamentuaren barruan azkeneko bost urteetan. Ohar hau egitea beharrezkoa iruditu zait, orain lan honen muinean sartzen garelako ta berriro ere gertaerak eta pentsamentuak aztertu ahal izateko astrazioak egin beharrea aurkituko naizelako.

Marxismoa luzaro batean guretzat "tabu" bat izan da, mada-rikazio guztiak zituen bere gain, ezagutu gabe kondenatua, gaitza- ren personifikazioa, kalamidade guztien iturria, materialismoa- ren guraso zikina. Ez da beraz arritzekoa burrukalari ta rebelde gazteri batek honelako gauza arrotz batezaz kuriosidade handi bat izatea. Bestetik, berriz, topikoekin burrukan dabiltzanak edo- zertarako irekiak daude ta zirkunstantzi horietan benetako mar- xista batekin aurkitzeak bere biziko ondorenak uzten ditu, ta hori da euskal belaun gaztearekin gertatutakoa.

Neronek ere aitortu behar dut nere bizitzako une bortitzene- takoak, pozez eta bildurrez betetakoak, Marx eta marxistak ira- kurtzean hasi nintzanekoak direla. Uste nuen marxismoa erabat

baztertu behar zen zerbait zela, ez zuela baliorik, eta bat batean zenbat gezur esan zizkidaten konturatu nintzen, eta marxistak zenbat eta gehiago irakurri ta orduan eta zabalago egiten zitzaidan mundua, gizona ta historia. Ase ezinean, konformagaitza ustean zegoen gazteriarentzat bazirudien euskal pentsamentuaren eta euskal arazo guztien soluzioa emango zuen iturria aurkitu zela. Beraz gazteri honi gertatutako gauzarik bortitzena edo bortitzenetakoa marxismoaren aurkitzea izan da.

Marxismoarekin aurkitze hori munduko historiaren eta politikaren une berezi batean gertatu da. Kontestu hortan euskal belau gaztearen —gazteri honen zati batena behinepehin— marxistatzea ez aztertzeagatik analisisko erru asko izan dituzte zenbait kritikariek.

Gehiengan, euskaltzale gazterian marxismoaren sarrera bost urtetik honuntzakoa da; garai hontan nazio-arteko politika ta sozialismoa zertan zegoen ikusi behar dugu zenbait joerei buruz ideia garbiak eta argiak izateko.

Stalinismoa aspaldian desegina zegoen, ofizialki gutxienean, komunista partidu ortodoxoetan. Cuba-ko gertakizunen ondorenean, Kennedy ta Krushev-ek “coexistencia pacifica” delako politikari eman zioten sortzea, honela gudu hotzari bukaera emanaz. Ordurarte bat zen nazio-arteko komunismoa erdibitu ta zatitu egiten da, batetik sobietiko-zaleak —moderatuak—, eta bestetik mao-zaleak —radikalak—. Gertaera honek partidu komunista bakoitzari libertade ta askatasun handiagoa emango dio, bakoitzak bere lekuan egokiena zaion joera izateko. Hortaz gainera, ideologiaren barruan ere askatasun handiagoa sortuko da komunisten baitan. Togliatti-ren testamentua famatua egingo da. Krushev Sobietikoen Batasunaren agintzaritzatik botatzen dutenean, partidu komunistak ez dute lehenago bezala “amen” esango, esplikazioak eskatuko dituzte. Castrismoarekin marxismo era berri bat sortuko da, lehengo ortodoxiatik kanpoan dagoena. Katolikoekin

harreman ideologikoak hasiko dira. Urruti gelditzen dira stalinismoa, Budapest, Pozuam eta honelako gertaerak.

Ta ez dezagun Viet-nam utzi. Izaten dira garai guztietan gertaera ta arazo batzuek gizona eta gizarteak erdibitzen dituen, postura hartu gabe gelditu ezin daitekenak. Gizaldiaren hasieran Dreyfus arazoa Frantzia-n, Algeria-ko gudua ta honela alderdi ta une guztietan. Oraingo, urte hauetako erdibitzailea Viet-nam'eko gudua da. Denak diote gudu hau gaizki dagoela ta zikina dela, baina ez dituzte denak ondoren berdinak ateratzen. Erdibitzea amerikanoak kondenatzerakoan edo ez sortzen da, amerikanoak agresoreak diren edo ez erabakitzerakoan.

Zergatik aitatu gauza guzti hauek? Euskal belaun gaztearen zati batean estatu sozialistenganako jaio den sinpatia ta arrera ona entenditzeko. Asko badira gure esan eta iritzien kontra Budapest-ko gertaerak, Stalin-en garaiak etab. gogoratu erazitzen dizkigutenak amerikanoen joerak eta estatu kapitalisten egiteak kritikatzin ditugunean. Ez ditugu hoiek ahazten, hoiek ordea atzokoak dira, ez gaurkoak. Maurice Duverger-ek artikulu famatu batean zion bezala, gaur egunean tiraniaren herri-buruak ez dute izen bezala Budapest, Moscou etab., Santo Domingo, Saigon etab. baizik. Ta ez uste gaurko zenbait estatu sozialista eredutzat hartzen dugunik, gure ustean estatu hoiek ez badute benetako sozialismoa jaso oraindik. Hala ere estatu sozialista hoiek gertuago daude gure asmoetatik estatu kapitalistak baino.

## **MARXISMOAREKIKO POSTURAK**

Nazio-arteko ta Euskal-erri bertako kontestua ikusirik, azter ditzagun aurkitze izugarri honen aurrean zer postura hartu dituen euskal belaun gazteak. Hortarako klasifikazio batzuk egingo ditut. Honekin ez dut adierazi nahi, ordea, postura hauetako

bakoitza huts hutsean aurkitzen denik, bakar bakarrik joera ta tendentzi bortitz eta indartsuenak seinالاتu baizik.

Lehendabiziko postura batean *marxologoak* jarriko ditugu. Postura hontan Marx-engan oso ententituak izanik, beren pentsamentuan ideologiko sistema itxi bat osatu dutenak sartzen ditut. Marx-engan hasi ta bukatzen direnak. Marx-engan eta Lenin-engan. Hauen karakteristika inportanteena beren pentsamentua sistema oso, logiko ta koherentzi handi batekoa izatea da. Ez dakigu zer diren, marxistak edo marxologoak, Marx-en aituak edo Marx-ek idatzitakoak berpentsatu dituztenak. Nik lehendabizikoa uste. Eskolastiko marxistak esatearekin adierazi liteke ondoena esan nahi dudana. Galdera guztiei, gertaera guztientzat ba dute Marx-en eta Lenin-en liburuetan zita ta erantzun bat. Berebiziko segurantzta dute bere pentsamentuan eta Marx-ek eta Lenin-ek gai guztientzat eman zutelakoan daude. Nere ustean, marxismoa pentsatu beharrean, marxismoa ikasi egin dute. Marx-en aurkitzearekin arriturik, bere baitan gelditu ta finkatu dira betirako. Psikologiaren terminologian "fijatu" egin dira, itsatsi, finkatu. Ez dute ia bere kontura pentsatu behar, ez gehiago pentsatzeak dakarkian arriskua korritu beharrik. Postura honek, ordea, ezin lezake fruiturik eman, dena dagoeneko —aurretik— bai ba dakite.

Ba diteke postura honen deskripzioa karrikatura izatea, bainan ez da honela, eguneroko errealdade bat da gure artean; ba dira honelakoak eta batez ere, beren segurantzta izugarriagatik deitzen dute atenzioa; ta ba dira segurantzta bila ibiliaz horietan finkatzen direnak. Hauekin elkar-hizketa zaila ta nekoso da ta ez dut uste, sistema itxi batean bizi direnez gero, Euskalerria-ren problemak soluzionatzeko benetako ahalmenik ba dutenik.

Bigarrengoz, *marxistak bigarren epean* direnak jarriko ditugu. Hauek lehendabizi euskal esenzialistak dira, euskal izaeraren esentzian sinesten dute. Horregatik, lehendabizi euskal esentzi hori jartzen dute oinarri ta sustrai bezala ta, hortan finkaturik,



hasten dira gero marxista bezala pentsatzen. Marxismoa hauen-  
tzat erantsitako zerbait da, eraskin bat. Hauen marxismoa beste  
ideia ta sentipen batzuek kondizionatuta dago. Serioski mintzatzten  
dira marxista bezala, baina beren benetako motibazioa, sustraia  
ta fundamentua beste zerbaitetan, euskal izaeraren ideia batean  
dago. Bi sustrai horiekin, euskaltasuna ta marxismoa, bat egingo  
balute, ez legoke zer esanik; bainan ez da honela gertatzen. Bata  
bestearen ondoan dago, bata bestearen gainean, baina biak ez  
dute batasuna osatzen, bakoitzak bere izate ta izaera berezia dute.  
Egia esateko, ordea, eta nere ustean, bi errealidade horietatik le-  
hendabizikoa —euskaltasuna— gelditzen da garaile, bigarrena  
bere menpekotzat harturik.

Ta honela iristen gera marxismoarekiko hirugarren postura  
batera. Postura hau lehengoaren berdina dela esan daiteke, lehen-  
goa bera, baina beste modu batera planteatua, beste modu batera  
esana. Hauek *sasi-marxistak* dira. Esan dugunez, euskal belaur  
gaztea bere radikaltasun eta rebeldi hortan laister iritxi zen eus-  
kaltzaletasunak aurrelari ta progresista izan behar zuelaren ondo-  
rriora. Orduan ba dira bere buruari galdegin diotenak, zer aurrela-  
riago marxismoa baino? Beraz, pentsatzen dute hauek, euskal-  
tzale on eta zintzo bezala aurrelari ta progresista izan behar dugu-  
nez gero, marxistak izan gaitezen. Hori baino aurrelariago ta ezker-  
tiarrago izaterik ez bai dago. Ta marxismoen artean ezkertiarre-  
na onartzeko ta jarraitzeko joera dute hauek. Joera hontako ba-  
tzuk maoistak, txino-zaleak, egingo dira. Baina ez uste benetako  
marxistak izatera iritxiko direnik inoiz, ez sobietikozale eta ez  
txino-zale. Ta hori arrazoï sakon bategatik, marxismoa justifi-  
kazio bezala hartu nahi dutelako. Hitzetik ortzera ibiliko dituzte  
Marx, Lenin eta Mao-ren esanak. Ez gera horregatik harrituko  
beren asmoetara ta ideetara egokiegi datozten esanak aurkituko  
dituztela ikusterakoan. Hori pentsalari handien ideak sakabana-  
tuak eta bakanduak, bere osotasunean hartu beharrean, hartzen

diren guztietan gertatzen den gauza da. Katoliko ta kristauen artean ebanjelioarekin eta Aita Santuen enziklikaekin zer gertatzen den pentsatu besterik ez dugu. Erabat diferente ta kontrako diren ideak ateratzen dituzte bertatik. Marx-ekin ere beste honenbeste gertatzen da, bere esanak sakabanatuak eta bakanduak hartuz gero, komeni zaigun guztia esan lezaiokegu. Hori da hauek egiten dutena. Ez dira inola ere marxistak, ortodoxoak edo rebi-sionistak; beste zerbait dira, euskaltzale esenzialista amorratuak, hitz batean esateko. Beren ezkertiar, erabat ezkertiar esanak, itxura bat besterik ez dira, azalezko zerbait besterik ez. Poujasdis-tak Marx aitatuaz gehiago dirudite beste ezer baino.

Laugarren posturan *marxismoarekiko irekiak* direnak jarriko ditugu, nere iritzian jatorrenak direnak. Hauek Marx berpentsatu egiten dute gure zirkunstantzi konkretuetan. Ez dute bat batean eta besterik gabe Marx-ek esandakoa onartzen, lehendabizi pentsatu egiten dute, ta gero, beharrik baldin badago, pentsatu hori zabaldu ta osatu. Ez dira batere dogmatikoak, itxiak, edozertara irekiak daude, dinamikoak dira. Honekin hauetaz esan diteken gehiena esana dagoela uste dut, gehiena ez bada ere bortitzena behintzat.

## **KATOLIKOAK ETA...**

Lanaren une hontara iristerakoan, neronek jokuan sartu beharra dut, eta gai hauetan sartzea katoliko euskaldun gazte barentzat izan ditekean gauzarik zailenetakoa da. Izan ere, oraindik euskal laiko katolikoak ez gera haurtzarotik atera.

Bildur diot gai honi, egia esateko. Nere asteroko artikuluetan ez dut behinere aitatzen enzikliken esanik, Jainkoaren izanik eta Eleizaren iritzirik. Gutxienean saiatzen naiz hori gerta ez dadin. Asko mintzatzen da gure artean triunfalismoatzaz, kondenatuaz

jakina, baina gure kondizionamentu soziologikoak jeneralean kondentzen duguna egunero bizitzera bultzatzen gaitu. Batetik edozein postura hartu ta jokatzeko, edozein gauza egiteko, kultura edo politikan, katoliko izenari jarriz gero, txartel hori hartuz gero, segurantz handiagoarekin eta erraztasun handiagoarekin jokatzenda gure gaurko gizartean. Horregatik, askotan ikusi dugunez, edozein gauzetan katoliko zintzoa dela bat demostratu nahi izan ohi da zerbait egiten hasteko. Hori batetik; eta bestetik, gure artean ba dirudi batzuetan laisterketa dagoela ea nor den katolikoena demostratzeko. Denek darabilzkite Aita Santuen esanak. Eleizaren dotrina, bakoitzak berea defenditzeko ta indartzeko. Hitzetik ortzera erabili ta ezer gutxi bete. Gainera honekin, honela hitzetik ortzera esan hoiek erabiliaz, pentsatu beharrik ez dago, dena esana bait dago, obediencia izatea nahikoa da, egiaren bila dabilenak duen tansion ez da gehiago azaltzen delako horietan. Beren makurtasuna ta obediencia alferkeria ta ezjakintasuna da. Ez dute pentsatu beharrik ez dute arriskatu nahi, seguruan, geldian daude. Ez da arritzekoa izango zirkunstantzi hauetan laikoak ahulak azaltzea beste zenbait politikolari ta kulturadunen artean. Ta hori katolikoena eta baita ere euskaltzaleen artean, "ghetto" espiritua zabaldua ta indartua dagoela aitatu gabe, hortaz geroago mintzatuko bait gera.

Besterik gabe ta ezer gehiago esan baino lehenago, hau esan dezagun: gaur egunean euskal laiko gazteak laikotasun biolentu ta gogor baten beharra duela, bere autonomia defenditu behar duela, bere fedearen ostentaziorik egin gabe eguneroko burrukan parte osoa hartu behar duela.

Dudarik ez dago kulturadun gizon bat ezin daitekeala egon Marx eta Marx-en dotrina ezagutu gabe. Euskal katolikoena artean, ordea, gutxi, oso gutxi dira hortan daudenak. Gehienak Marx eta marxismoa besteen ahotik ezagutzen dute, iturrira joan gabe, bere benetako problematika estudiatu gabe, bere azterketan

sakondu gabe. Ezin daiteke esan katoliko batek materialismo dialektikoa hartu lezakenik. Espiritualismo faltsu batetik materialismoa gutxitan hartu ezin baldin bada ere, trazendentzian sinesten dugunok ezin dezakegu onartu materialismoak bere baitan duen inmanentzi hutsa, bertakotasun soila.

Zenbaitetan marxismoa kristautasunaren kontzientzi txarra dela dirudi. Zenbaitetan ez dira ikusten kristau aurreratuak, marxismoarekin obsesionatuak daudenak, hauek baino aurreratuagoak nola izan; hau nola gainezkatu, superatu, hauen ordezeko "aurreratu" bat aurkitu. Horregatik ez zaizkit atsegin Teilhard de Chardin eta neurri estuagoan Mounier. Ba dirudi Teilhard de Chardin-ekin batzuek hau diotela: "Ikusten duzute?, guk ere ba dugu pentsalari modernu bat, zientifikoa ta Marx bera baino aurreratuagoa, jakintzari buruz ezkertiarra. Egon gindezke trankil, guk ere ba dugu, zuek, marxistak bezain pentsalari sakon eta azkarra. Ez dugu zuen beharrik progresistak izateko".

Egia esateko, hori dena egia izan daiteke, baina ez dut uste egiaren maitale den batentzat abiadura ona denik. Apaltasun gehiago behar dela uste dut, maltzurkeri ta okerbide gehiegi azaltzen dituela marxismoaren sustitutoaren eta ordezekoaren bila ibiltze honek. Ez dut esan nahi, hau onartu behar denik, baina bai hauengana konplejurik gabe ta apaltasunarekin joan behar dela. J. M<sup>a</sup> Gonzalez Ruiz-ek dion bezala: "Recientemente, en un diálogo con algunos amigos marxistas a la sombra acogedora de la Roma del Concilio, intentaba definir y rechazar la postura antimarxista de muchos católicos. Por antimarxismo entiendo la postura de aquellos que afirman que en la ideología marxista y en los que la profesan no existe la menor partícula de valores positivos; o que, si existen, hay que inventar otra ideología y reclutar otras huestes que incorporen a su programa y a su acción esos mínimos valores "apresados" por los marxistas. En el primer caso, se trata de una posición claramente maniquea, total-

mente opuesta al optimismo creacional del cristianismo. En el segundo caso, se trata del problema de la "inflación de la gracia, o sea, creer que la gracia —y el ministerio de la gracia, la Iglesia— tiene que producir de cuajo su propia intendencia, creando de la nada todos los valores humanos, haciendo con ello la competencia absoluta a todas las demás instituciones y grupos humanos" (1).

Uste dut, gure alarde guztiak aparte utzita, ez dugula oraindik "ghetto" espiritu hori gainberatu.

Arriskua arrisku hutsगतik ez dela maitatu behar, argi da goen gauza da. Katolikoak bere fedearantzat jokabideetan segurantzak behar dituela ere argi dago. Baina fede hori une bakoi-tzean eraberritu behar dela, izateratu behar dela ere, argi dago. Horregatik, askotan bide jakinetatik atera nahi dugunok, ezin-egon ugari batean bizi nahi dugunok, arrotz bezala egiten gera katolikoaren artean eta ez zaigu hori hain erraz barkatzen.

\* \* \*

Baina sozialismoatzaz asko mintzatzen denez gero, eta katoliko ta euskaltzaleen artean ere bai, ezin utziko dugu aztertu gabe.

## SOZIALISMOA ZER DA?

Sozialismoa topikoa bihurtu da, kristautasuna bezala. Izenpe horren barruan era guztietako abiadurak sartzen dira. Hainbeste

(1) "El Cristianismo no es un humanismo", J. M<sup>o</sup> González Ruiz, Ediciones Península, Madrid, 1966. Interesgarria iruditzen zait liburu hau, eta orain aitatzen dudanez gero, berari buru zerbait esatea. Derrigorrean irakurri beharrekoa dela uste dut. Liburuaren egileak Kontzilioaren XIII eskema delakoaren egituraren parte handia izan zuen eta, nere iritzian, gaur eguneko teologiari onenetako bat da. Kristautasunarekin mila mistifikazio egin ohi izan dira; mundutasunari dagokionez, beraz, kristautasunaren errealidadeak berpentsatu behar dira. Hori da liburu hontan egiten dena.

dira, gainera, bestaldetik sozialismoaren erak, bakoitzak berari komeni zaiona har lezake. Hortik eskubi muturreko jendeak ere askotan bere buruari sozialista izena jartzea. Gainera, sozialdemokrata nazio-artekoak, komunzki sozialista izenarekin ezagutzen direnak, duen programak ez dut uste inori buruauste handirik sortuko dionik. Gizonaren dintasuna, gizarteko justizia, klaseen berdintasuna, pakea etab., nork ez ditu onartzen?

Hitzak oraindik sentidu bat baldin badute, ta jeneralidadeetatik ihes egin nahi badugu, sozialismo hitzari ta ideitari zehaztasun handiago bat eman behar diogu.

“Ex cathedra” moduan ezin dezaket esan hau da benetako sozialismoa ta gainontzeko guztiak ez dira egiazkoak, faltsoak baizik. Baina hori posible ez bada ere, puntu batzuek jarri daitezkeala uste dut sozialismoaren abiadura duela batek onartzeko. Gutxienean puntu hoiak onartzen ez badira ta bere hoiak barruan jokatzen ez bada, sozialismoa sentidu gabeko itz batean bihurtzen da, demagogirako erabiltzen den zerbaitean, eskuindar politika baterako ezkertiar soinekoan.

Ta, luzatu gabe, mamira jo dezagun. Puntu bakoitza banaka aztertu dezagun.

### **Klaseak ba dira**

Metaphisika alde batera utzita, kondizionamentu soziologikoan erabili ditzagun gure pentsakizunak. A zer nolako poza hartuko luteken batzuek, klaseak desegin direla sinesterazi ahal balezate! Ez da klaseak klaseagatik maite izateagatik, baizik eta sozialismoa dela-ta eztabaidaren muina hontan dagoelako.

Soziologiari buruz gure gaurko gizarteetan klaseen banaketa, dibisioa, ba dela ikusten da. Klaseen arteko dibisio hori orain ehun urte bezalakoa ez dela, esan beharrik ez dago. Politika burrukan errealidade hau, theorian gutxienez, denak gainezkatu nahi dute.

Baina batzuek, errealidadea honela dela aitortuaz, behar diren ondorenak ateratzen dituzte. Besteek, ordea, ta hauek gehienetan gutxienen interesak defenditzen dituzte, klaseak ozidenteko Herri aurreratuetan ezereztu direla sinestarazi nahi digute. Izan ere, klaseak ez balira gizartea ez legoke aldatu beharrik, lehengoan jarraitzekotan legoke, ta honela bakoitzak bere lekua gorde behar du.

Gauzak besterik dira, ordea. Klaseak gizarte kapitalista (edo neo-kapitalista) guztietan zutik jarraitzen dute. Ta klaseen arteko diferentzia ez dago batzuek asko irabaztean eta besteek oso gutxi, batzuek —gutxienek— produzioaren ondasunak bere menpean dituztelako ta besteak —gehienak— hortatik urruti gertatzen direlako. Politikan ezin daiteke jokatu kondizionamentu soziologiko hau ahaztuta. Gainera, errealidade hori ez da berez aldatuko; gutxiago produzioko ondasunak menperatuta dauzkatenak. Sozialista den batek hemendik asi behar du: Gaurko gure gizartean klaseak ba dira, klaseen arteko diferentzia produzioko ondasunei dagokionez egiten da ta situazio hori ez da berez konponduko, gutxiago goikoak.

### **Klaseak burrukan daude**

Baliteke burruka hitzak odol usaia adieraztea zenbaitetan, baina burruka esaterakoan ez da gorrotoa ta odola adierazi nahi. Askotan honela izan da, baina ez da hori berezkoa. Kapitalistek (edo neokapitalistek) beren izaera langileari bere lanaren zati bat estutzeagatik osatzen dute. Beren izaerari bizi ahal erazitzekotan hori egin beharrean aurkitzen dira. Langileak, berriz, benetan beren giza izaera osatzeko ordena (edo desordena) desegin beharrean aurkitzen dira. Amor eman behar lukenak, kapitalistak, ematen ez duenez gero, ez da borondate hutsez auzia konpontzen, ta burruka sortzen da. Langileei beren eskubideak ez zaizkie

emango, ezagutuko, hartu egin beharko dituzte; ta hartzen utziko ez zainez gero...

Burruka hau derrigorrezkoa den edo ez, historiaren motorra den edo ez, beste eztabaida bat da. Gaurko politika ekintza konkretuan sozialista batek errealidade hori ezin dezake ahaz: klaseak burrukan daudela, ta langileek ezin dezaketela gizarte berria jaso burruka hori gabe.

### **Gizarte berriak langileengandik etorri behar du**

Gizarte kapitalistetan inor gutxi dira gizarte berri bat jaso behar dela ukatzen dutenak, baina nork dute interesa hori gerta dadin? Langileek bakarrik. Besteak zertarako aldatu behar dute gizarte?

### **Klase batasuna derrigorrezkoa da**

Behar bada beste era batera esan behar litzake puntu hau: planteamentu politikoak egiterakoan sozialista batek ezin dezake jokatu klasearen batasunetik kanpo.

Klasearen batasunari burua mistizismo faltsu bat izan dela besterik gabe etorriko zela. Matematikalariek darabilkiten esanarekin, ordea, sozialismorako klasearen —langile klasearena noski— batasuna beharrezkoa dela, baina ez nahikoa. Desestalinizatze ondorenean sortu da Herri bakoitzak sozialismorako bere bide egokia aurkitu behar duela esatea. Ta ondoren jatorra da hori. Geroztikan ikusi dugu, gainera, sozialista izeneko estadiak elkarrekin asarre asarrean ibiliak direla Europa-n; edo, hobeto esateko, estadiu sozialista bakoitzak bere politikan nazioaren interesak nazio-arteko langile klasearenak baino gorago jarri dituela. Hori sobietiko ta txinosen arteko eztabaidak aitatu gabe. Herri



bakoitzak sozialismorako bere bide egokia izatea derrigorrezkoa da, baina naziotasuna klasearen batasunetik kanpo pentsatzea sozialista joera batean inola ere onartu ezin daitekeena da. Ez da honekin errealidade batzuek, eginbehar batzuek besteak baino garrantzi handiagorik ez dutenik, hoiak denak politika arazoetan klasearen batasunetik kanpo aztertzea ta erabiltzea berebiziko arrisku handi bat da.

Sozialista politika batean ezin daitezke nazioa ta gainontze-koak lehendabizi jar; ta gero sozialismoari dei egiteak hori defenditzeko, sentidurik ez du. Klasearen batasunaren barruan egin behar dira planteamentu horiek.

### **Produzioko ondasunen herriaren jabetasuna**

Benetan kapitalista sistima ezereztu nahi baldin bada, produzioko ondasunen jabetasuna eraberritu behar dela dudarik ez dago. Adieratzaile, planifikazioaren lekuan derrigorrezko berri bat jarri behar dela ta irabaziak ekonomi sistimaren motorra izaten ezin lezakeala jarraitu, dudarik ez. Hori egi bihurtu dadin produzioko ondasunen jabetasuna herriarengana, hots, langile klasearengana bihurtu behar duela sozialista sistima batean, ukatzerik ez. Honen modalidadeak, ordea, erabat diferenteak izan daitezke, kojestioa edo estaduaren jabetasuna etab.

Kapitalismotik sozialismora pasatzea bakean egin daitekean edo ez, parlamentuaren bidez edo bestela, etab., taktikari dagozkion eginkizunak dira. Ez dira orain eztabaidatzekoak.

### **BUKAERA**

Nere ustean, bukaeran, lantxo honen bukaeran jakina, iritxi

gera gaiaren muinera. Puntu bakoitzak eta aitatu ez diren beste bortitz batzuek, azterketa sakon bat behar lukete. Bakar bakarrik, sozialismo hitza barra barra dabilenez gero jendea zertaz mintzaten den konturatu dadin puntu inportante batzuek aitatu ditut.

Katoliko batentzat, batez ere, interesgarriak dira ta mila ezinegon, tensio ta desagokitasunen iturri. Kapitalaren eta lanaren arteko desberdintasuna konpontzerakoan mistizismora jotzen delako. Borondate ona derrigorrezkoa da, baina soziologiaren legeak eta kondizionamentua ezin daitezke baztertu, ezta gutxiago ere.

Ta ara nondik beste baterako nahiko gaia uzten dudan.

## Ezkertiar berriak

Merleau-Ponty filosofilaria bere azkeneko liburuan honela mintzatzen da:

*“Errealidadean ordea jakintzarekin, teknikarekin, artearekin, ekonomiaren aldetik zituzten hartuemanak etenda zeuzkatelarik historiaren eta filosofiaren ideia handiak erabat ahulduta arkitzen ziren, eta —onenetan ez ezik— politikan erabiltzen zen gogortasuna ta rigorismoa, alferkeriarekin, kuriosidaderik ezarekin eta inprobisazioarekin elkartuta zegoen. Politikaren eta filosofiaren arteko ezkontza honelakoa baldin bazen diborzioarekin poztu besterik ez dugula ez dirudi” (1).*

Hitz hauen artean garratzenak, “politikan erabiltzen zen gogortasuna ta rigorismoa, alferkeriarekin, kuriosidaderik ezarekin eta inprobisazioarekin elkartuta zegoen” diotenak dira. Garratzak gaurko politika, politikologia eta politikazaletasunaren barruan ar-

---

(1) Maurice Merleau Ponty, Signes, Libraire Gallimard, Paris 1960'gn. Liburuaren hitzaurrean arkitzen diren hitzak dira hauek.

kitzen den egon ezinaren muina ondoena azaltzen dituztenak di-  
relako. Egon-ezin hori ba dela, hortan aitua diran guztiek aitort-  
zen dute, baina errealidade honekin amaika modu diferentetara  
enfrentatu daiteke. Enfrentatzeko modu horien artean ba da bat  
guri orain interesatzen zaiguna: *ezkertiar berriena*.

“The new left”, “la nouvelle gauche”, “ezker berria”,  
nork ukatu ez dituela iñoiz entzun? Olatu berriko politikazale  
gazteen esanetan maiz arkituko diren hitzak dira. Zer da hori,  
ordea? Lehengo politikaren molde zaharretan ezin jokaturik, po-  
litika arazoetarako bide berrien bila dabilen gazteriaren abiadura  
dela esan daiteke, ezkertiar berrien egin-ezina nolabait defi-  
nitzerakoan.

1963'gnez geroztik Z. *Argia'n*, nazio-arteko pilitikaren albis-  
tari izan naizelako, lau urte hauetan politika gertaera ta politika-  
larietaz, presaka batean, askotan bi aldiz pentsatu gabe, beti  
hobetoago egiteko asmoetan, zenbait gauza esan beharrean arkitu  
naiz. Gainera, nere idatziak polemiko itxura artu zutenez gero,  
nere iritzi aldakorrak artikulua horietan nonahi arkitzen dira. Iritzi  
aldakorrak, baina bere aldaketan zain zuzendari bat dutenak,  
aldaketaren logika bat dutenak. Horregatik, ezkertiar berrien gain  
hitzegiterakoan, aldeko, partidista naizela aitortu behar. Ez bai  
litzake, beraz, jatorra izango hasieran aitorketa hau jarri gabe  
idazten hastea. Ezin dezaket beraz lantxo hau egin nere burua  
bere baitan sartu gabe. Ezin dezaket ezker berriaz kanpotik  
idatzi, barrutik baizik.

## MANIKEISMOA

Bizia den guztia bezala, ezker berriak hamaika kontradizio daramazki bere baitan. Alde batetik politikolari zaharren berritsuketazaletasunaren lekuan teknikotasuna ta seriedadea ezarri nahi baldin badute, bestetik, ezarritako ordenarik-eza-dun gizartea lehortarazi nahi dutenez gero, anarkiarako abiadura dute.

Carlos Santamaria lagunak, behin batean, *Z. Argia*-n idatzi zuen artikulua batean ni aitaturik, politikan manikeista izateko eskubiderik ez zegoela esan zuen. Politikan manikeistak direnak, alde batean erabat onak direnak eta bestean erabat gaiztoak jartzen dituzte. Honelako joera bat politikan gezurrezkoa dela ez du inork ukatzen, politikaren alorrean gutxienez. Artikulu hura azaldu zenez geroztik, zenbat aldiz ez dut entzun izandu manikeista naizela! Nik esandakoak eztabaidatzeko arrazoiak arkitzen ez zituenak, manikeista nintzela esatea nahikoa zuen, nere arrazoiak gehiago aztertzen ez saiatzeko, hori esatearekin, bere iritzian, bat batean kondenatuta arkitzen nintzelako.

Aldeko naizela esan dut. Aldeko naizenez gero, manikeismo ihes egiteko dialektika eten-gabe batean bizi naiz. Politika aldeko ez denik ez da arkitzen, aldeko ez dela dionak ere politika egiten bait du, politika egiteko ez da derrigorrezkoa partidu edo sindikatu batekoa izatea, nahikoa da gizartean bizitzea. Norbait bere gizarteko sistema kondenatu gabe bere baitan bizi bada, sistema horren eusle bihurtzen da. Ba daiteke kontrakoa dela hitzez esatea, baina bere kontrako hori bere bizitzan frogatzen ez duen bitartean sistema honen aldeko izaten jarraitzen du. Jeneralean, politika gizarte bateko moldeak aldatu nahi dituztenak egiten duela sinestarazi nahi dute. Gainontzekoek ez omen dute politikarik egiten. Sinestarazi-nahi honen arrazoiak garbi daude: lehen esandako sentidu horretan politika egitea moldeak aldatu nahi izatea bait

da, nahikoa izango da, politika zikinkeria bat dela-ta, berekoien egingizun bat dela zabaltzea, ezarritako moldeei irauin erazteko.

Politikan aldeko direnak, hau da, denak, bi eratara izan daitezke, kontzientziarekin edo kontzientziarik gabe. Politika *egiten* dutenak lehendabizikoak dira. Bigarrenak politika *sufritu* egiten dute, sufritzea, kasu honetan, politika egitea bait da. Politika sufritzen dutenen artean, ez jakinaz sufritzen dutenak alde batera utzita, gainontzekoek etsita daudelako egiten dute. Etsipen honek sustrai asko izan dezake; hemen interesatzen zaiguna ordea zera da, etsipen hori dela zenbaitek politika sufritzearen sustraia.

Politika egiten dutenek, esandako sentidu jeneral horretan, ezarrita dauden moldeekin, gutxienean, erabat, ados ez daudelako egiten dute hori. Zerbaiterekin ados ez badaude, zerbait hobea egin daitekeala uste dutelako izango da, noski. Ta Politika egiten dutenek, berak onaren aldetik daudela uste dutelako izango da, ta besteen moldeak txar eta desagokitzat hartzen dituztelako. Puntu honetara irixterakoan, beraz, manikeismo kutsuko abiadura batean sartzen gera. Politikan ekilea izateko derrigorrezkoa da zerbait manikeista izatea. Batek, berak defenditzen duena bestearena baino ohea dela usteko ez balu, zertarako egingo luke burruka?

Ba dakit beste gauza bat dela erabat eta benetan manikeista izatea, mundua bitan erdibitua dagoela uste izatea, batetik onak eta bestetik gaiztoak daudela uste izatea. Ta sentidu horretan politikolari, politikagile, politikazale edo politikologo batentzat manikeista izateko eskubiderik ez dago. Dudarik gabe. Baina ezin dezakegu uka politika egiten dutenak etenik gabeko egon-ezin dialektiko batean aurkitzen direla, une bakoitzean bakoitzarena bestearena baino hobea dela uste izatetik bakoitzarena dela *Ona* ta bestearena *Gaiztoa* uste izatera dagoen muga lertu ta apurtu ditekealako. Ta egin-ezin hau haunditzen ta zailgotzen doa moldeen eraberritzea radikalago ta sustraitiago planteatzen

den neurrian. Erreboluziogile batek lehendabizi gizartea desegin behar dela dio, gero berria jasotzeko. Ez ote da hori desegin beharrekoa dela *Gaiztoa* ta jasotzekoa *Ona* uste izateko tentaziorik gogorrena? Aldaketa txikiak egin nahi dituenak, ordea, gizarteak puntu batzuek besterik ez dituela konpondu behar uste du. Horregatik, ezin dezake uste izan gizarte hori txarra denik, gehiengan txar xamarra besterik ez dela usteko du.

Manikeismoaren akusazioa ezkertiar bati egitea izan daitekean gauzarik errezena da. Ezkertiarrek ere beinere ezin dezake ahaz, ordea, erabateko manikeismoan ez erortzeko etengabeko egon-ezin dialektiko batean bizi beharko duela. Egon-ezin dialektiko hau mila aurpegi diferenterekin azalduko zaio bere politikagintzan. Nahi denaren eta denaren artean dagoen dialektika da. Realismoaren eta utopiaren artean dagoena. Izan ere, ezin ukatuko dugu ezkertiar guziek ameslari bat izkutatzen duela bere baitan. Ameslari izateak, errealdadetik ihes egiteak ez ezik, errealdade berri bat ekarri nahi izatea adierazi nahi baldin badu ere.

Politika, futboleko partidu bat arbitroak ikusten duen bezala ikusi daitekeala uste duena engainamentu handi batean bizi da. Horregatik, ez dut ukatuko lantxo hau partidista bezala, hobeto esateko, aldeko bezala idazten dudala, ni alde batean nagoelako. batzuen eta zerbaiten aldeko naizelako, ta beste batzuen eta beste zerbaiten kontrako.

Hamaika eztabaida izan da politikalarri ta filosofilarren artean, ea moldeak aldatzea nahikoa den gizona egiteko ta ea politikaren eginkizuna moldeak aldatzea den edo baita ere gizona hobea egitea. Batzuek diotenez, behin moldeak premi bezala aldatu ta eraberrituaz gero, gizona berekasa ona litzake. Besteak, berriz, gizon bakoitza barrutik ondu bitartean ez dagoela ezer egiterik diote. Bi mutur hauen artean maila diferente asko dago. Ezkertierak sinismen gehiago izango du moldeetan eskuindarrak baino, eta honek gizon bakoitzaren konbersio barnekoian ezker-

tiarrak baino. Historiaren barruan honela gertatu da gutxienean. Behar bada, gizonari dagokionez, optimistagoa da ezkertiarra eskuindarra baino. Ezkertiarrek, gizona gaizto gizarteko moldeek bakarrik egiten dutela, uste izateko joera du. Beraz, gizona ona bihurtzeko molde horiek kentzea nahikoa dela uste izateko abiadura izango du. Eskuindarrak berriz, pesimistagoak dira. Gizona, gutxienean, gaixo xamarra dela diote. Hauentzat orduan, premi haundienetakoa, gizon bakoitza ona egitea dela uste izatera joko dute. Ez dut esaten bata edo bestea egiten dutenik, bata edo bestea egiteko joera dutela baizik.

Eztabaida hau aitatu besterik ez dugu egin, esaten ari ginanarekin lotuta zetorrelako ta adierazi gabe ezin genuelako utzi. Eztabaida bortiz hau beste baterako uzten dugu.

## **PREMI SORTARATZAILEAK HIL ARREN**

Ba da politikologian lege bat gure auzi honetarako oso inportantea dena. Lege honek dionez, partidu politikoak eta elkar-teak sortuarazi zituzten beharrak hil, baztertu edo ezereztu arren, ba dutela horiek bere baitan iraunkor den inertzia bat. Tradizioa duten partiduek ba dute bere baitan garairik txarrenetan eta estuenetan irauteko indarra. Ta hiltzea asko ta asko kostatzen zaie. Partidu ezkertiarrek burokrazia indartsu xamarra izaten dute. Interesen partiduek, eskuindarrek eta konserbadoreek, apenas behar duten organizaziorik, bere baitan biltzen direnak diruak elkartzen dituelako (faszista partiduak alde batera utzita, hauek zera berezi batzuek dituztelako), eta interes honen menpean elkartzen direnez apenas behar duten ezer gehiago partidu bat osatzeko: burokrazia bat, militanteak, dotriña bat etab. Ezkertiar partiduek, ordea, bere dirurik eza berdintzeko, ezerezteko, militanteak izaten dituzte, dotrina sendo bat eta baita ere, par-



tidua zerbait hazten hasitakoan, burokrazia, txikia bederik ere, izaten dute. Burokrazia partiduak bere organizazio ta administrazioarako dauzkan gizon apropos batzuek osatzen dute. Hauek ezkertiar elkarte ta partidu politiko guzietan aurkituko ditugu, anarkismoa alde batera uzten baldin badugu ere.

Beti gertatzen da partiduaren bizitasuna burokrazia honen eskuetan kontrolatuta gelditzea. Ta ba da "partiduko abertzale-tasuna" izeneko fenomeno bat. Partiduak, eta batez ere bere burokraziak, azkenean "partidua lehendabizi" pentsatzera iritxiko dira, ta partidua beste zerbait irixteko bidea dela ahazteko arriskuan jarriko dira. Garai berrietan partidu batek sentidurik ez badu, hil eta berri batzuei sortzea ematea komeniko balitz ere, hauek, burokraziakoak, izango lirake partiduaren abertzaletasunaren sua astinduko lutekenak.

Beraz, tradizioa duten partiduek bere biziko hatsa dute bizitzen segi ahal izateko garai desberdin eta astinduenetakoetan. Bere funtziotik eta eginkizunetik aterata bederik ere, bere buruaren iraunpenean sentidu bat aurkitzen dute eta, besterik ez bada ere, horregatik burruka egiten jarraitzen dute.

Europako zenbait ezkertiar partidu zahartzen doa, militante gazteak gero ta gutxiago bait dira, ta partidua osatzen dutenak gero ta zaharragoak. Partiduak eraberritu behar direla, gazteei sarrera eman behar zaiela ta leku egin behar zaiela, politikarieren topiko bat biurtu da, hitzetik hortzera darabilkiten esate bat.

Ba dugu hemen ezkertiar "berrientzat" hasiera bat. Izan ere, "berria" zerbait zaharragoren erlazioan izango da, noski. Ta lehengoek ere ezkertiarrek direla esaten jarraitzen dutenez gero, horiekin ados ez daudenek, eta zaharragoak izatean, hauek bere burua berritaz jo behar. Beraz "ezkertiar berriek" bere sortzetik "ezkertiar zaharren" kondenzazio bat daramate, diferentziatu nahiean sortzen da mintzamolde berri hau.

## EZKERTIAR-ESKUINDAR BINOMIOA

Aurrera jarraitu baino lehenago, "ezkertiar" hitza era berdinean prestijioz betea ta desprestijiatua dagoela esan behar dut.

Batetik, zenbaiten iritzian, politikagintzan "ezker-eskuindar" bikotea XIX gizaldiko moldeetan jaioa da ta gaur egunean sentidurik ez du. Beraz, politikan, bat eskuindar edo ezkertiar dela esatea superatu behar den gauza da. Hori, modatik pasatako mintzamoldeekin hitzegitea da. Ez dago eskuirik, ez ezkerrik, eta baldin badago ere berdin da, ez bait dira ezertan bereizitzen, azkenean, errealidadean, berdin jokatzen dutelako, asmo ta egite berdinak dituztelako.

Ba dira gertaerak eta jokabideak honela mintzatzeko eskubi-dea eman lezaketanak. Horrelako esanak darabilzkitenak nortzuk diren aztertzen badugu, ordea, beren xedeetarako komeni zaien eran darabilzkitela gertaera horiek, ikusiko dugu. Konserbadore kutsuko teknokratak dira honela mintzaten direnak. Hauentzat, gehiena balio duena erabat efektibua izatea da, ekonomian, legegian, edukazioan, behar bezala zuzendu ta gobernatzea. Bere egitearen xedea bezala hau proposatzerakoan, ordea, ez dute, lehendabiziko ekinaldi batean gutxienez, gizartearen moldeen problema planteatzen. Horregatik, hauen asmoa molde horiek ondo funtzionatzea denez gero, dira konserbadoreak, molde horiek kues-tioan ez jartzea ontzat hartuko balituzkete bezala delako. Funtzionamentu ona ta efektibua horien problematika izatean, ezkertiar eta eskuindarren arteko diferentziak ez zaizkie interesatzen eta politika den guziarentzat mesfidantza handia dute. Denbora ta indarra alperrik galtzea iruditzen zaie eta politikalarien solasak berritsuketak besterik ez. Hauengandik, bere kritika onartzerik ez badugu ere, ezin ditzakegu esan guziak baztertu ta teknokraten kontra esaten direnen topikoetan erori. Arrazoi zuen Gerogez

Vedel, Frantziako politikologorik onenetakoak "le technochate c'est le technicien vu par un poujadiste" zionean.

Hala ere, erabat serioak ez dira bere planteamentuak egite-rakoan. Efektibitatea derrigorrezkoa da, baina medio bat besterik ez da, ez xede bat. Politikariak askotan berritsuak eta personalidaderik gabekoak izan direla jakiteak ez du eskubiderik ematen estraina politika hil dela ta gero hil behar duela esateko. Gainera, legezko nahikunde honen azpian bidezko ez den hamaika interes eta petralkeria estaltzen da. Konserbadore kutsuko tekniko hauek dakarkiten baino bortitzagoa da, ezkerria defini ezin daitekean zerbait dela, dion argumentoa. Zer da ezkertiarra izatea? Moldeak aldatu nahi izatea? Orduan, sozialista estadu bateko moldeak aldatu nahi dituen ezkertiarra da. Molde hauek ezkerretik edo eskuindik aldatu daitezke, ordea. Ezkerretik, sozialismoa jatorragoa egin nahian; eskuindik, kapitalismoa berbiztu nahian. Besterik gabe, moldeak aldatu nahi izatea ez dela nahikoa, argi dago. Justiziaren alde egotea, aberatsen aurka ta behartsuen alde, kolonialismoaren aurka ta askatasunaren alde etab? Baina, izenez gutxienez, nork ez du bere burua definizio horretan sartuko? Eta honela mila saiaketa egin arren, beinere ez ginake iritxiko ezkerriaren definizio zehartz batera, inguratzerak bakarrik gehie-nean. Ez litzake, gainera, onegia izango ezkertiarren definizio astratu batekin lanean hastea. Herri ta giro bakoitzean "ezkertiar" izenpean zer entenditzen den aztertzen badugu eta horietatik zera jeneral batzuek ateratzen baldin baditugu, hobeto jokatuko dugu, eta jatorrago. Bestaldetik, nola ez ahaztu gaur egunean denek bere burua ezkertiarzat daukatela? Inork ez du ezagutu nahi eskuindarra dela. Denek ezkertiarrek direla diote, ezkertiar hutsak ez baldin badira ere erdi ezkerrekoak direla diote. Ezkertiarra izatea, sozialista izatea bezala, modan dagoen gauza da beraz. Ba dira horregatik orijinalak, individualistak izan nahian, ezkertiar izatea balio eskasean daukatenak.

Baina, zertarako jarraitu hitzen kontua besterik ez den ezta-baida honetan? J. M. Paupert idazleak benetako politika ta politika formalaren artean darabilkin distinzioa puntu honetan egokia iruditzen zait. Honela dio: "politika *formalaren* soroak marxisten "infraestruktura" delakoaren muga antzekoak ditu, hau da, ekonomia-aren *representazioko sistema* bezala. Agintearen moduak, sistimak, administrazioko erak, rejimenak eta legeak sartzen dira bere baitan. Baina, bestaldetik, benetako politikaren mamian sartzetakoan (Marx'ek "estruktura" txartelpean jartzen zuen lekuan, ekonomia errealdade bezala) gauza besterik da" (2).

Orain arteko solasetik ondorio hauek aita ditzagun: ezker-rra errealdade bat da; errealdade honek nahiko izen du politikagintzan politikolari gehienek bere burua ezkertiar izenarekin bataiatzeko; horrexegatik, ezkertiar izatea topikoan bihurtu delako, zenbaitentzat kasikan desprezio egitea delako. Ezkertiarren izatea definitzea oso zaila da. Errezena deskripzio bat egitea da. Justiziaren alde, behartsuaren alde, aberatzen kontra, berdintasunaren alde, kolonialismoaren kontra etab., etab. esan daiteke direla ezkerren zera batzuek. Horiek denak, ordea, bi aurpegi edo gehiago dituzte, zail bait da, hitzez gutxienean, deskripzio horretan bere burua aitatuta ikusten ez duenik aurkitzea. Horregatik, politika formaletik aterata, benetako politika baten alorrean joka dezagun gure azterketan. Hitzak alde batera utzita, egiteetara iritxi gaitezten.

## PROLETARGOIA

Frantziako Erreboluzioaren ondorean liberalek osatzen zuten ezkerria, baina 1848 az geroztik, liberalak politika eskubira-

(2) J. M. Paupert, "Pour une politique evangelique", Ed. Edouard Privat, Toulouse; españolez ber-idatzia ta Berzelona'n Nova Terra etxean argitaratua 1967'gn. Liburuaren 74'gn. orrian.

tzen joango dira, gaur egunean partidu eskuindarrenetako bat izatera irixteraino. Ordu ezkeroztik ezkertiarrek ezkertiar izango dira, proletari-utzarenganako errelazioan. Lehendabizi, sozialista utopikoak eta morxismoaren aurrekoak burgesi liberalarengandik langilengana urbiltzen joango dira ta, gero, Marx'ek sozialismoa historiaren eboluzioan dagoela, ta hori burgesia desegiterakoan langileek bakarrik egin lezaketeela esango du. Sozialismoa izango da, gainera, mundua ta gizartea benetan gizatiar egiteko modu bakarra. Ordu ezkeroztik, proletariutzaren egin-behar hau asmatu zen ezkeroztik, ezkertiarrek proletariutzari buruz definituko dira. Hasieran, proletarioen nazio-arteakoan, marxista ta anarkisten arteko eztabaidak eta dibisioak izango dira. Bi joera horiek, ordea, erreboluziogintza hartzen dute bere eginkizunik handiena bezala. Proletariutzaren barruan ezin esan ahal izango da, anarkistak edo marxistak, zeintzuk dauden ezkererago. Denborarekin, marxismoa aterako da proletariutzaren barruan garaile. Hala ere, anarkismoaren zera ta joera batzuek proletariutzaren baitan bizirik jarraituko dute.

Bana 1917'gn. Sobietikoen Batasuna sortzen denez gero, sozialista ta komunisten arteko dibisio latza ta garratza jaioko da. Reformazaleak batzuek, erreboluziogileak besteak. Nohizean behin, egite batzuetarako elkartuko dira batzuetan, esate baterako, 1936-gnko. elekzioak irabazteko. Proletariutzaren batasuna, sozialismoa jasotzeko derrigorrezkoa ta langileei burrukarako mistika bat ematen diena, deseginda bezala ibiliko da, iritxi beharreko xede batean bihurtuko da. Sozialismoak, sozial-demokrata partiduak osatuta, burgesiaren partiduekin Herrien gobernutan behin baino gehiagotan parte hartuko du. Reforma batzuek, eta langileentzat ontasun handiak ekarriko dituztenak, erdietsiko dituzte, baina luzarora proletariutza menperatzeko ta ixiltzeko medio bihurtuko dira. Beraz, denboraren poderioan, erdiratzen, eskubiratzen joango da. Erdiratzen, zahartzen eta ahultzen. Sozial-demokrata par-

tiduen sustraia ere, zenbait Herrietan (3), aldatzen joango da. Langile burrukalarienek ez dute haren menpean asko iraungo. 1945'gn. gudu ostean komunismoaren aldean erabat ahulduak aterako dira. Beste zenbait herrialdetan berriz, batez ere komunismoak indar handia hartu ez duen alderdietan, partidu handi bat izatera iritxiko da. Partidu handi ta serio bat. Seriotasuna burgesiak entenditzen duen moduan izanik. Herri horietan beste ezkertiar indarrak ez dagoelako, sozial-demokrata horiek osatzen dute Herri horietako ezkertiar indarra, nolabaitekoa gutxienean. Hala ere, partidu horietan izaten da, edo ezkertiar hegal bat, edo estudiantetek edo langile talde burrukalari batek osatutako sindikatu autonomo ta ezkertiar baten ziria.

Bestaldetik, gudu ostean, ezkertiar asmoekin, Europako zenbait Herrietan, kristau demokrazia piztu edo berpiztu zen. Laister ikusiko zen, ordea, Mounier pentsalari trebeak esan zuen bezala, "kristau demokrazia katolikoan usurako radikalismo bat besterik ez zela". Laister erdiratu ta eskubiratu zen partidu hau herrialde gehienetan. Haren baitan aurkitzen ziren benetako ezkertiar burrukalari gehienek beste bideen bila aldegin zuten.

## **ERTZEKOEN BILDUMA**

Lehen aitatu ditugun zera guzti horietatik gainera, komunismoa stalinismoaren menpean bizi izan delako, ezkertiarrentzat problema bereziak planteatu ditu. Alde batetik, troskysmoak zartada garratzak utzi zituen komunismoan. Bestetik, mundu guziaren neurrian, oso zaila da proletariutzaren burruka ta komunismoaren burruka zenbait kasutan diferentziatzea. Bere asmatze ta oker

---

(3) Sozial-demokrazi hontaz, hitzegiterakoan batez ere gure inguruko Herrietan pentsatuta egiten dut. Horiek bait dira zenbait puntutan gure problemekin zer-ikusi handiena dutenak.

jokatze guziekin komunismoaren burrukak langileen burrukak izan dira, ta aldrebes ere egia izan da neurri handi batean. Hortikan jaiotzen da beste puntu batean aztertuko dugun ezkertiar guziak komunismoari buruz definitzeko duen premia. Gaur egunean ere, ezkertiarra nor den jakiteko, kriteriorik onenetakoa komunismoarekin zer hartu-eman dituen jakitea da. Erabat antikomunista itxua baldin bada, zaila izango da hori benetako ezkertiarra izatea.

Sozial-demokrazia eskubiratu edo erdiratzerakoan partidua-  
ren ertzean gelditu direnak izan direla esan dugu. Sozialista ez-  
kertiarrek izango dira. Hauek, askotan, partidua-  
ren barrutik egingo dute lana, bere rebeldia adieraziaz, besteetan partidutik atera  
ta partidu txikiagoei emango die sortzea.

Politikara kristau demokraziaren bitartez esnatu zirenak,  
baina honen baitan sozialista ta ezkertiar partidu baterako girorik  
aurkitu ez zutenak, lan politikoa egiteko non eta zertan bildu  
aurkitu nahian ibiliko dira.

Komunistak izanik stalinismoaren garaietan gertatutakoetatik,  
edo Budapest'en 1956'gn. gertatutakoetatik partidutik ihes egin  
beharrean aurkitu direnak, lehengo preokupazio berdintsu xa-  
marrekin egongo dira bere lan politikorako, zeinekin eta zer orga-  
nizaziotan bildu jakiteko.

Izango dira, baita ere, hasiera batean, apolitikoak ziren sin-  
dikalistak, baina bere burrukak gogortzen joan diren neurrian po-  
litikaren alorrean sartzeko premia dagoela konturatutakoak. Hauek  
lehengo partiduetan ez dute ez lakurik eta ez girorik aurkituko.  
Hauek ere zerbait berriren bila ibiliko dira.

Baita ere, ba dira eginkizun konkretu batzuetatik bakarrik  
hasiko direnak burrukan (Viet-nam'eko gudua, beltzen eskubideak  
etab.), baina bere burruka sakontzen joango den neurrian politi-  
kara irixteko premia ikusten dutenak.

Guri horiekin batera lehengo partidu zaharretan, hauek erabat  
ahulduta ta burokratizatuta daudelako, politikarako bide berrien

bila dabiltzan gazte guziak jartzen baditugu, ezkertiar berriak zer familia ta giro politikoetatik ateratakoak diren argi dago. Horregatik, askotan, eta azaleko analisisia bat egiterakoan, ezkertiar berriek antolatuko dituzten organizazioak ertzeko ta baztertutako jendearenak direla dirudite. Ta puntu hau oso inportantea da ezkertiar hauen giroa behar bezala entenditzeko.

\* \* \*

XIX gizaldian hasten dira ezkertiar jendeak politikagintzan izaten, zentzu modernu batean entenditzen dugunez. Liberalak lehendabizi, gure beltzak, eta gero sozialistak. Hauek, jaioez gero, batasunaren bila ibili izan ohi dira beti. Erdietsi bezain laister hausteko, Apurtuta gelditu ta bereala batasunaren alde lanean hasteko. Lehen nazio-artekoan Marx'en lagunak eta Bakhounine'nak ziren sozialismoaren batasuna zaila egin zutenak. Gero, sozialista ta komunisten arteko etsaigoa sartu zen. Alemania'n, sozialdemokratak izan ziren espartakisten —komunisten— erreboluzioa zapaltzen lagundu zutenak. Hala ere, herriko frentek diralata, elkartuko dira berriro sozialista guztiak faszismoarekin burruka egiteko. Gerla ostean, gerla hotza jaiotakoan, sozialdemokratak izan ziren, eta dira oraindik zenbait alderditan, komunisten etsai amorratuena. Gerla hotsaren bukaerak etsaigo honen laztasunaren bukaera ekarri behar zuela zirudien. Frantzian bakarrik dirudi hasia dela laztasun honen leguntzea.

Gerla hotzaren bukaeraz, Stalin'en garaiaren bukaerak, munduko Herri handiena den Txina'ren sozialistatzeak, Fidel Castro'ren erreboluzioak, sozialismoari, benetakoari, soineko berriak ekarri dizkio eta, askotan, soinekoarekin batera, gorputz berria.

Hainbeste era, jokabide ta joera diferenteekin sozialismoaren batasuna gero ta heldugaitzagoa ageri da. Egia esan, aurrena,



batasuna medio dela, ta ez xede, esan behar litzake. Sozialismoaren, langileen, menperatuen, langile klasearen batasunak, zertarako den galdetzen bada bakarrik du esan-nahi bat delako batasun honek. Sozialismoaren historiari begirada labur bat ematea nahikoa da batasunaren desirkundea bere baitan zenbaiteraino den itsasia ikusteko. Izan ere, beste batean esaten nuenez, langile ta menperatuen batasuna ez da guztia sozialismoa jasotzeko; guztia ez bada ere, ordea, derrigorrezkoa da. Kondizio hori gabe ez dute funtsik ere balio gainontzeko ahaleginak Herri bat sozialistatzerakoan.

Ezkerra, politikan, sozialismotik pasatzen da. Sozialismoa, ordea, eskuin-ezker muturrak dituen soroa da. Soro hortan, bertakoa denez, ezker berria zein lekutan aurkitzen den erabaki behar da. Hortarako, lehendabizi, sozialismoa nazio-artean zertan dagoen aztertuko da. Hori egiteko premiazko delako, nazio-arteko politika ta sozialismoaren egoera azalduko dira.

Mintzamoldearen aldetik hitzen esan-nahia zerbait zehazteko, sozialismoaz mintzaten naizenean hitz honen esan-nahiean sozialdemokrazia ez dutela sartzen aitor behar dut. Sozialismoa esaterakoan sozialdemokrazia aitatu nahi dutenean, apropos jakin eraziko dut.

## **SISTIMATIK KANPORA**

Berez mundu guztian gerta daitekeana da ezkertiar berrien ernatzea ta indartzea. Mendebaleko Herri aurreratuetan bakarrik du, ordea, gertaera honek politikagintzarako izaera sendo bat, esan-nahi berezi bat. Hirugarren munduko Herrietan, erreboluzioa, gauza zaila bada ere, posible bezala ikusten da, ta ez da bide egokiagorik ikusten kapital menderakorraren, inperialismoaren, gosearen eta justizirik ezaren kateak desegiteko bide azkarragorik.

Mendebaleko Herri aurreratu ta industriatuetan besterik da, ordea. Hauetan, soziologilariak diotenez, oso integratua dagoen gizartean aurkitzen gera. Integratuak, hau da, sistiman erabat sartuak.

Sistema kapitalismo berria da. Mendebaleko Europa'n eta Ipar Ameriketa'n kapitalismo hori da jaun eta jabe. Ta langileek gizarte honen barruan egiten dute burruka. Sistimarik ez dute ukatzen. Ba daiteke, hitzez sistema hori kondentatzea, politikagintzan ez ordea. Bere estratejia, bere jokabidea sistimaren barruan ahalik eta gehiena bereganatzeko egina dago, bainan inola ere ez sistema hori deseginaz berria jasotzeko. Ta hori da erreboluziogintza: gizarte sistema bat desegin nahi izatea bere ordez berri bat jasotzeko. Gizarte bateko sistema zerari deitzen zaio: gizartea osatzen duten gizonen harremanak antolatzeke moduei. Era guztietako harremanak noski, bainan batez ere gizartearekikoak: ekonomia, agintea, legeak, morala etab.

Ezkertiar berriak sistimaren etsai amorratuak dira. Ezkertiar berriarentzat hori da lehendabiziko kondizioa bere izatearentzat: sistimatik at izatea. Horregatik, hauek ez dira behinere izango sistimaren ezkerre edo muturreko ezkerre, beti sistimaren ertzean egongo dira, kanpoan izango.

Batzuek, ordea, sistimatik kanpora atera ta hortan geldituko dira, kondentatzen dutenaren ordez beste zerbait jasotzeko asmorik gabe. Hauek ukatze hutsean, ezean daude. "Beatnik" delakoak dira esaten ari naizen adibiderik onenetakoak. Sistimaren aurka daudelako ukatzen dute hau, ta hori, besterik ez bada ere, zerbait egitea ba da. Hala ere, sistema ukatzeaz gainera, burruka egiten ez dutelako ez dira kaltegarriak sistimarentzat. Jakina, hau ezin daiteke absolutuan esan, bainan erlatibutasunaren muga zabaletan sar daiteke.

Beatnik hauek ba dute ezkertiar berriekin, integratu nahi eza hori, sistema kondentatu nahi hori. Ezkertiar berriek, ordea, politi-

kagintzan sartzen dira ta beren eza egitazkoa da, ezezkoa beste gizarte baten asmoari ematen zaion baieitzkoaren beste ageriko aurpegia delako.

Itxaropenaren aldekoak dira ezkertiar berriak. Ez dutelako etsi. Oraindikan, gizarte berria ta justizia posible direla uste dutelako. Besteak, ordea, ezarrita dagoen sistema gizonarentzat kaltegarria ta gizatasunik gabekoa dela uste baldin badute ere, ba dirudi beste batera iristeko itxaropena galdu dutela ta ihes egin nahiean dabiltzala. Eskapuan. Ezkertiar berriak, berriz, zerbait berria proposatu nahiean dabiltz. Oraindik ez dute ezer asko konkreturik eman, horregatik da hain zaila hauetaz mintzatzea. Hauen asmoen eta jokabideen neurria nazio-arteko politikaren eta sozialismoaren egoerak emango digu.

## **NAZIO-ARTEKO POLITIKA TA SOZIALISMOAREN EGOERA**

Aurreko artikuluan esan nuen bezala, ezker berria Herri bakoitzaren giroan ikusten da, bestela ez dago definitzerik politikologiaren aldetik errealidade hau. Hala ere, sozialismoak jaioturik handienetako bezala azaltzen da. Ezin uka dezaket batasun hori gaur egunean zatituta, erdibituta ta zaurituta aurkitzen denik, baina hori sozialismoaren izaeraren kontra doa. Behinere sun hori gaur egunean zatituta, erbidituta ta zaurituta aurkitzen denak, banna hori sozialismoaren izaeraren kontra doa. Behinere baino argiago ikusten da gaur egunean, gizonak gizarte gizontiar bat jaso nahi izatez gero, munduaren etorkizuna sozialismoarena dela, gehienek diotenez, baina sozialismoaren batasuna ta nazio-artekotasuna ere behinere baino ilunago ta nahastuagoak azaltzen dira.

Sobietikoen Batasuna, Errusia'n 1917'gn. urrilean egindako

erreboluzioaren ondorenean izaten hasi zenez gero, nazio-arteke sozialismoarentzat egin-ezin berriak eta garratzak sortu ziren. Lehenago ere, Europa'ko gerla nagusiaren bezperetan, 1914'gn., azaldu zen bere gordintasun guztian nazio-artekotasunarentzat lehendabiziko azterketa garratza. Orduko sozialisten buruzagiek gerla hori kapitalisten gerla zela zioten, eta horregatik gerla hortan langile guztiak galdu besterik ez zutela. Jakina denez, Marx eta Engels'en 1848'gn. egindako "Komunisten Agiriak" zabaldu zituen hain ezagunak diren hitz hauek: "Mundu guztiko proletarioak batu zaitzte". Batasunaren bere indarra eta ugartasunean bere boterea gerlan sartzeko asmoetan zebiltzan estadu guztietan langileak huelga jenerala eginez gero ta ejerzituaren deia ukatuaz gero, estadu horietako buruzagi kapitalistek gerla egiteko modurik gabe geldituko zirela uste zuten. Bainan gauzak ez ziren honela gertatuko. Ta, hortarako, arrazoi asko izan zen. Horien artean, azkeneko momentuan naziotasunaren indarra nazio-artekotasunarena baino handiagoa izan zela. Frantzesak alemanen mesfidantza zutela, etab.

Orduan, ordea, ez zen oraindik munduan estadu sozialistarik. 1917'gna. ezkeroztik izango da bat: Sobietikoen Batasuna. Sozialismoa ez da izango geroztik asmo bat bakarrik, nonbait egiten hasitako zerbait baizik. Ba da sozialismoaren adibide konkretu bat: sobietikoa. 1945'gn. gerla ondorenean adibide ta modelu horiek gehiago izango dira: Errumania, Bulgaria, Polonia, etab. Geroxoago, Txina, Ipar Vietnam, Ipar Korea, etab. Azkenik, Cuba.

Txina'rekin sortutako eztabaida ta arazoen aurretik, errealdade honek, Sobietikoen Batasunaren sozialismoa jasotzeak, kondizionatuko du mundua zer sozialismoaren hedatzea ta higitze guztia. Lenin hil bezain laister asarretuko dira Stalin eta Trotsky. Lehendabizikoak, estraina Sobietikoen Batasunean sendotu behar dela erreboluzioa esango du, ta, gero, erreboluzio hori sendotu-

takoan, beste estadietara esportatu (nolabait esateagatik). Trotsky, berriz, "etengabeko erreboluzioaren" defenditzaile amorratua zen. Honek ez zuen uste *lehendabizi* nonbaiten erreboluzioa sendotu behar zenik *gero* beste alderdietan pizteko. Biak batera egitea posible zela uste zuen eta, aukera egiterakoan, nazio-arte-kotasuna aukeratzeko prest zegoen. Stalin gelditu zen Sobietikoen Batasunaren agintari ta nazio-arte-komunismoaren buruzagi. Trotsky'k ere eratu zuen nazio-arte-k bat bere usteak defenditu ta zabalteko; ez zuen, ordea, indar askorik hartu ta ertzeko errealidade bat bihurtu zen sozialismoaren barruan.

Ez dago orain Stalin'en ustea, ta egitea, aztertzerik, premia-koa zen edo ez erabakitzerik. Uka ezin daitekeana da, ordea, sustraiean, muinean, arrazoi zuelaren hipotesisean ere ordu ezkeroztik Errusia'ren, edo Sobietikoen Batasunaren, interesak nazio-arte-k sozialismoaren gaindik izan direla beti. Ta Stalin hil arren eta, ofizialki gutxienean, bere garaiak kondenatuak izan arren, gaur egunean ere beste horrenbeste gertatzen ote den edo inpresioa dago. Ba dirudi munduko sozialismo guztia Sobietikoen Batasunaren intereseetara menperatuta dagoela. Gertaera ta krisis berri bakoitzak sospetxa hau indartsuagoa bihurtzen du. Ez noa orain sobietikoak beste era batera jokatu lezaketen edo ez aztertzerik, frogatua dagoen bezala, zenbait sozialisten iritziz sendoa agertzera baizik. Ta, hain da nagusia zabaldua dagoen iritzian, ezkertiar berrien giroa behar bezala aditu ahal izateko izendatu gabe ezin daitekealako utz, aitatu dut uste hau.

Ba da marxismoan beste bi muturren arteko dialektika bat: alabeharra ta nahikortasuna, determinismoa ta boluntarismoa. Sozialismoak zientifikoa behar du izan. Naturalezaren legeak, ekonomiarenak, gizartearenak, historiarenak eta politikarenak eza-guturik bakarrik jokatu lezake. Hortikan determinismoan erortzeko arriskua azaltzen da, naturaleza makina bat balitz bezala jokatze-ko arriskua. Orduan, erreboluzioa hasteko, lehendabizi "kon-

dizio ojetibuak” gertatzea eskatzen da, ta, jakina, hauek oso osoan ez dira gertatzen. Horregatik, joera honek frenuaren pape-  
ra egiten du, gauzak bere gisara gertatzen direla uste izateko  
joera duelako. Batez ere, erabat burokratizatutako komunista par-  
tiduetan gertatzen da. Joera hau jarraitu izan balitz, erreboluzio  
gehienak ez ziren errealidade biziak bihurtu izango. Jakina da  
Cuba’ko partidu komunistak, ortodoxoak, Batista’ren garaietan  
Fidel Castro abenturista bezala hartu zuela, ta, horregatik konde-  
natu zutela, erreboluziorako kondizioak betetzen ez zirelako, ti-  
roka hasi zelako.

Besteak, berriz, nahi izateari nagusitasun handiagoa ematen  
diote alabeharrari baino. Hauek erreboluziogileak eta besteak  
erreboluziolariak direla esan daiteke. Hauek sinpati gehiago jaso-  
tzen dute besteak baino. Hauen arriskua kondizionamentua ahaz-  
tea ta baztertzea da.

Partidu komunista ortodoxoak —sobietikozaleak— alabeha-  
rraren menpeago daude nahi izatearenean baino. Hauen aldrebe-  
sean, ezkertiar berriak nahi izatearen zalegoak bezala azaltzen  
dira. Nahi izatearen eta eten-gabeko erreboluzioaren zalegoak.  
Hau esaterakoan, ez dut esan nahi errealidadearen beste aurpegia  
ikusten ez dutenik eta hortaz konturatzen ez direnik, hala ere,  
bigarren aurpegi hontarako dutela joera adierazi besterik ez dut  
egin nahi.

## **ERREBOLUZIOA POSIBLE AL DA?**

Hau mendebaleko Herri aurreratuetan sozialista jatorrak  
egiten duten galdera da.

Erreboluzioak sistimaren eta ezarritako moldeen sustraiti-  
kan egindako aldaketa gogorra ta erabatekoa esan nahi du. Mi-  
xeria agerian dagoen alderdietan, justiziaren premia ta errebolatu

beharra bereala jaio daiteke. Argi ikusten da, hirugarren munduko herdi azitako Herrietan erreboluzioa eta sozialismoa derrigorrezkoak direla, ez bai da beste biderik azaltzen herrialde horietako arazoak zuzendu eta konpontzeko.

Gure gizarteetan aldrebes da. Menperatutakoei, langileei, ez zaie azaltzen, besterik gabe ta bereala, bere prolemak konpontzeko ta bere gizatasuna osatzeko sozialismoa biderik egokiena bezala. Sozialdemokraziakoak izan dira langilea, gizarte berria jaso dezakean bakarra, neokapitalista gizartearekin bat egin dutena. Errenten banaketa, partizipazioko sindikalismoa etab. izan dira jokabide honen izenak. Konsumoaren gizartean omen gera.

Sozialismoa erdi hazitako Herriak bere atzerapenetik ateratzeko modurik egokiena dela, gehienak dioten gauza da. Izan ere, sozialismoa ekonomiaren aldetik atzeratuta zeuden Herri batzuetan bakarrik hasi da jasotzen. Gainera, Stalin'en garaiak ezkeroztik, sozialismoa egiteko moduaren adibide bezala Sobietikoen Batasuna jartzen zuten komunistek.

Hirugarren munduan, mixeria hain handia denez, sozialismoa, burua erne duen batentzat, derrigorrezkoa dirudi. Hazitako ta erabat industrietako Herrietan, berriz, derrigorrezkoa baino gehiago, gizatasunaren aldetik egin litekean aukera bakarra bezala ageri da. Behar bada, mendebaleko gizona salbatzeko posibilitate bakarra sozialismoa dela, ta hau izateratzeko benetako erreboluzio bat nahi ta nahiezkoa dela, diote ezkertiar berriek. Erreboluzioa, hots, lehendabizikoz sistima ta moldeak kondentatzea, hauen ertzean, haueetatik kanpoan gelditzea, haiek deseginaz beste berri batzuek osatzeko.

Baina zer sozialismo ta zer erreboluzio?

## BERRITSUKETA

1917'gn. gertatutako erreboluzioaren ondorenean sozialisten dibisioa jaiotakoa, sozialdemokratek erreformagintzaren bidea hartu zuten eta komunistek erreboluziogintzarena.

Orduz geroatik, komunista partiduak izan dira bere programa erreboluzioarena bezala agertu dutenak. Mendebaleko Herri industriatu ta aurreratuetan demokraziaren era parlamentuarena ta partiduekikoena da. Elezioak izaten dira, diputaduak etab. Fasismoaren kontra burrukan zebiltzanean eta 1945'gn. ondorenean erreboluziorako garairik onenak izan ziren. Garai horiek kenduta, ustekabean ere, eletoralismoan erortzeko arrisku bat dago. Politikaren bizitza honelako Herrietan elezioen menpean dago. Gehiena inporta dena zera da: ea botu gehiago irabazten diren, ea alkatea edo diputadua gurea izango den-edo. Horrelako preokupazioak partidu baten bizitza ta arnasa erabat menderatzen badute, eletoralismoan erori dela esan ohi da. Ta zenbait partidu komunista indartsuei hori gertatu zaie. Hori edo antzeko zerbait.

Eletoralismoa indartsu bada partidu batean, honek, koiunturaren politika egiteko joera izango du. Koiunturaren politika, hau da, epe motzeko politika. Ta orduan diborzio bat eguneratuko da esaten eta egiten denaren artean. Hitzez erreboluziogilea, egitez erreformazalea. Azken xedea bezala erreboluzioa egongo da, baina botuak irabaztea derrigorrezkoa denez gero, gizon normalak eta patxarosuak bezala azaltzeko gogoia izango da.

Hala ere, horrelako joerak, asmoak eta, askotan, desirkunde ilunak, indartsuak baldin badira ere, ez dut uste esan daitekeanik erreboluziogintza utzi dutenik komunista partiduak. Ezta gutxiago ere. Baina arriskua ezin daiteke uka eta errealdade honek hala moduzko giro desegoki bat sortuarazten du. Horregatik nion



berritsuketa, oso zaila delako berritsuketazko erreboluziogintza batetik ihes egitea.

Ta hortarako beste zerbaít aitatu behar da. Gaur egunean era batera edo bestera sozialista diren estaduak Herri atzeratuetan finkatuak eta haziak dira. Ez dago, ordea, adibiderik, ejenplurik, gizarte aurreratu ta industriatu bat sozialista bihurtutakorik. Sozialismoa aurreratutako Herri hauetan jasotzeko asmoak eta burrukak planteatzerakoan, atzeratutako Herri horietan finkatutako sozialismoa jartzen zen bide ta xede bezala. Ta hori, desegokitasun handi bat da, argi denez. Gehiago, gaur, Herri bakoitzak sozialismoa jasotzeko bere bide egokia bilatu behar duela esaten denean.

Zoritxarrez, ordea, apenas hasi diren sozialista pentsalariek aurreratutako gizarteetan sozialismoa nolakoa izan daitekean pentsatzen.

Ezkertiar berriek erreboluzioa posible dela diote, ta derrigorrezkoa gizarte gizontiar batentzat. Elezioak eta parlamentarismoa erlatibuak direla sinesten du ta medio bezala besterik ez direla hartu behar hartzezkerotan. Gizarte hauetako sozialismo berezi batean pentsatu behar dela.

## **NOLABAITEKO HARREMANAK**

Ta komunistekin, zer? Ez bai dago ukatzerik, eta ezkertiar berriak ez dute egiten, onerako edo txarrerako, langile klasearen eta komunismoaren burruka eta historia, neurri handi batean beti ez bada ere, bat eta berdintsu xamarra izan direla. Gaurkoz, Europa'ko zenbait Herrietan, partidu komunistak direla erreboluzioa egiteko ahalmenuak daudenak ezin daiteke ahaz. Baina, alde batetik konturatzen dira derrigorrezkoa dela komunistekin lan egitea, bestetik, ordea, hauek beste modu batekoak izatea

nahi litzake. Ta honengatik postura zail batean aurkitzen dira ezkertiar berriak. Komunistekin lan egin nahieran, hauek erabili beharrean aurkitzen dira, baina hauek aldatu nahieran, hauei lezioak ematen baleude bezala.

Bestetik, eta, batez ere, gainontzeko politikariak komunismoa gerla hotzaren garaian eta ondorenean bakardadean itxita zeukatenean, gutxi, ta bere iritzirako xelebre xamarrak ziren ezkertiar berri horiekin kontatu behar zuten bakarrik ez zeudela agertzeko. Baina gehienetan, ahal bezain laister, sozialdemokrata partidu handiekin harremanetan sartu nahiago zuten. Ezkertiar berriak, berriz, zailtasun eta eragozpen handiagoa dute sozialdemokratekin hitzegiteko ta elkartzeko komunistekin baino.

Hala ere, ezkertiar berriak bere lana egin dute. Pentsatzen saiatu dira ta enseiu horren ondorenak azaltzen hasi dira. Era guztietara, dudarik ez dago, komunista eta ezkertiarren arteko harremanak nolabaitekoak direla.

Komunismoa irekitzen doa ta txinoen esanak, castrismoaren errealidadeak eta burokraziaren gehiegikeriak egonezin bat sortuarazten dute komunismoaren baitan. Ez dira, bada, ezkertiar berrien asmoak hain xelebreak.

## **KLUB POLITIKOAK ETA EZKERTIAR BERRIAK**

Frantzia'n, De Gaulle agintera igotzearekin, politikarientzat problema espezialak sortu ziren. Zenbait gazte, orduan, batez ere unibersitario ta tenikoek, partiduetatik kanpora hasi ziren lanean, politika pentsamentuaren alorrean gutxienez. Hortarako klub izeneko batzar batzuek eratu zituen: klub politikoak. Hauek lan egin dutenik ez dago ukatzerik, baina bi aurpegikoak dira klub politikoak. Batetik, politikaren berritze ta gaurkoratzeaz arduratzen dira, bestetik ordea, tenika usai gehiegi dute, ekletizis-

moa ere bai, ta politikan karrera egiteko, ta azkar, gogo gehiegi.

Horregatik, partiduetan sartzen ez diren bitartean edo osatzen ez duten bitartean, ezin daitezke, besterik gabe, definitu.

Ta ari dira zerbait berria sortzen. Nederland'en, esate baterako, azkeneko elezioetan "Demokraten 66" izeneko partidu berriak botu asko bereganatu zituen, baina bere baitan sozialismoaren eta berritasunaren haziak daramazkin ezker, bien arteko batasun benetako bat egiten ez duen bitartean bi posibilidade eramango ditu izkutatuta ta bi partidu diferenteen haziak, hauek hasieran, partidu berdinareen egal diferenteak bezala azaltzen baldin badira ere.

## **EZKERTIARREN BATASUNA TA PARTIDU BERRIA**

Askotan, ezkertiar berrien lanak ezker guztiaren batasuna egitera doaz. Zenbaitetan, ordea, sozialista komunisten arteko batasuna egiteko, partidu hauen barrutik hortarako lan egitea ezinezkoa dutelako, elkartzera behartuak aurkitzen dira, hitz gutxitan esateko, partidu berri bat sortzera.

Ba da hontan hala moduzko kontradizio bat: lehengo partiduak desagiteko edo eraberritzeko berri bat sortu beharrean aurkitzea. Partidu hauek, ordea, erabat espezialak dira. Ez dira partidu handi batzuek, apenas duten historiarik, ez dira elezioaz gehiegi arduratzen eta, batez ere politikagintzan, garbitasun handi baten kezka dute; ba dute batez ere pentsalarien partidua dela adierazten duen kutsu bat. Ez dute uste partidu hauek proletariutzaren banguardia izan behar dutenik, langileen morrontzan egin behar dutela baizik. Horregatik, beste ezertan baino gehiago "sustraiko batasun" bat sortzen saiatzen dira. Partiduen arteko batasuna baino gehiago bilatuko dute langileen arteko, partiduen agintetik kanpora.

Horiek kontuan hartu gabe egiten diren kritikak ez dute ezer asko balio. Pentsalarien partidua dela esan ohi da desprezioarekin, ta hori ahalezinaren seinalea balitz bezala. Hontan ikusten da, ordea, partidu baten eta klub politikoaren artean dagoen diferentzia. Lehendabizikoak pentsatzea ta egitea bat egiten dute, horregatik dira partidu; bigarrengoak, berriz, batez ere asmatzera dedikatzen dira.

Edozein partidu ta politikagileren egiteak xede bezala agintera iristea du. Ta horrela da. Baina ezkertiar berriek diotena hau da, zertarako? Zer egiteko?

Ba dakit honelako gizonak ez diruditela agintera iristeko medioak jartzen dituztenik. Benetako ezkertiar batek gobernua bereganatzeko okasioak oso gutxi izaten dira, gutxienean, hori, burua ukatu gabe egin nahi baldin badu. Okasio horietarako erne egon behar dela diote, izan ere izan dira historian zenbait erreboluzio gertatu ez direnak erreboluziogileak hortarako prest egon ez direlako.

# Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu

*“Kristauak bere baitan sinisgabe bat  
daramaki fededunarekin  
eten-gabeko elkar-hizketan” (1)*

Fededunak behar duen amairik gabeko bere fedearen eguneratzean, berpentsatzean, berbizitzean ezin lezake ahaztu bere inguruko kondizionamentua. Fedea ez da zerbait astratua, ez da ihesbiderako deia.

Euskal Herria'ren problemak bere gordintasun guztian, XIX gizaldian, planteatzen hasi zirenez gerotik Jainkoaren izenak eta uste batek gure arteko pentsatzearen bizkar-egurra osatu dutelako, gure fedearen berpentsatze ta eguneratzean korapilorik gogorrenetakoa osatzen du. Bestaldetik, sarritan ikusten eta entzuten dugunez, euskal gazteria fedea galtzen ari omen da. Nik, hori,

pozgarria dela esan daitekeela uste dut. Gizatasunaren aldetik, eta kristautasunaren aldetik ere bai, komeni da fedea batzuek galtzea. Horregatik euskaltzaleok izan edo asmatu dugun Jainkoa hil behar dugula uste dut. Gizatasunarentzat, gizonaren liberazioarentzat, zaleturik burrukan gabiltzan kristauontzat Jainko hori idolu bat delako. Gizonaren liberazioarentzat kate eta eragozpen bat.

Fedea eguneratzea eten-gabeko burruka da. Fedea, une ba-koitzean erne izan behar dugun horietakoa da. “Gure aurkitu nahiak etengabekoa izan behar du. Gure fedea ez digu baimenik eta oporrik ematen desipuitze ta ber-ipuitzearen arteko dialektika baztertzeke. Dialektika honek duen egonezinetik ihes egin nahi guztiak —edo eskubira, ipuiean finkatuaz, edo ezkerrean, mitua behin batekoz deseginaz— historiaren mugan bertan “esjaton” batera zuzentzen den fedea ta esperantza bidelari eta ebolutibuaren kontra egiten den burgesatzearen pekatu astun bat da” (2). Izan ere, “desipuitzearen lanean gabiltzanok ipuiak erabiltzen ditugu eta ez dago hortan kontradiziorik. Mitu horiek derrigorrezkoak dira, ezaguera erabatekoa ez izanik irudi batzuk derrigorrezkoak ditugulako gure ezaguera ta asmoetan” (3).

*Ondorenean datozten lerroak Egiaren bila egiten saiatu naizen urbiltze bat besterik ez dira. Osatu gabea, beraz, geroago zuzendu beharrekoa. Ausardiarekin egina, dudarik gabe. Ezin, ordea, ixilik gelditu. Nere pentsamentuak, eskasak noski, argitaratu —eta horregatik oker jokatzea arriskatu— edo nere baitan gorde hobetoago sendotu bitartean, da azaltzen zaiten aukera. Dudarik gabe, arrisku guztiekin, lehendabizikoa aukeratzen dut.*

## ROSSEAU, ERROMANTIKOAK ETA JAINKOA

Euskaltzaleak ez dira izandu esan ohi izan den bezain baserri-

tar eta aldeanoak. Xinplekeri handiena litzake hori defenditzea. Julio Caro Baroja'k dion bezala, ordea, XIX, euskal mendean erreboluzio gisako zerbait gertatu zen Euskal Herria'n. "Emeretzigarren gizaldian erreboluzio urbanu gisako zerbait gertatzen da, bizimodua erabat aldatuko duena, gure egunetan neurri izugarriak hartzen doan erreboluzioa" (4). Izan ere, "bi edo hiru hiri handi ez izateak, tenikaren aldetik egiten ziren lanak legundu ta gutxitu zituen. Pentsamentuaren aldetik Herriaren desarrolloa eskas xamarra izan zen beti. Euskalduna, maila handienetara iritxi zen garaietan ere XVIII mendean, batez ere pratikoa izan zen, utilitarioa, teori saiaketarako ta inbestigazioetarako, joera gutxikoa, baserritar zalduna, kasurik onenean kanpoan egiten zenaren eza-gutzaila. Eta honek bere ondorenak izan zituen produzitzen zuen industrian, atzeratu xamarra beti, nahiz eta Espaiña'ren kontestuan (edo beste edozeinetan) bere bizikoa eta estrainua" (5).

Emeretzigarren mendean industriatzen da Euskal Herria, sentidu modernu batean, Hirietako zibilizazioa ere orduan sortzen zaigu. Atzerritar langileen etorrera ere orduan hasitakoa da. Furoak galtzea, Espaiña'ren batasunean sartzea, karlisten gerrateak. Beltzak, errepublikazaleak, sozialistak. Karlistak, integristak, abertzaleak.

Eta denetan nahastua Jainkoa hitza, Jainkoaren uste bat. Jainko honi deitzen diot euskaltzaleen Jainkoa. Hori da hiltzen doana eta hil behar duguna.

Emeretzigarren mendeaz geroztik Euskal Herri'ko guztiak ez dira euskalduntzat hartu izan, euskaldun ontzat gutxienez. Euskaldun izaera baserritasunean bildua zela zirudien karlisten lehendabiziko gerratean. Indartzen zihoazen euskal hiriak, Bilbao eta Donostia, eta euskal burgesak beltzak ziren. Hauek librekanbistak ziren. Izan ere garai haietan politikan liberalak zirenak ekonomian librekanbistak ziren. Bilbotar eta donostiar euskaldun burgesak ere librekanbistak ziren, librekanbioa bere komertzioaren

eraginez Espaiña'ren barruan ikusten bazuten ere.

Fueristak, politikan eta ekonomian, autorkizaleak zirela esan genezake. Aislazionistak.

Mende hortan burgesia, Donostia eta Bilbo'ko komerziogile ta kapitaldun liberalak, goraka zihoan indarra osatzen zuten. Horiek ziren aurrelariak. Besteak, nekazaritzan finkatuak, lurra-  
ren jabeak edo lurra lantzen zutenak, desagiten zihoan nekazari zibilizazioaren eusleak. Bigarrenengoak lehendabizikoak ez zirela edo euskaldun gaiztoak zirela zioten. Euskal Herria'ri traizioa egiten ziotela atzerriko ideia ta gozoeen murrontzan. Gainera Jainkoaren etsaiak omen ziren libertadearen ideia txoro ta arriskor-  
rak ekarri zituztenak. Euskaldun izatea fededun izatea omen zen. Izan ere fueroak, Ebro'ko aduanak, liberalismoak etab. zirela ta *Jainkoa euskal arazoetan nahastua azaltzea ez da batere harritzeko*: *Gutxiago eztabaida horietan batzuek bere bandera ta lema egitea. Jainko hori, ez da, ordea, Biblia'ko Jainkoa izango, Jainko espezial bat baizik.*

Emeretzigarren mendeko situazioa ta ideiak bat batean sortutakoak ez dira. "Argien mendean" Madrille'ko erregeen absolutismoa ta zentralismoa indarzen zihoan neurrian hasi zen euskaldunetan bere kondizioaren berezitasunaz kontzientziaraztea. Esnatze honek eboluzio luze bat izango du. Aspaldidanik errealdade bat izango da, izkutua bederik ere. Emezortzigarren mendeaz geroztik hasiko da, ordea, sendotzen. Eta defensibaren seilua eramango du bere baitan. Komerzioaren eta ekonomiaren hazitzeak horien manejatzaileak diren euskal komerziogile burgesak Euskal Herria'z gaindik zabaltzera eta begiratzera bultzatuko ditu. Eta Madrille'ra begiratzen hasiko dira. Fueroak ekonomiarentzat zituen zenbait puntu kaltegarriak izango dira Euskal-Herri'ko ekonomiarentzat (6). XIX gizaldian situazioaren eusleen eta aurrelarien artean, karlista ta liberalen artean, gerla piztuko denean, euskal burgesak bigarrenengoekin izango dira. Espaiña'n



erreboluzio liberalaren bitartez sortzera zihoan estadu berrian ikusten zuten biderik egokiena Euskal Herria'ren komertzioarentzat. Karlisten gerlak irabazi arren Espaiña'n apenas gertatu zen burges eta liberal erreboluziorik. Euskal liberalak ere euskal arazoez arduratzen ziren. Baina berak egin nahi zuten erreboluzioa frustatua izan arren, izandu ziren konserbadoreak Espaiña'n zentralismoak reakzioari ekarri zezaioketan bentajaz konturatu zirenak. Frantzia'ko kopia izan zen hemen egindako zentralizazioa eta hau bezala goitik beherako gobernu bati indar guztiak emateko. Agintea esku batean eta leku batean bilduta izatea komeni zitzairen, bestela posible bai zen erresistentzi herrikoiak sortzea, beste aginteetan noski.

Horrelako giroan hasi zen jaiotzen ezagutzen dugun Euskal Herri modernua, industriatu eta modernua. Orainsu arte, ordea, Euskal Herri hau euskal izaeraren kontrakoaz hartzen zuten zenbait euskaldunek eta euskatzale guztiak. Zergatik? Euskaldunen nolabaiteko autarki hori arrisku handiagoan jartzen zihoan neurrian, euskaldunetan bere kondizio ta izaeraren berezitasunaz kontzientziaritzea indartzen joan zela esan dugu. Hortik ideologi berezi bat sortuko da.

Rousseau'k gizona berez ona zela ta gizarteak bihurtzen duela gaiztoa zion. Theoria honen ondorenean zabaldu zen Europa'ko herrialdetan "*basati onaren*" irudia. Ondo ezagutu gabeko Herriak, Europa'ko Herri zibilizatuenetatik aparte bizi ziren Herri edo herrialdeak bihurtu ziren "*basati onaren*" ejemplurik onenak. Julio Caro Baroja'k esaten duen bezala XIX mendean gertatu zen Euskal Herria'n erreboluzio urbanu gisakoa, orduan handitu ta sendotu hiriak, ziudadeak. Nolabait esateko, hitzaren ethymologiari kaso egini, zibilizatu. Ziudadeak zentralismoarekin batera sendotu zirelako, industriatzea ta gizarte industriatua ere bai, euskaldunek bere izaeraren berezitasunaren aurkakoak bezala hartu zituzten. Industriatutako gizartea euskaldunen kontra jasotakoa

da, pentsatzen zuten, gutxi gora behera. Gizarte honek gizona, euskaldun gizona, gaiztoa egiten du.

Mende hau inbestigatzaileen mendea izango da. Euskaldunen hizkuntza ta arraza estudiantzera etorriko dira jakintsu ospetsuak Alemania'tik, Frantzia'tik etab. eta Herri hau erabat aparteko dela ikusiko dute. Bestetik historiaren aldaketa handietan bere apartekotasuna gorde duelako, Europa'ko Herri handi ta aurreratuenetatik begiratuta ontasun natural batean bizi zirelako, nahi ez izanda ere Rousseau'ren "*basati ona*" — "*baserritar ona*" esango genduke guk— zetorren oroimenera. Ontasun naturala, sentidu honetan, alegia, industrietutako ta asko desarrollatutako gizarteentzen artifiziozidaderik gabekoa.

Hau gutzia, behar bada, ez da behinere agirian eta garbi garbian esan izandu, baina garai haietako pentsamentuak bere sakontasunean aztertu ezkeror aurki daitekeala uste dut.

Dudarik gabe, azkeneko menderarte. Euskal Herria batez ere nekazaritzaren zibilizazio batean bizi zen. Eta zibilizazio hortan gauzak ez ziren zenbait kanpotar jakintsu eta bertako euskaldunek uste zuten bezain xinpleak.

Industrietutako gizartean sortzen ari den kontraposizioan, nekazaritza gizarteko gizona hobea dela uste izatea, iritzi arrunt sospetxagarria da. Aldatu nahi ezak, lehengoa eusteak, aurreratu nahi eza azaltzen dute. Modernua denarentzat mesfidantzarik handiena eguneratu.

Ta hori horrela izan dela garbi dago. Euskal literaturan, *Mogel*'ek idatzitako "*Peru Abarka*" da esaten ari naizenaren adibiderik onena. *Peru Abarka* izango da euskaldunaren personifikazioa, bera izango da adibide ta ejemplu ta ez jakituna, gizon ikasia.

\* \* \*

Aurrera jarraitu baino lehenago zerbait argi dezagun. Euskaltzalea esaterakoan euskal problemaz arduratua esan nahi da. Baina ez nolana hiko. Euskaltzaleek Euskal Herria'ren eboluzioan gorputz soziologiko bat osatu dute. Gutxi gora behera euskal gizartea nekazaritzarenarekin identifikatu zutenak osatutakoa da.

Euskaltzaletasuna *bi-balio-duna* izango da, bi hegal, alde, aurpegi, posibilitate izango ditu. *Batetik* aurrerapenari fronte egingo diolako edo aurpegi txarra jarriko diolako reaktionarioa eta koserbadorea bihurtzeko joera izango du. Aurrerapenari fronte egiten ez badio ere, honentzat mesfidantzarik handiena izango du. Bestetik, ordea, industriadre honekin batera, euskaldun izatea jarriko da arrisku gogorrean. Ekonomiaren desarrollurako Euskal Herri'ko mugak España guztira zabaltzeak, zentralismo politikoa ekarri zuen. Honekin batera kultura alienatu bat, besteen funzioan pentsatu zelako. Honen aurka altxatuko da euskaltzaletasuna. Ezarritako gobernu euskal arazoan aurka baldin bazebilen, honi egingo dion erresistentziak emango dio euskaltzaletasunari aurrelari izateko ahalmena.

Euskaltzaletasunak bi ahalmen hauen barruan eboluzionatuko du. Zenbaiten pentsamentuan, gainera, indar zentrista izateko posibilitaderek handiena emango dio. Politikan izango diren aukeraren artean, bi muturren tartekoa, erdikoa, izango dela usteko du. Izan ere euskaltzaletasunaren izate guztia ekiboku batean finkatuko da. Euskeraren eta euskaltzaletasunaren arazoak. Euskal Herria'ren industriadre garaiekin batera hartuko du gorputza. Industriadrearen garaiek aurrerapen bat dakarkite gizonarentzat. Industriadrearekin batera hasiko da euskal izatea itotzen eta gizarte berria egiteko modua laister euskaldunarentzat besteratzalea bihurtuko da, alienazioarako bidea. Mundu guztian bezala bein sendotzen hasiez gero, industriadre honen gidarien interesak ez dira Herriarenarekin ados izango. Puntu hontan, euskaltzaleek arrazoi izan dute beti. Industriadre hori kondentatu egin behar zen. In-

dustriatze konkretu baten kontra burruka egiteak, ordea, ez du esan nahi industriatze guztia txarra denik. Ez da igarotakoari dei eginaz desegingo industriatzearen *era* txar hori. Industriadzearen progresua onarturik, hau euskaldun eta gizontiarra eginaz baizik. Euskaltzaletasunak, ordea, hori egin beharrean igarotako garaiak euskal izatearekin bat egiterakoan burruka hortarako indar handiak galduko ditu. Libertatea etengabe eguneratu behar den zerbait dela ahaztutzerakoan lehengo lege eta ohituretan aurkitzen ziren libertadeak absolutura jasoko dira.

Honelako hitzak esango dira: “desafioa egiten dizutegu gu baino libreagoak izatera, zer diogu gehiago?, zuek zuen prinzipioekin guk gureekin bezain libreak. Desafioa egiten dizutegu, liberal modernuok, guk fueristak, betidanik libre garenak” (7).

Euskaltzaletasunean, beraz, euskaldunaren eta baserritarren arteko identifikazioa gisa bat izango da. Eta errealidade guzti hortan bildua Jainkoa? Zer Jainko ordea?

Benetako euskal izaera ta gizartea nekazaritzan edo igarotako garaietan dagoela usteko da. Garai hoiak erabat idealizatuak izango dira noski. Gizarte hori horrelakoa izatea Jainko batek nahi izandakoa dela. Jainko hori izango da gizarte hori horrela izatearen esplikazioa. Gizarte era honen kontra joatea Jainkoaren kontra joatea. Eta aldrebasean berdin. Euskeraren eta erlijioaren burruka berdinak. Euskeraren atzera joatea erlijioaren atzera egitea. Gauza berriak pekatagarriak. Lotuan dantza egitea, soinu berrietan dantzatzea, pekatu. Maketoen gauzak, esango da, maketo hitzarekin adierazi nahiko den desprezio guztiarekin. Gure ohiturak, “garbiak”. Kanpotik datozenak, sortzen ari diren berriak, lizunkeriz beteak eta zikinak. “Gure ohitura garbiak” izango da idazle ta hizlarien esanetan ugariena azalduko direnak. Euskaldunak zergatik geran galdetzerakoan, Jainkoak horrela nahi izandu duelako erantzungo da. Ta Jainkoaren nahi hori betetzea besterik ez zaigu tokatzen. Munduan ordena bat jarria dago. Ordena hori Jainkoak

jarri du. Ordena horren barruan jarria dago euskaldunak eta euskaldun gizartea diren bezalakoak izatea.

Sistema bezala uste ta ideia guzti hauek behinere bildu ez badira ere argi dago hau guztia izan dela oraintsu arte euskal pentsamentuaren bizkar hezurra. Euskaldunen eskubideen alde burruka egiterakoan Jainkoaren alde ta lehengoaren alde burruka egitea izango da.

Zer Jainko da, orduan, euskaltzaleena? Euskaldun izaera konkretu bat esplikatzeko duena eta gizarte berriari kontra egiteko justifikazioa dena. Situazio konkretu baten esplikazio ta justifikazioa. Jainko besteratzalea, gizona alienatu duena. Euskal gizona bere buruarentzat arrotz eta estrainu egiten duena. Euskalduna, planteatu zitzaion arazoaren aurrean, defensiban jarri zen edo, zehatzagoak izan nahi badugu, defensiban jarri zuten. Hori justifikatzeko gizon eta gizarte konkretu bat, nekazaritzakoak, eredutzat eta alda-ezinekotzat hartu ziren. Konkretutik ez zuten ezer, ordea. Astratuak ziren. Batetik, nekazaritza garaietan euskalduna esaten zuten bezalakoak ez zelako. Bestetik, desgaraiean egingo delako eredu. Horrela euskaldunarentzat gizongintzak ez du sentidurik izango. Bere eginkizuna eredu baten konformazioa izango da ta ez gizona sortzen joatea. Uste hori gizonaren liberazio ta osatzearentzat kate ta eragozpen bat izango da. Jainko bat izango da errealdade guzti horren euslea. Izate hori ez balitz ez luke sentidurik izango gainontzeko guztiak.

## **GARAI BERRIAK**

Euskaltzaleetasunak bere belaunak ditu. Belaun bakoitza industriatutako Euskal Herria'n integratuagoa aurkituko da. Bere pentsamentua eta adimenaren giroak oraindikan nekazaritzare-

nean iraungo du. Dударik gabe, pentsamentu honek bere eboluzioa izango du bainan zain zuzendariak betikoak izaten jarraituko dute.

Gaurko belaun euskaltzalea erabat industriadutako gizartean bizi da. Euskal langilearen edo burgesaren semea da. Bere buruaren giroa ta mundua industriadutako gizarteetan izaten den bezalakoa da. Aurreko euskaltzaleen munduaren konzepzioak ez dio ezertarako balio. Errealidadearen pixuagatik lehengokoenak ipui politak iruditzen zaizkio. Bere kezka ta problematikarentzat ez dute ezer esan nahiko. Euskaldun izatea gero ta zailagoa izango da, ordea. Lehengo esplikazioak ez onartzea ez da izango, hala ere, euskaldun izatea baztertzea.

Esplikazio hori baztertzerakoan esplikazioaren eusle zen Jainkoa ere baztertu egiten da. Horregatik da pozgarria zenbait gazteek Jainkoarengan fedea galtzea. Horien Jainkoa ez bai zen Biblia'ko Jainkoa. Gizonaren autonomiaren etsaia eta eragozpena zen Jainkoa baizik. Euskaltzaletasunak uste zuen bezalako gizartean ez zegoen gizonarentzat autonomiarik. Gizarte hori, lege zaharrak osatutakoa noski, Jainkoak zuzenki ezarria omen zen. Berak zuzenean horrela sortua. Dena garbi zegoen, dena esplikatua aurkitzen zen. Gizonaren eginkizuna gizarte hortan bere papera betetzea zen. Hori izango zen bere ontasuna edo gaiztotasuna neurtzeko kriterioa eta neurria.

Gizonak bere gizatasuna etengabe izateratu behar zuen errealdadea zela ez zuten pentsatu ere egiten. Historiaren eboluzioa dialektikoa izan zitekeanik ez zitzaien bururatu ere egiten. Gizona bide jakin batzuetan kateatuta aurkitzen zen Jainkoaren izenean. Dena esplikatuta zeukan ez gero, bere burruka guztia lehengo gizartea berpiztea ta eguneratzea izango da. Gizon euskaldunaren ideia astratu bat izango du ta bere gizongintzan gizon horren irudian bihurtzen saiatuko da.

Postura honek ez du batere sentidurik gaurko euskal gazteriarentzat. Lehenago esan den bezala hau erabat industriadutako

gizartean bizi da ta honelakoetan izaten den mentalidadearen kide da.

Bizi den industriatutako gizarte hori besteratzaillea dela konaturatuko da. Gizonari bere autonomia kentzen diona. Gizona ta gizartea sortzen joateko duen derrigorrezko beharra lapurtzen diona. Gizon izanik, gauzatu egin nahi duena, numeru ta gauza gisan errezago manejatua izateko. Euskaldun izatea, hots, gizon konkretu bat izatea ukatzen diona ta konkretu egiten duen kondizionamentua ukaturik *besteen* normak eta izaerak proposatzen dizkiona.

Honela kontzientzi ta rebeldi berri bat jaioko da. Euskaltzale berria gizon erreboltatua izango da. Euskaldungoa ber-asmatu beharko da Euskaldunaren gizongintza ez da izango lehengo gizartearen gisara moldatzea, sortu ta izateratu beharko dena baizik. Erreboltatua denez euskaltzale berriak lehendabizi bera sortu den giroan zabaldua dauden kateak lehertu beharko ditu. Bere gizatasunaren autonomia reibindikatu du. Bere gizongintza berri hontarako ez du Jainkoaren beharrik izango. Arrazoi guztiarekin. Euskaltzaleen Jainko hori baztertu beharko du. Hau bere autonomiarentzat oztopo bat delako. Asmatze berri honetan ez du Jainko horren beharrik izango. Hau da koska. Zenbait euskal gazteek fede-a Euskal Herria'n dagoen Elizagatik galtzea, egunero ikusten da. Inportanteagoa da, ordea, euskaltzaletasunean Jainkoa hitzak sortzen duen ekibokuak zutik jarraitzea. Jainkoa domestikatu egin dugu. Traszendentzia dena bertakotu. Gure situaziora lotu. Ta situazioan aldatuez gero zer? (8).

Jainkoaren ideia euskal kristauok zertan zuzendu behar dugun aztertu aurretik begirada bat eman dezaiozun gure munduko Jainko-ukatzaileen banaketari.

## JAINKO-UKATZAILEAK

Hiru sailetan bana ditzazkegu.

*Lehendabizikoa Jainkorik izatea edo ez izatea ajola ez zaie-nek* osatzen dute. Ugarietak dira, kristauen artean ere bai. "Gure Jainkoak makina ta efikaziaren ideia dira; gure bizitzaren sentidua aurreratzea da, gailurrera ahal bezain gertu iristea. Erlijioaz, ordea, monotheismoa entenditzen badugu, orduan, jakina, gure erlijioa eskaparartetan erakusten diren merkantzi horietako bat da. Monotheismoa enajenazioarekin, besteretzearekin, elkartu-ezinekkoa da. Gizonaren osatzea, bere salbazioa, bizitzaren xede nagusia egiten du, beste edozein xede batera makur ezin daitekeana, Jainkoa definitu ta ezagutu ezinekkoa denez, eta gizona bere irudira egina dagonez, *gizona* ezin dezakegu defini. Honekin, *gauza* bezala ezin dezakegula behinere konsidera esan nahi dugu. Monotheismoaren eta idolatriaren arteko burruka bizimodu produtiboaren eta besteratuaren artekoa da. Bizitzaren sentiduak eta bere soluzioak ez digu batere ajolik. Bizitza disgustorik gabe pasa eta ahal bezain ondo inbertitu beste xederik ez dagoela uste dugu. Gehienek Jainkoa sinesten dugu. Gainontzekoek ez. Era guztietara Jainkoa ametitzen da. Hori sinesteak edo ez sinesteak ez dio loa inori galdu erazitzen, ez dio inori interes serio bat sortarazten. Gure kulturen ez dago batere diferentziarik Jainkoa sinesten dutenen eta ez dutenen artean. Inor ez da arduratzen Jainkoaz ezta bere izatearen problemaz ere. Jainkoa urruti dagoen "Director General del Universo S.A." bat da. Zuk han dagoela ba dakizu, eta mundu hontako teatroaren representazioa zuzentzen duela. (Bera gabe berdin izango litzakeala uste baduzu ere); zuk ez duzu ikusten baina bere zuzendaritza nabaitzen duzu, "zure papera" egiten ari zeran bitartean" (9). Hitz hauek dira ondoena errealdadean Biblia'ko Jainko ukatzaileen postura azaltzen dutenak.



*Bigarren* *marxistak dira*. Nolabait eta laburki hauen pentsamentua puntu hontan definitzeko marxista batek diona jaso dezagun: "Jainkoaren ideia sakon bizitutako benetako aspirazioei dagokiena da. Aspirazio hauek, ordea, erabat indibidualak diruditenean ere guretzat historiaren *azpian* aurkitzen dute beren esplikazioa. Hori da guk esan nahi duguna zuentzat hain penagarri den espresio hontan, gizonak direla Jainkoa sortu dutenak" (10).

Jainkoa gizonak sortutakoa da, diote marxistek. Gizonak bere burrukan ezin esplikatu ditunak, onratu ezin ditunak Idealizazio batean reflejatzan ditu. Idealizazio hori da Jainkoa. Gizonen adimenean eta bihotzean sustraitua dagoen Idealizazio hori desegiten ez den bitartean ezin esan ahal izango dugu gizona erabat bere buruaren jabe egin denik. Idealizazio hori sortuarazi duten kondizioak desegindakoan ez da bere beharrik izango. Komunista erreboluzioa betetakoan ez du inork Jainkoa sinestuko.

*Hirugarrenean absurduaren gizona* jarriko dugu. "Gizon honen borondatea ez da mundua Jainkorik gabe ententitu ta esplikatzeara. Berarentzat mundua absurdua da. Gutxiago pentsatzen du mundua aldatzerik, aldaketa guztiak egin arren absurdua izaten jarraituko lukealako. Bere asmoa Jainkorik gabeko mundua "*existitzea*" besterik ez da. Zehatzago esateko "*existitzen jardutea*", Jainkogabe ikusten duen munduan Jainkogabea izateko asmoa duen gizona. Jainkorik ez izatea nahi du" (11). Existenzialista joera da honekin aitatzan duguna bere era guztietan.

Hiru sail hauetan aurkitzen dira, gutxi gora behera, euskaldun-fedegabeak. Bakoitzak bere problematika berezia presentatzen du.

## ZER JAINKO?

Jean Rostand frantzes biologilari famatuak liburu bat idatzi berria du. Liburuan dio Jainko beharrik ez duela bere esplikazioetarako. *Francois Biot* dominikoak liburu honen kritika egiterakoan gure jardunerako aiposean idatziak diruditen hitz hauek idazten ditu: "Jainkoa ez da munduaren esplikazioa. Kristau fededuna ez da fedegabearen aurrean dakina ezjakinaren aurrean presenta daitekean norbait. Fedea ez da egonezin metaphisikoa kentzen digun soluzioen liburu bat" (12).

Aitatutako euskaltzaleen Jainko hori Jainko domestikatu bat zela ikusi dugu. Situazio konkretu baten justifikazioa ta esplikazioa. Gizonari bere ahalmen kreatzailea, bere antonomia, kentzen diona.

Hau afirmatzea, dudarik gabe, astrazio bat da. Ezin daiteke uka uste hauek askotan Jainkoarenganako aprosimazio bat direla. Uste onak eta okerrak nahastuta zeudela. Guk aprosimazio hortatik gizonaren asmaketa izan dena aztertu ta aitatu dugu. Gizon euskaldunek zergatik eta zertarako izan duten Jainkoaren uste konkretu hori. Fedearen eraberritzean "sinesten dut Jainko" esaterakoan sineste horri itsasten dizkiogun txipristin alienatzaileak baztertu behar ditugu. Ba dakit gu ere aprosimazio batean gaudela. Lehengoa gainezkatu beharra dugu, ordea, ta benetako Jainkoarengandik hurbilago izaten saiatu (13).

Biblia'ko Jainkoa esker hutsa da, grazi hutsa, debaldekoa. Ez du ezertarako balio. Bere utilidadea ez da neur daitekeena. Ez du utilidaderik. Ez da mundua esplikatzeko tresna bat. Jainkoagatik bakarrik sinesten da Jainkoa. Ez da moralaren sustrai bat emateko, inbestigazioak aurkitu ez dituztenak esplikatzekoa. Honelako fedea gizonaren kontrakua litzake eta biraoa: mythologia,

magia etab. Jainkoa sinesteak ez digu bakaziorik ematen gure gizongintzan. Hau ez da igarotako zerbait konformatu beharra.

Jesukristoren bitartez etorri zaigu izkutuan zegoen Egi hori. Berak ekarri zigun esperantzan bizi gera. Bere biztueragatik dakigu gaitza ta gainontzekoak egun batean argituko zaizkigula. Egia esateko "gizonarekiko guztiak abere sustraiean Jainkoaz hitzegiten digu baina Jainkoaren errebelazioaren hitz aproposarik gabe, izkutatu egiten digu, batez ere Jainkoak gurekin izan nahi dituen harreman naturalezagaindikoetaz dagokienei" (14).

Jainkoa sinestea ez da arrazoiaren kontrako zerbait. Bere aztarnak kreazio guztian ikusi ditzakegu. Ez dugu horregatik sinesten. Jainkoak Berak nahi izan duelako bakarrik. Gure Jainkoa ez bai da filosofiarriena.

Industriatutako gizartearen aurrean euskaltzaletasuna fronte egiten aurkitzen zen. Gizatasunaren eta gizarte onaren definizioak igarotako garaia idealizatu batean finkatutakoak ziren Ebo-luzioarentzat, gizona gero ta gizonago, gero ta kontzientziatuago izateko daramakin historiarentzat frenu bat zen definizio hori. Mikroeboluzioa zen gizonarentzat ametitzen zen bakarra, bere autonomia hortan gelditzen zen. Jainkoa zen gizarte hori ezarri zuena eta horregatik zuten arrazoi bere burrukan euskaltzaleak. Horregatik zen bat eta berdina euskeraren, euskaltzaleen eta Jainkoaren burruka.

Fedeak, debaldetan emana zaigunez, ez digu eskubiderik ematen kezak baztertzeko, galderak ixiltzeko, gizonak bere gizongintzan duen burruka ixiltzeko. Gure fedean ezer bada inportantea grazi hutsa den Jainko honek, debaldetan azaldu zaiguna, bere kreazioaren parte egin gaituela da; bere antzeko egiterakoan gu ere kreazioaren kide egin gaituela, gizon egin gaituenez, libertadea eman digunez, autonomi osoa eman digula da. Perspektiba hontan gelditze guztia erru handi bat bezala azaltzen da. Jainko zulotapatzaile bat birao bezala azaltzen da.

Egia aitor dezagun. Euskaltzaleko gure joeraren defentsarako Jainkoari dei egin diogu. Gure asmoetarako egokia zen Jainko bati. Beraren izenean egin dugu burruka. Burruka hori aldatu beharrak, beste zuzendaritza bat eman beharrak idolu bat zen Jainko horri burruka egitera bultzatzen gaitu. Idolua Jainko domestikatu bat zelako, etxeko bihurtu genduen zerbait. Jainkoa gure baitan dagoela egia da, ez gure morroi bezala, ordea, naturalezagaindikoa bezala baizik.

Euskaltzaletasuna ankaraz gora jarri behar baldin badugu, atzera begiratu erazitzen ziguten lokarriak hautsi behar ditugu eta lokarri horiekin loturik erabili genuen Jainkoa ere hautsi behar dugu. Eta hontan, fedegabeak badira ere, euskal gizonaren alde, bere liberazioaren alde, burrukan dabiltzenekin bat jokatu behar dugu. Ezin ukatu gure espiritua hauetatik askotaz ere gertuago aurkitzen dela zenbait fededunetatik baino.

## **ELKAR-IZKETA**

Eskarmenturik ezak ematen duen ausardi handi batek bakarrik egin du posible lerro aldrebes eta nahastu hauek idatziak izatea. Baina baita ere esasperazioak. Ba dirudi Euskal Elizaren problemarik handiena mezak euskeraz ematen diren edo ez aztertu ta eztabaidatzea ote den. Hori oso auzi inportantea dela ba dakit. Baina non dago euskal theologia? Apenas ezer ikusten den.

Euskaltzaletasunaren giroa erabat aldatzen ari den hontan ikaragarria da euskal kristauok dugun kontzientzi ona. Gu Elizan beti aurreratuak izan omen gera. Gu Espaiña'n Herri katolikuena omen gera etab. etab.

Ez ote dugu guk ere gure buruaren azterketa bat egin behar? Fedegabeekin, marxistekin, hitzegiteko prest ote gaude? Sufi-

zientzi hori ez ote da frenu izugarri bat? Konturatu ote gera gaurko eztabaidetan zer den sustraikoa ta zer azalekoa?

Saltzan gabiltzenontzat, egia aitortzeko, argi handirik ez. Deskonfesionalizazioa gure giroan erabat onartua da aspalditxotik. Deskonfesionalizatzeko hori mingainezkoa bakarrik ote den pentsatzen hasi beharra dago. Oraindik defentsibako espiritua, ghetto usaia, ez ditugu astindu. Ofizialki ez bada ere ba dira joerak, partiduak, posturak, katolikoen giroan —apaiz eta laiko— gaizki ikusiak direnak.

Atheismoa euskal gazterian ez da probabilidade bat, neurri handi batean datu bat baizik. Guretzat, gabiltzenontzat, eguneroko ogia. Horregatik puntu batzuek argi jarri behar ditugunak dira. Horregatik aitaturako liburu batetik ezarriko ditut, erderaz, egi-leak eman nahi izandu dien sentidu osoan ententituak izan dituzen hitz hauek:

*“Concedemos gustosamente que cuando una respuesta” es presentada como solución de los enigmas intelectuales o como eslabón intrínseco del dinamismo intrahistórico de la evolución humana, se convierte en un elemento alienador que en cuanto tal frena el impulso prometeico de la aventura humana. Confesamos también que en este mismo momento, esta “respuesta religiosa” se ha degradado sustancialmente y que ha perdido en consecuencia lo que la caracterizaba esencialmente: su “gratuidad”.*

*Es aquí donde se encuentra el punto central de un diálogo en profundidad entre cristianos y ateos.*

*Los cristianos debemos considerar muy atentamente esta exigencia de infinito, esta especie de trascendencia intrahistórica que constituye la grandeza de la praxis del humanismo ateo. Y a partir de nuestra fe cristiana, no tenemos derecho de exigirles el reconocimiento de la religión en cuanto componente intrínseco —exigido— de la naturaleza.*

Por su lado los ateos deben reconsiderar nuestras afirmaciones teológicas sobre la "gratuidad" de Dios y de la religión. Esta gratuidad, en efecto, impide desde su mismo punto de arranque, que la "respuesta religiosa" rivalice con la independencia humana o que trabe la libertad de movimiento de la evolución ascendente del hombre.

Un diálogo de este naturaleza suprimiría la posibilidad del anatema recíproco: la acusación del "peligro alienador" (15).

Bukatzer a noa. Lerro hauek ber-irakurri ditut. Berriro idazten asteko asmo bizia etorri zait hori egiterakoan. Ez da posible, ez dut betarik. Gure euskal Elizarenganako maitasunak korri erazitzen dit arrisku hau. Euskal Elizaren garai berriak etor ditezten, "len itzal, irudi ta itxura zena, egi biurtzen bait-da orain eta galduak dira betiko, gerokoen iruditarko zeuden eraketak. Aurrez adierazi ta agindutako salbazioa, erospen, Jaunaren Pazkoan mamitu da" (16).

---

(1) Paul Germain, *Dieu aujourd'hui*, Semaine des Intellectuels catholiques, Paris'en, Desclée de Brouwer etxean, 1965'gn., *L'homme et Dieu* izeneko atalean 19'gn.

(2) José M. González Ruiz, *El Cristianismo no es un Humanismo*, Madrill'en 1966'gn., Ediciones La Península etxean argitaratua, 22'gn. orrian.

(3) Rikardo Arregi, *Absolutugintza*, Z. ARGIA'ren 1967'gn. urrillaren 29'an. azaldutako artikuluan.

(4) Julio Caro Baroja, *Vasconiana*, La tradición técnica del pueblo vasco, o una interpretación ecológica de su historia izeneko zatian, 109'gn. orrian. *Mañila'n 1957'gn.*, Minotauro etxeak argitaratutako liburua.

(5) *Ibid.* 147-148'gn.

(6) Puntu hontarako erabat interesantea da delako publikazio hau, "Memoria significativa de lo que tiene expuesto y pedido la ciudad de San Sebastián para el Fomento de la Industria y Comercio de Guipúzcoa", publicada por acuerdo del Ayuntamiento general de vecinos concejales y Junta de Comercio de la misma ciudad". 1832'gn. argitaratua. Liberalek bere ekonomiaren problematikatik plantatzen dutena azaltzen da hemen.

(7) Casimiro Jausoro, *El Fuero y la Revolución*. Madrill'en, La Imprenta Española moldiztegian, 1872'gn. argitaratutako liburuxkaren sarreran XV' gn.

(8) Aita Villasante'k honela dio: "Lehenago, gure Euskalerrian, fedea gorde izan da giro egoki batek eusten ziolako. Orain beinolako giro ura aldatuaz dijoa. Obeki esateko, mundu guztia ari da giro-aldatze ori jasaiten. Oraingo bizimondeak, oitureek iraulta gainazpi jarri dizkigute lengo erak eta usuario zaharrak. Fedearen Sustraiak, Jainkoa liburuan, Arantzazu'n 1962'gn. 7'gn. orrian.

(9) Erich Fromm, *The Sane Society*, Rinehart & Co., Inc., New York, Espa-

ñolez. *Psicoanálisis de la Sociedad Contemporánea* izenez Mexico'n 1964'gn. 6'gn. aldiz Fondo de Cultura Económica etxeak argitaratutakotik 149-150'gn.

(10) Jean Bruhat, lehenago aitaturako *Dieu aujourd'hui* liburuan, *Le marxisme et le fait religieux* zatian, 86'gn.

(11) John C. Murray, *The problem of God*, Yale University, New Haven and London, Españolez, *El Problema de Dios* izenez Barcelona'n 1966'gn. Nova Terra etxeak argitaratutakoan 113-114'gn.

(12) *Témoignage Chrétien*, Paris'en, 1217'gn. alean, 25'gn.

(13) Igor A. Caruso'k honela dio: "La absolutización de cualquier experiencia humana constituye un error frente a lo humano; pero también la negación de una experiencia aún aberrante lo es igualmente. Esta paradoja es particularmente aguda en la experiencia religiosa, que sitúa al hombre bruscamente ante el infinito, preservándolo al mismo tiempo contra esta condición inhumana por la relatividad de sus expresiones". *Psicoanálisis para la persona*, Barcelona'n 1965'gn., Seix y Barral etxean, 34'gn.

(14) D.P. Schoonenberg, S. Sj., *Revelación, Fe y Proclamación*, Barcelona'n 1966'gn. Estela etxeak argitaratutakoan 51'gn.

(15) J. M. González Ruiz, op. cit., 82-83'gn.

(16) Zabaleta Gaztañaga, *Jainkoaren erria edo Eliz-misterioa*, Donostia'n 1967'gn., 46'gn.

## Eguzkialdeko haize horiek...

Zergatik idatzi, giro honetan, M.-ren liburu hontaz? Gure Herriaren egoera honetan hau idaztea ez ote da izango benetan lan egin nahi ez dutenen espekulazio elegante bat besterik? Ezin geldi nindeke nere buruari galdera hau egin gabe. Hori egin gabeko sosegua, gezurrezkoa bait litzaidake.

Bainan, gezurra baldin badirudi ere, zerbait pentsatu ondorenean idazle bezala egin dezakedan lanik konkretuenetakoa dela uste dut. Ta horrexegatik praktikoena. Hau bi arrazoigatik.

Euskal Herriko idazle ta pentsalari batentzat euskeraz idaztea lehen konprometitze bat da. Euskeraz idaztea hautamen bat egitea da, erderaz egitea den bezalaxe.

M.-k bere "Sobietiar Marxismoan" (Soviet Marxism) gure euskaldun-arterako ere oso inportantea den arazo bat planteatzen du. Hori aipatzea ta pentsatzea ez dut uste iheskeria bat litekeanik.

Lan honetarako M.-ren hiru liburu irakurri ditut: "Sobietiar Marxismoa", "Dimensio bakarreko gizona" eta "Eros eta zibi-



lizazioa". Horietatik lehendabizikoa bakarrik estudiatu dut. Penaturik nago "Arrazoa ta erreboluzioa" izenekoa irakurtzerik ahal izan ez dudalako. (Guretzat, Euskal Herriaren belaun galdu honentzat, beta izatea da loteriarik handienetakoa). Ta pena dut ez irakurria, lan honetarako beste bi liburuak baino premiagokoa nuelako.

Aurrez aurretik M.-rekin desengainamentua izan dudala aitor dezadan. Filmekin gertatzen dena gertatu zait neri ere. Adiskideek dizute: ikus halako filma, ezin hoberik. Orduan esperantzaturik ba zoaz filma ikustera, bainan filma ez zen zuk espero zenduen bezain ona. Beste horrenbeste gertatu zait neri ere M.-rekin.

Hala ere aurre-iritzirik gabe hurbildu nahi nuke M.-rengana. Ta ba da aurre iritzi franko.

Hemengo zenbait marxista "ortodoxoentzat" (komunismotik at sortu diren marxismoaren ortodoxia berrietaz ari naiz noski) M. filosofari burges txiki bat edo marxismoaz alegiazko zientzia egiten duen norbait da. Komunista ortodoxoentzat M. sozialdemokrata bat eta amerikanoen morroi bat besterik ez da, inoiz Frantziako Duclos buruzagi komunistari irakurri izan diodanez. Beste batzuentzat berriz, *Ramparts* Estatu Batuetako ezkertiar aldizkarian irakurri izan dudanez, M. "erreboltaren metafisikoa" da.

Baita ere, ba dira marxismo ortodoxoaren aurka argitara den azken liburuaren zai egoten direnak. Hauek berehala baliatzen dira M.-rekin delako marxismo horri parre egiteko.

Eklektikoa banintz, ez bat eta ez beste esanaz elegante geldituko nintzake. Hori ez da ordea nere asmoa.

Gure filosofoak "Sobietar Marxismoa" liburuan gure egunetako problemen artean inportanteenetakoen baten analisisa egiten du. Egia da liburu hau 1958-gn. argitara izan zela. Bainan 1963-gn. frantsesera itzulikatutakoan, egileak berak, ez dagoela aldatu beharrik dio. Orduz geroztik beste sei urte pasa dira. Sei

urte hauetan aztertzen duen gaiarentzat gertaera latzak izan dira. Hala ere liburuak —gaiak esan nahi dut— behinere baino gaurkotasun handiagoa du. Bai nazio arteko arazoetan, bai gure artean ere. Horregatik liburu honen irakurketa besterik ez dut egingo oraingoan. Irakurketa laburra. Egunen batean irakurketa hau pentsatzeko asmoa dut. Liburuaren irakurketa inportantea deritzat, gaiaren planteamentua zehaztuta aurki dezakegulako. Ta hori M.-k liburu honetan ematen dituen iritziekin ados izan edo ez. Aurrera joan baino lehenago argi utzi nahi nuke, beraz, benetan interesatzen zaidala gaia. Ta gai hontaz pentsatzeko M.-ren liburu bide bat dela. Besterik da bide hori zuzena edo okerra izatea. Nere iritzian, era batera edo bestera, zehazki gaiaren muinera naramaki. Aski dut.

#### **1.—Elburu horretarako bideak**

Marxismoaren egitura dialektikoak dionez proletargoa industrialaren erreboluziogintzak bakarrik bete dezake bide hori, transizio hori. Izan ere, transizio horretan elkartzen dira zibilizazioaren aurrerapena ta proletargo industrialaren erreboluziogintza. Bainan proletargoaren erreboluziogintzak klase guziak deuseztatu egingo ditu ta, horrexegatik, proletargoa bera ere klase bezala hil egingo da.

Kapitalismoaren benetako eboluzioak, ordea, elkarganatze historiko hau gainditzeko beste modu bat azaldu du: proletargoak klase erreboluziogile izateari utzi eraziko dion burrukan dauden bi klaseen arteko erlazioaren aldaketa fundamental bat sortu dela. Posibilidade hau da, behar bada, inportanteena sobietiar marxismoaren eboluzioarentzat.

Posibilidade hontaz marxismoa ohartua zegoen. Baina aldakorra ta epe motzekoa izango zelakoan zegoen. Gauza dife-

rente gertatu da ordea. Nazio industriatsu aurreratuetan, kapitalismoaren eboluzioak luzarora, proletargoa klase burrukara baino gehiago klase-arteko kolaboraziora bultzatzen badu, marxismoaren kategoria tradizionalak ez dute lekurik. Orduan, historiaren baitan beste epe bat hasten da ta marxismoak sozialismorako bi-deak birdefinitu beharko ditu, ta epe horretarako estrategia bat pentsatu.

Marxek dionez historiaren epe berria aurreko epearen "hala-beharrezko ukazioa" da, epe berria aurrekoaren egitura sozialek halabehartzen dutelako.

Denok dakigunez, Marxen iritzian proletargoa klase erreboluziogile bezala organizatuko da ta sistima kapitalistaren baitan honen hilobiaratzaile izan beste eginkizunik ez du izango.

Bainan kapitalismoak normalki bizitzen jarraitzen badu, eta langileen bizimodu-maila altxatzen badu, gerta daiteke hauek sistima kapitalistaren elementu bat izatea, bainan honentzat positibua izan daitekean zentzu batean.

Marxek ikusi zuen hori. Horretarako distinzio bat egin zuen: proletargoaren benetako interesaren eta berehalako interesaren artekoa. Distinzio hau estrategia ta taktikarenaren artekoarekin bat egiten da. Proletargoa objetibuki klasea izan arren, honek hasieran ez du errealidade horren kontzientziarik. Hori egiago zen, behar bada, egun haietan, gaur baino. Horregatik, errealidade horretan, proletargoaren heldutasun-eza ikusten zuen eta hutsune hori langile klasea radikaltzeak beteko zuela uste zuen. Ekonomiaren harreman sozialak berak, bere eboluzioan garrasten joango zirenez, sor-araziko zutela proletargoaren kontzientziaratze hori.

Bainan finean Marxek, bere "Kapitala" liburuan, errealidadeaz gehiago oharturik, bi konzeptu berri sartu zituen. Batetik, kapitalismoak bere heriotza uxatzeko bere baitan "kontrajoerak" sortuko zituela. Bestetik, ba zirela bere analisisian "bazeritutako faktoreak" (nekazaritza esate baterako).

“Kontrajoeren” eztabaida marxismoan nagusienetakoa da “inperialismoaren” eta “finantza kapitalaren” dotrinekin.

Dotrina hauek 1900 inguruan kapitalismoa etapa berri batean sartu zela diote. Baina datu honetatik bi interpretazio sortzen dira. “Erreformista” da bat. Bernstein izango da interpretazio honen teorikoa. Honek dionez, proletargoak kapitalismoaren baitan bere ekonomia ta politika bizimodu-maila hobezake, ta sozialismoa medio legezko ta baketsuen bitartez jaso dezake. “Ortodoxoa” da bestea. Lenin izango da honetan.

Leninismoak bere agerketa marxismoan bi faktorek bultzata egingo du: 1.—nekazariak marxista teoriaran eta estrategiaran sartu ahal izateko. 2.—inperialismoaren garaian kapitalismoaren eta erreboluziogintzaren joerak birdefinitu ahal izateko.

Teoria honek —Leninenak alegia— 1900 inguruan sortutako kapitalismoaren etapa berria aldakorra ta ahula dela zion. Marxismoaren interpretazio “ortodoxo” honek kapitalismoaren ahalmen politikoak eta ekonomikoak baztertu egiten ditu, eta baita proletargoaren aldaketa ere.

Leninek “ekonomikeriaren” kontra eta masaren berekasako ekintzaren kontrako burrukarekin, proletargoari “klase kontzientzia” kanpotik ekarri behar zitzaioela esatearekin, proletargoa erreboluziogintzaren suieta izatetik gai izatera pasatzen ari zela nabaitzen zuen. Hortik abangoardiaren ideia, hortik antolamentu erdikoituaren beharra.

Era honetara leninismoaren estrategiak, hitzetan ukatzen zuena, egiteetan ametitzen zuen: erreboluziogintzaren eragile (suieta) ta gai (objetu) baldintzetan aldaketa sustraiko bat izana zela.

Hilferding-ek —1910'gn argitaratutako *Finanzkapital* liburuan— izan zen aldaketa hau marxismoaren funtzioan interpretatu zuena. Honentzat kapitalismoa monopolioratuz doa. Posible izango zaio honela sistima kapitalistari bere kontradizioak menderatzea. Hilferding-en iritzian kapitalisten nazioarteko planifika-

zio honek liberalismo demokratiarren heriotza eskatzen du eta baliogo gizatiarren ordean abertzalekeria ta kaisarkeria burrukalaria ezartzea era berean. Bainan Hilferding-ek ez zituen bere teoriatik ondorio guziak atera. Mendebale aurreratuan gertatutakoek Marxek definitu zuen kapitalismoaren egitura aldatu egin dute. Marxistek ziotenez mendebaleko Estadu horien artean etsaigoa sortuko zen eta orduan langile bizimodu-maila altxatzea (eta horregatik bere interes berehalakoa ta benetakoa diferentziatzea) posible egin zuten produktibidadea ta gainontzeko teknika lertu ta hautsi egingo zuten. Bainan Sobieten Batasunaren izanak berak isildu ditu etsaigo horiek.

Esandakoagatik komunistek lehen gerla nagusiaren ondorenean integratu gabeko langileetan eta nekazarietan finkatu beharra izan zuten. Hauek azaldu dira, erreboluziogintzarako eragile bezala. Eta hau —marxismoak esandakoaren kontra— erreboluzioa gutxi industrietutako nazio atzeratu batean gertatu zelako.

## 2.—Haiek beren buruaz diotena

Marxistek erreboluzioa kapitalismoa heldu ta osatu zen nazioen batean lehertuko zela uste zuten. Erreboluzio hau kapitalismo heldu horren halabeharrez langile klase kontzientziaratuak egingo zuela. Hori ordea, ez da horrela gertatu. Erreboluzioa Herri gibelatu batean gertatu da.

Aurreneko urteetan Lenin Alemaniako erreboluzioa lehertu zai egon zen, ez bait zuen posible ikusten sozialismoa Herri gibelatu batean jasotzerik Herri aurreratu bateko erreboluzioaren laguntzarik gabe.

Alemaniako Erreboluzioa menderatua izan zenean, ordea, Leninek bere ondorioak atera zituen. Orduz geroztik sobietiar marxismoa bikoitasun batean bizi da. Batetik —marxista izaten jarrai

nahi duenako— mendebaleko Herrietan langile klasearen egituraren aldaketak ukatzen ditu eta klase hori erreboluziogile bezala begiratzen jarraitzen du. Bainan bestetik Sobieten Batasunak sozialismogintzarako hartu dituen neurri guztiak mendebaleko langile klaseak bere erreboluziotasuna galdu balu bezala eta kapitalismoa sendotuz balihoa bezala hartu ditu.

Horregatik —Leninek zionez— Errusian sozialismoa jaso ahal izateko lehendabizi estatuaren kapitalismoa altxa behar, hau gabe bestea ez bait da posible. Horregatik —baita ere— sobietar Estadia luzaroan estatu kapitalistekin batera bizi beharrean aurkituko da. Mendebaleko estatu kapitalistek klase-arteke bakea sortzeko langile klaseari zenbait abantail eman beharrean aurkitu ziren. Horretarako Herri gibelatuen esplotazioa —inperialismoa— sendotu zuten. Teoria honekin Lenin Hilferding-en tesietara hurbiltzen da (hau da Herri inperialista aurreratuetan kapitala ta lana bateratzen dituen nazio interes bat sortzen dela).

Gauzak honela, erreboluzioak bi sustrai izanen ditu. Inperialisten arteko etsaigoa batetik —horretan finkatuko da sobietar Estadiak bizitzen jarrai ahal izatea—, eta eguzki-aldeko ta hirugarren munduko nazioen erreboluziogintza bestetik. Sobieten Estadiak protxu atera behar dio, beraz, inperialisten arteko etsaigoari, honela bakarrik izango zaio posible nazioa industariatzea.

Hemendik dator “sozialismoa lehendabizi Herri bakar batean” dioen teoria ta jokabidea. Bainan sobietar marxismoak Herri aurreratuen proletargoak erreboluzioa egingo duela baldin badio ere, hori ez dela gertatuko uste balu bezala jokatu du. Stalinen estrategia guzti horretan finkatzen da. 1935-gnez geroztik jaiotako “fashismoaren kontrako fronte bateratua” errealidade hori ezagutzeko pausu berri bat da. Era horretara alderdi komunistek “programa minimo” bat onhartzten dute eta burges-demokratiar estatuaren joku-arauak errespetatzeko prest daude.

Bigarren gerla nagusiaren ostean, inperialisten arteko etsai-

goak isildu egin ziren sobietarrei frente bateratu bat presentatzeko. Ondorio bezala gertaera honek Jdanoven dotrina sortuko du. "Bi alorren" dotrina da. Dotrina honen bitartez inperialisten batasuna, oraingoz, Sobieten Batasunarenganako burrukak inperialistek beren artean duten burruka menderatzen duela esanaz esplikatzeko da.

1949-gnez. geroztik mendebaleko komunistak "frente bateratuaren" politikara bueltatuko dira berriro. Behin bitartean, eguzkialdeko komunistek gogorrera joko dute. Izan ere Stalinen garaian bi aldetako komunisten politika ez zen behinere ondo koordinatua izan. Hala ere sobietiar marxismoaren tesi ofiziala kapitalismoaren krisi jeneralak da. Kapitalismoaren azken hatsa inperialismoa izango da. Bainan inperialismoak bezala funtzionatzerik ez du izango ta horregatik sortuko da inperialisten arteko etsaigoa.

Kapitalismoaren krisi jeneralak ez du esan nahi berehala hil eta giro erreboluziolariren bat sortuko denik. Krisi hori historia- ren epe luze bat dela besterik ez.

Epe luze horretan Sobieten Batasunak bere burua industriatu egin behar du, gibelatua zegoen nazioa Estatu kapitalista aurreratu- en mailara heldu arte. Horregatik kaltegarria litzake Sobieten Batasunarentzat estatu inperialistek gerla egitea. Gerla honek inperialistak bateratu egingo bait litzake, eta Sobieten Batasunak bere burua industriadzeko premiazkoa du inperialisten arteko etsaigoa, honek bakarrik ematen bait dio arnasa ta beta sobietar industriadzekoari. Era honetan "sozialismoa lehendabizi Herri bakar batean" eta "bake koesistentzia" sobietiar marxismoaren muin muinean sortzen dira. Bi burruken artean —inperialisten artekoa eta hauena sozialismoaren kontrakoa— giro bakoitzean errealidadea esplikatu ahal izateko, bateri edo besteari emango zaio nagusitasuna.

Sobietar marxismoaren kontradiziorik handiena kapitalis-

moaren estabilizazio iraunkorrek sor erazten du. Horregatik sobietiar marxismoaren mintzamoldea erreboluziolaria izan arren, honek ez du erreboluziorik espero mendebaleko langile klase aurreratuetatik. Honela mendebaleko alderdi komunistek sozialdemokrazia ezkertiar baten papera egiteko joera dute.

Inperialismoaren sendotzearekin kapitalismoaren estabilizazioa iraunkorragoa bihurtzerakoan, liberalismoak atzera egin du ta kaisarkeria sendotu egin da. Honela mendebaleko alderdi komunisten joera zerean egongo da: lehendabizi burges demokrazia berpiztean. Horretarako burges demokratiarrekin aliatu nahiko dute.

### 3.—Arrazoiketa berria

Sobietiar gizartea, kriterio hauekin jasotzen ari da:

a) Erabateko industriadun, produzioaren jabe goa herritar-tuaz, batez ere "A" sailari (lan tresneriaren produzioari) nagusitasuna emanaz.

b) Nekazaritzaren kolektibizatze progresibua, koljoziar jabe goa estaduaren jabe goan bihurtuaz.

d) Lanaren mekanizatze jenerala, formazio "politeknikoa" hedatuaz, hiriko ta baserriko lana "berdindu" ahal izateko.

e) Bizimodu-mailaren altxatze progresibuz bainan "a" ta "b" puntuei menderatuaz.

f) Lanerako moral berri bat sortuaz, "emulazio sozialista" deritzaiona, eta traszendentzia guzien ukazioa ("sobietiar erre-alismoa").

g) Estaduaren, alderdiaren eta lantegien bulegokrazia gordeaz, orain arteko puntu guziak bete ahal izateko.

h) Honela lortutakoaren partiketaz.

Honela pentsatzen du sobietiar marxismoak sozialismotik ko-



munismora pasatzea. Transizio hau dialektikoa izanen da noski. Kontradizioen dialektika. Kontradizio hauek sobietiar Estaduak lehertu gabe menderatu ahal izango ditu, berak zuzentzen duen ekonomia sozialistaren bitartez. Sistimaren baitan kontradiziorik gogorrena indar produktibuen haziketaren eta hauei buruz produktio-erlazioen atzerapenaren artean egongo da. Bainan administrazio-bidez menderatuko da kontradizio hau. Komunismorainoko pausu neurtu hau estabilizatutako kapitalismoarekin "koesistiturik" emanen da. Gertaera honek sistimatik at sortuko dituen kontradizioak nazio kapitalista aurreratu batzuetan lehertuko den erreboluzio sozialistak konponduko ditu. Baina hau epe luze baterako da, behin bitartean sobietiar Estaduak behar bezala industriatu ta indartu ahal izateko Estadu kapitalistekin bakean bizi behar du. Horregatik kapitalisten arteko etsaigoak astinduko ditu eta hauetan esperientzia erreboluziogileak uxatu egingo ditu.

Esan dugun guziak ekonomia herritartzea baino zerbait gehiago adierazten du.

Zerbait naziokotzea, behetik baseak naziokotutakoa kontrolatzeko mediorik ez badu, erabaki tekniko bat besterik ez da. Eta basiaren kontrol hau sobietiar Estaduan aurkitzen ez denez, Estadu honen eraketa zapaltzailea egiten da. Baina aurrerapen teknikoak eta produktibitatea ugaritzeak sistimaren eraketa zapaltzaile honi kontra egiteko joera du. Kontrajoera hauetaz kontzientziaratzeta Stalinen ondorengo garaietako liberalizazioan agertu da. Delako liberalizazio hau ulertzeko ezin ahaz daiteke sobietiar Estaduak bere industrietan azkarragatik mendebaleko Estadu aurreratuen liberalismo garaia saltatu duela. Hortik dator sobietiar sistimak liberal kutsuko joeren kontra duen burruka.

Liberalismoak dionez, gizabanakoaren interesak ta guzien interesak egokitu egin behar dute. Aurrerapen teknikoak elkarren artean etsai diren bi joera sortu ditu. Batetik gizabanakoari denbora ta indar libre gehiago eman dio, bainan bestetik konformis-

moa ekarri du. Era hortara gizabanakoak bere izantasuna zabaldu beharrean aurrez emandako araua errespetatu egin behar du. Gizabanakoaren interesa ta interes orokarra ez dira beraz egokitu. Liberalismoak ziona amets hutsean gelditu da.

Problema hontaz Urrileko Erreboluzioak "produzioko erlazioen" eta "indar produzitzaileen izaeraren" arteko egokitasun bat altxa zuela dio sobietiar marxismoak. Honela altxatako gizartea, teoria marxistaren sentiduan definitutakoa, egiaren eta gezur-raren arteko neurri bakarrean bilakatzen da.

Gizabanakoaren interesaren eta interes orokarraren arteko desegokitasuna sobietiar estaduan Urrileko Erreboluzioaz geroztik deuseztatua izan dela ez da egia. Baina sistimatik kanpo desarrazoia dirudiana sistimaren baitan arrazoizkoa izan daiteke. Izan ere sobietiar marxismoak ez du zerbait esaten duanean benetaketasunik eskatzen, aurrez-emana den egia bat bete beharra baizik. Esaten duanaren balioa pragmatikoa da, logikoa baino gehiago. Sobietiar marxismoak esandakoaren "egia" ondorioetan dago. Era hontara sobietiar hizkuntza ofiziala mendebalekoen kidekoa da, hauekin batera masa-gizarteetako hizkuntzaren gain-beherakadan parte hartzen bai du.

Esaerak, ezagutu erazteko balioa galtzen badute, eta efektibitaterako medio bilakatzen badira, hizkuntza hori magikoa egiten da. Hau, bere burua logikotzat jotzen duen sobietiar marxismoarentzat absurdu bat da, baina base objetibu bat du: Marxen teoria bete nahi badu, sobietiar marxismoak populu gibelatu bat "errealidadean" dena izatera ekarri behar du! Honela Marxen hizkuntza rito bat bezala gordetzen da. Marxen teoria, horregatik, sobietiar marxismoaren ideologian bihurtzen da, baina ideologia berezian. Izan ere ideologia hau ez da kontzientzia faltsu bat, faltsetate "objetivo" baten kontzientzia baizik. *Oraingo egoera* da faltsua, ta Sobieten Batasunaren eginkizun historikoa faltsetate honen zuzenketa da.

#### 4.—Sozialismoa Herri bakar batean?

Ikusi dugunez sobietiar Estaduaren jaiotza ta hazitze anormalek Sobieten Batasuna Estadu zapaltzaile bihurtu dute. "Sozialismoa Herri bakar batean" dion dotrina izan da zapalketa hau neurri handi batean justifikatu duena. Dotrina hau dela ta, sobietarrak sozialismoaren nazioarteko mailara pasatzeaz mintzatzen dira. Baina, Marxek dionez, klaseen burruka nazioartekoa da, ez da bidezkoa beraz nazioarteko mailara pasatzeaz jardutea. Sobietiar marxismoak ordea erreboluzioa estadu kapitalista aurreratuetan garaile ez izatea justifikatu behar du. Eginkizun hori "bi alorren" dotrinak betetzen du. "Kapitalista" den alorra batetik eta Sobieten Batasunak gidatzen duen "sozialisten eta demokratiarren" alorra bestetik. Naiz eta "errealidadean" sozialista alorrekoa izan mendebaleko proletargoa, geografiari dagokionez inperialisten alorrean itxita dago, ezin ditzazke beraz, horregatik, bere benetako interesak defendi. Eginkizun hori sobietiar alorrean bildutako nazioena da. Horregatik Marxek zion benetako interesen eta berehalako interesen arteko burruka bi alorren dotrinan, nazioarteko bi multzoen arteko burrukan bilakatzen da. Honela problema sozialak politiko bihurtzen dira. Horregatik mendebaleko proletargoaren klase interesek ez dute sobietarren laguntzarik aurkitzen Sobieten Batasunaren interesen kontra ez baldin badoaz baizik. Ez da bidezkoa, orduan, klaseen burruka nazioarteko mailara pasatzen dela esatea, egokiagoa da burruka hori nazioarteko politika burruka bat bihurtzen dela esatea. Marxismoaren xedeak, indar produktibuen eta hauen eraketaren usantzaren izaera zapaltzailearen arteko etsaigoa deseztutakoan beteko dira. Eta erreboluzioak lan tresneriaren kontrola langilepean jartzen ez badu, bere izaeran, kapitalisten kidekoa izaten jarraituko du. Indar produzitzaileen eta hauen eraketa ta usantza zapaltzailearen arteko etsaigoa ta desegokitasunak Sobieten Batasunaren barne politikan ta atzerri

politikan kontradizioak sor erazten ditu. Atzerrikoen artean, esate baterako, Sobieten Batasunaren segurantza nazionalaren eta politika sozialistaren arteko desegokitasunak.

Sobietiar Estadia kapitalista Estaduez inguratuta jaiotzeak eta hazitzeak, Estadu horretan sistima zapaltzaile ta errepresibu bat sor erazi du. Baina sistima zapaltzaile honek berak sendotu du kapitalisten arteko batasuna. Mundu guzian erreboluzio sozialista leher dadin derrigorrezkoa da inperialisten arteko etsaigoa sortzea. Horretarako Sobieten Batasunak "bake koesistentzia"-ren politika sendotu behar du. Politika honek bakarrik sor erazi bai lezake inperialisten arteko etsaigoa, ta orduan bakarrik akaba daiteke "sozialismoa Herri bakar batean" dotrinaren marxismoa-renganako kontradizioa.

## 5.—Hango Estaduaren dialektika

Marxismoak dio, anarkismoaren kontra, sozialismogintzaren lehen epean Estadia gorde egin beharko dela, baina sozialismogintza aurreratzen den neurrian hil egin beharko duela, batez ere alde zapaltzailean. Besterik gertatu da sobietiar marxismoan. Han estadia ahuldu egin beharrean sendotu egin da. "Anormalitate" hau estadu kapitalista etsaiek inguratuta egon dela esanaz justifikatzen du sobietiar marxismoak.

Kapitalista inguratze honek sobietiar Estadia sozialismotik komunismora pasatzerakoan zutikan jarraituko duenez, estadia ahuldu ta ezeztatu beharrean lehenago bezain sendo segiko du pausu horren ondorenean ere.

Estaduaren desarroloan inportanteena ez da bulegokrazi gobernariak dituen abantailak, honen agintearen basia ta hedaketa baizik. Bulegokraziak iraun egin nahi du. Bulegokraziaren

baitan talde diferenteen artean burruka bat ba da. Sobietiar Estaduak bere gizartearen baitan kontradizioak ametitzen dituela ikusi dugu. Kontradizio horiek lan sozialistaren eta jabego era diferenteetatik sortzen direla dio. Dudarik gabe, Konstituzioak dionez, lan tresneriaren jabegoa herritartua dago, Herriarena da, baina herritartua egon arren ez du Herriak hori kontrolatzen. Hau honela bada, inportanteena ez da jabegoa, kontrola baizik. Bi kontrol suerte bereizi behar ditugu: tekniko-administratibua ta soziala. Biak bat lirake jabegoa ta kontrola bat izango balira. Baina ez da horrela.

Sobietiar dotrinak dionez Alderdia da gizartearen kontrola duena. Alderdiaren agintea noraino heltzen den ikusi behar dugu.

Herriaren kontrolik ez dagoenez bitatik bat:

—edo bulegokraziaren barruan talde berezi batek gainontzeko guziak menderatzen ditu;

—edo bulegokrazia bera da “klase” bezala gaintasuna duena. Azkeneko hau da aztertuko duguna.

Ba dirudi bulegokraziaren baitan ez dagoela gainontzekoak menderatuko dituen talde berezirik. Bulegokraziaren buruzagitza bera da aldatzen dena. Ekonomia ta politika bulegokraziaren errepresentatzaileek osatzen dute (ekonomiarenak, ejerzituarenak, alderdiarenak). Bakoitzak gainontzekoak menderatu nahi ditu baina joera honen kontra bi indar agertzen dira: Plana batetik eta bulegokrazia guziak duen izialdura bestetik. Izialdura hori igarri ezin daitekean bortxakeriaren aplikazio erdikoiratu ta metodikoa da. Kondairak erakusten duenez aurrelari edo atzerakoa izan daiteke.

Sobietiar Estaduan izialdurak bi alde ditu: teknikoa ta politikoa. Alde teknikoak efikazia-eza guzia zigortzen du, politikoak konformagaitza den guzia.

Era hontara sobietiar bulegokrazia oinarririk gabe kausitzen da bere interes propioei iraun erazitzeke; populutik at agintea

duen klase bat da, baina politika jeneralera egokitu beharrean aurkitzen da. Politika jeneral hau, interes jeneral hau, ordea, ez da guzien eta bakoitzaren interesekin bat egiten, konzeptu ideologiko bat besterik ez da.

Estadua benetako interes kolektibuaren manifestazioa da, baina "oraindikan" berak zuzentzen duen populuaren interesekin ez da bat egiten: berehalako interes hauek interes kolektibuarekin ez dira bat "oraindik". Estaduak errepresentatzen duen gizartearen eta gizabanakoaren arteko desegokitasuna agertzen da hemen.

Sobietiar Estaduak uste du, produktibitatea indartzearekin, Estatu kapitalisten alderantzian, ahalmendua dagoela desegokitasun hori zuzendu ta konpontzeko.

## 6.—Basiak ta egituragaina. Errealidadea ta ideologia

Marxismoak dionez Estadua egituragain bat da. Basiak halabehartzen eta zehazten du Estadua. Baina honek ba ditu basia gaintzen dituen elementoak eta neurri handi batean beregaintasuna izatera iritxi daitezkeanak.

Basiari buruz Estaduak bi eratara joka dezake: ekonomiaren desarrolloaren kontra jarriaz edo desarrollo honen buruzagitza ber bera hartuaz. Honetan bereizten dira Estatu kapitalista ta sobietiarra. Biak "egituragain politikoak" dira, hots, biak "ekonomiaren estrukturak" halabehartuta ta zehaztuta daude. Baina halabehartze ta zehazketa hau Estatu kapitalistetan itsua den bitartean sobietiar Estaduak "zuzendu" ta "kontrola" dezake. Ekonomia kapitalistak Estadua menpeko duen bitartean, sobietiar Estadua da Herriaren ekonomia zuzentzen duena.

Egituragainaren eta basiaren arteko erlazioak, beraz, erabat diferenteak izango dira Estatu sozialista ta kapitalistetan. Sobie-

tiar Estaduak bere burua sozialistatzat du noski. Basiaren eta Estadu sozialistaren arteko erlazioak sobietarrek nola ikusten dituzten jakin ahal izateko Stalinek idatzitako “Marxismoa ta hizkuntzaren problemak” izeneko liburua kontuan izan behar dugu. Basiaren eta egituragainaren arteko erlazioa sobietiar Estaduan ez da antagonikoa Estadu kapitalistetan bezala. Horregatik sozialismogintzak eta komunismorainoko iraganbideak ez dute aurre-suposatzen sobietiar gizartearen eraberritzea, honen osaketa ta heltzea baizik.

Gertuagotik estudia dezagun basiaren eta egituragainaren arteko erlazio hau.

Marxentzat eta Engelsentzat ideologia ilusio bat da, baina derrigorrezko ilusioa. Benetako base sozialaren “kontraispilatzea” denez, ideologia egiaren parte bat da, baina egia hau oker eta zeharka adierazten da ideologian. Marxismoak ideologiaz duen usteak mogikortasun bat suposatzen du. Basiak ideologiari zenbat eta leku gutxiago utzi, zenbat eta gutxiago menderatu ta ezarritako ordenuari egokitu, orduan eta errealdetik urrunduen dagoen ideologia (arte, literatura, filosofia) ordenu horrenganako oposizioaren babesean bihurtzeko joera izango du. Marxen ustean errealdadearen eta ideologiaren arteko egokitasun hori proletargoaren erreboluziogintzak bakarrik erdietsiko du. Baina Herri industriatsu aurreratutakoen desarrolloak erreboluzio sozialista galarazi duen bezala, marxismoak ideologiatik errealdadera pasatzeari buruz zuen konzeptua aldatu egin du. Proletargoak —mendebaleko gizarteetan— filosofia, hau izateratuaz, hiltzen ez badu, filosofia ez doa gizonaren atzetik, honen liberazioaren aurretik baizik.

Ikusi dugunez sobietiar marxismoak bere buruaz dionez sobietiar Estaduak pausu bat aurrera eman lezake basiaren eta egituragainaren arteko erlazioak aldatu gabe. Sobietiar sistimaren

kontradizioak ez dira antagonikoak, horregatik buruzagitza zientifiko batek zabalduko ditu bide berriak.

Sistema horretan interes orokarra Estatuarekin bat egiten da. Estadua, ordea, gizabanakoen interesetatik bereizitako batasun bat da. Gizabanakoen interesak oraindio asegabeak eta errealdadeak uxatzen dituztenak diren neurrian, ideologiaren mintzabidea bilatzen dute; eta beren indarra handiagoa da propaganda ofizialak base berria komunismoa giza--liberazioa eskeintzen duena dela dion neurrian. Arrazoi horregatik ideologiaren edozein trszendentziaren kontrako burruka sistimarentzat bizi ahal izateko burruka da. Fofosofiak dakarkien trszendentziaren arriskua filosofia teoria ofizialaren mendean jartzearekin konpondu nahi izan da. Oraindikan izateratu gabeko libertadearen babesaren metafisikaren ordean materialismo dialektikoa ezarriko da. Hortik mendebaleko filosofia "burgesen" kontrako burruka latza.

Era berean artearekin. Sobietiar estetikak dionez ez dago ia kontrakotasunik eta oposiziorik artearen eta zientziaren artean; artearen ideia ta logikarenak bakandu ezinak dira. Honela uxa daiteke edozein motako trszendentziaren usaia.

## 7.—Dialektikaren gorabeherak

Dialektika marxismoaren muinean dago. Sobietiar marxismoak ez ditu dialektikaren oinarrizko konzeptuak aldatu, baina dialektikaren zeregin ber bera aldatu du. Sobietiar marxismoan dialektikak pentsamentu kritikoa izatea utzi du ta arau orokarrez jantzitako "mundu ikusmolde" bat bilakatu da. Hori edozein errebisio baino okerragoa da. Aldaketa hau teoria marxista ideologian bihur erazi duen ber bera da. Teoria marxistak erreboluziogintzaren kontzientzia ta adierazbidea izateari uzterakoan ta ezarritako sistema zapaltzaile baten egituragainetan sartzerakoan,



bere burua hiltzen du. Pentsamentu dialektikoa filosofia sistima batean arautzen da. Dialektika bera logika formalean bihurtzen da. Metodua zena dotrina egiten da.

Ez Marxek eta ez Hegelek ez zuten dialektika metodu orokorra bezala osatu. Marxentzat, dialektika gizarte ta errealdade kontradiktorioentzat bakarrik da. Dialektikaren muina giza-liberazioa zen. Sobietiar marxismoarena ez. Ezin bestela izan, dialektikaren balioa klasedun gizarte baten kontradizioentzat bait da. Sobietiar marxismoak bere burua klasedun gizarte hori gaintitu balu bezala ikusten du. Teoria marxista "mundu ikusmolde" zientifiko orokar bat bihurtzen da. Postkapitalista gizarteetarako ez da teoria marxistan baliozko "mundu ikusmolderik". Izan ere, lege antagonikoak —dialektikaren sustraia eta horrexegatik marxismoarena ere bai gizadi liberatuarentzat ez dute zentzurik.

Marxismoa materialismo historikoa ta dialektikoa da. Hegelek dialektikaren arauak "logikaren zientzia" bezala, Unibertsalaren baitan desarrollatu zezazkean, Idearen baitan. Marxismoak ordea Idearen hegeldar teoria ukatzen duelako ezin dezake dialektika logika bezala desarrollatu ta zabaldu; bere Logos hori errealdade historikoan dago, bere orokortasuna historian dago.

Sobietiar marxismoak dialektika mundu ikusmolde zientifiko bat egiterakoan materialismoa dialektikoan eta historikoan bakandu egiten du. Dibisio honek ez zuen batere zentzurik izango Marxentzat, honentzat biak sinonimoak bai ziren. Marxismoan, historia zen dialektika halabehartu ta baliotzen zuena. Sobietiar marxismoan, historiak bere leku berezia du. Hor dago diferentzia guztia: marxista dialektikaren lekua historia da, sobietiar marxismoaren historiak leku *bat* du. Eta honetara historia gauzatu egiten da, bigarren naturaleza bat izatera heltzen da.

Ba dirudi, horregatik, lege dialektikoen alde objetibua ta halabeharrezkoa sendotu egiten direla, baina sobietiar marxismoak

praktikan halabeharrezkoa ukatu egiten du, nahi izateari ematen dio indarra. Determinismoaren eta boluntarismoaren artean, azkeneko hau hautatzen du. Joera honek Leninengan izan zuen hasiera ta Stalinekin sendotu zen. Alde subjektibuek baldintza eta lege objektibuek baino inportantzia handiagoa hartu zuten.

Hala ere determinismoaren eta boluntarismoaren arteko oposizio abstraktua, eutsi ezin daitekeana da. Marxismoaren hasieratik sortu da bi alde hauen arteko problematika. Erreboluzio giroan bi aldeak ondo egokitzen dira, baina giro hori leundu, ahuldu edo galdu egiten denean alde subjektibuek hartu behar dute indarra. Buruzagiek, abangoardiko antolamentuek eta gidariek dira proletargoaren berehalako interesen eta benetako interesen arteko diferentzia ezagutu erazten jarraitu behar dutenak.

Bernsteinen errebisionismoarekin dialektika gelditu egiten da ta halabeharrezko aldea sendotu ta indartu. Lenin erreboluziogintzan bi aldeak egokitzen eta lotzen saiatzen da. Ta 1923 alde-arte lortzen du, baina orainarteko determinismo joeraren haziak ereiten ditu.

Oraingo sobietiar liburuak dialektikan halabeharra erdiko delarik idazten dira. Alde subjektibua ez da agertzen dialektika objektibuaren parte bezala, azkeneko honen ontzia bezala, esan betetzaila bezala baizik. Alderdia ta bere buruzagitza bakarrik daude ahalmenuak dialektika interpretatzeko. Alde subjektibuen eta objektibuen arteko erlazioaz sobietiar marxismoak duen interpretazioak dialektika mekanika bihurtzen du. Lehenago esan dugun bezala sobietiar Estaduan —sobietiarrek diotenez noski— basiaren eta egituragainaren arteko erlazioak ez dira antagonikoak. Horregatik sobietiar gizartea sozialismotik komunismora Estaduak gidatuta pasako da. Honela “ukazioaren ukazio legea” lege dialektiko nagusienetatik desagertu egiten da. Marxek zionez, sozialismoa da kapitalismoari buruz “ukazioaren ukazioa”. Alde horretatik dialektikaren sobietiar errebisioa “ortodoxoa” da. So-

bietiar marxistek sobietiar gizartea sozialista dela diotenez logikoa da gizarte horri dialektikaren aldetik izaera egokia ematea. Baina, hau egiterakoan, dialektika bera aldatu egiten da. Ba dirudi hau egiterakoan sobietiar Estaduak ezarritako ordenua justifikatzeko dialektika bat asmatu duela eta dialektika izan daitezkean alde kritikalarri ta aurrelarri guztiak baztertu nahi izan dituela. Sobietiar marxismoa litzake ezarritako ordenuaren interesean dialektikaren "geldiera", ideologia litzake benetako sozialismoaren geldieraren ondorioa.

### 8.—Batetik bestera

Sobieten Batasuneko politikagintza guztia sozialismotik komunismora pasatzeko zuzendua dago. Eta, sobietarrek diotenez, hori egiteko oinarriak jarriak daude. Baina pausu hori eman ahal izateko derrigorrezkoa da eboluzio "normala" izatea, hau da, Estadu sozialista ta kapitalisten artean gerlarik ez izatea. Stalinen azken iritziak, naiz eta Alderdiaren XX Biltzarrean bere jipoa hartu, neurri handi batean oraingo buruzagienak dira. Azken iritzi horietan ("Sozialismoaren ekonomia arazoak ESSB-en" liburuan) Stalinek Estadu sozialista ta inperialisten arteko gerlak ez zirela batertu ezinekoak zion. Esan dugunez, sobietiar Estaduak sozialismotik komunismorainoko pausua eman ahal izateko giro "normala" behar du. Honek zera esan nahi du: sobietarren eta kapitalisten artean zuzenki gerlarik ez izatea batetik eta inperialisten arteko etsaigoa ta burruka gero ta latzagoa izatea bestetik.

Leninen azken urteetan hasitako politikaren jarraipena da. Politika honek kapitalismoaren estabilizazioa kontuan izanik jokatzen zuen. Sobietarrek uste dutenez sobietiar Estadua indartzearekin sobietarren eta kapitalisten arteko gerla galerazten dute. Eta gerla galerazte honek inperialisten arteko etsaigoekin batera

posible egingo du erreboluzioa. Baina sobietiar Estadia indar-  
tzeak berak uxatzen ditu inperialisten arteko etsaigoak.

Imperialisten arteko etsaigoa horiekin kontaktzen dutelako So-  
bieten Batasunean barne politikak menderatzen du atzerri politika.  
Barne politikaren funtzioan jartzen da atzerrikoa. Sobietiar Esta-  
duaren hazikera da xederik nagusia. Horrexegatik prest daude  
edozein prezio pagatzera gerla uxatzeko. Izan ere sozialismotik  
komunismora pasa ahal izateko basia (ekonomia, produtibitatea)  
sendotu egin behar da.

Sobietiar Estadian ere ba dira kontradizioak indar produ-  
zitzaileak produzioko erlazioen gonbarazioan aurreratuta daude-  
lako. Ez dago egokitasunik. Baina desegokitasun hau gizarte ka-  
pitalistetan antagonikoa den bitartean sozialistetan ez da anta-  
gonikoa. Sobietiar Estadiak —eta honen izaera lehenago azaldu  
dugu— berak hautsi lezake desegokitasun hori. Horregatik sozia-  
lismotik kapitalismora pasatzea administrazio bidez egingo da.  
Ez dira ahulduko ta desegingo horretarako Estadia ta adminis-  
trazioa. Pausu hori poliki poliki emango da.

1961-gneko. Programak zionez, 1961-1970 epean Sobieten  
Batasunean produzitutakoa, bizilagun bakoitzaren proportzioan,  
Estadu Batuetan baino handiagoa izango zen. 1971-1980 epean,  
komunismoaren base materiala ta teknika altxako zen. Eta ho-  
nela, Estadiaren eta administrazioaren zuzenpean, helduko da so-  
bietiar Estadia komunismora.

Marxek eta Engelsek alderdi sozialistei “gizartea” ta “herri  
interesa” gizabanakoaren gaindik jasotzeko arriskua seinlatu  
zieten. 1961-gneko. Programak ez du arrisku hori ebitatu.

Liberazioa administraziopean, sozialismogintza errepresio-  
pean, kontradizio hauek sobietiar sistema sozialaren dinamika  
ber bera kontraipilatzen dute. Sozialismogintza, beraz, bulego-  
kraziaren menpean. Bainan ez dago hor kakoa. Arazoa zera da,  
bulegokraziaren eusle diren ekonomia ta pilitika erlazio zapaltzai-

leak sobietiar Estaduaren xede orokarrenen eta sustraitueneren kontra ba ote doazten edo ez. Sobietiar marxismoaz egiten dugun analisisa zuzena baldin bada, erantzuna baiezkoa besterik ezin izan daiteke.

Esan den bezala, sobietiar Estaduak ez du aurrea hartuko inperialisten arteko etsaigoa lehertzen ez bada. Sobietarren alde-tikako politika "gogor" batek etsaigoa honen lehertzea urrundu egiten du ta kapitalismoaren aurrerapena sobietarrentzat heldu ezina bihurtu. Horregatik nazioarteko bake iraunkor batek bakarrrik babestu lezake sobietiar gizartearen barne-desarrolloa. Era honetara bakarrik pasa daiteke nagusitasuna burruka militar eta politikotik ekonomiaren burrukara, eta baita ere bulegokrazia stalinista astintzera.

Hori guztia egin ahal izateko derrigorrezkoa da industria-tzearen mail handi batera heltzea. Mail hau zenbait alorretan erdietsia dela Sobieten Batasunean ezin uka daiteke. Errealidade honek esplika dezake azken urte hauetako sobietar sistimaren liberazio gisa hori. Baina Ungariako gertaerak (irakurtzen ari geran liburua Txekoslobakiako inbasioa baino urte batzuek lehenago idatzia dago) liberalizazio honen mugak garbi agertzen dituzte. Izan ere, Stalinen garaian bezala, sozialismotik komunismora pasatzeak ez du esan nahi Estaduaren ahultzea ta eze-reztea. Estaduak hain indartsu jarraituko du. Izan ere gertaerek eta errealdadeek gero ta problema sakonagoak planteatzen dituzte. Horiek agintearen sendotzea dakarkite ondoriotzat. Sistima leuntzeak, gogortzeak bezala, kontrol planifikatu bat eskatzen du.

Dударик gabe, libertadearuntz, kantidadeari buruz, aurrerapenak egin dezazke, baina aurrerapen horiek ez dira kalidadearenak izatera iritxiko. Marxen eta Engelsen iritzian komunismoaren helburua "lana ezereztea" zen, sobietiar marxismoan berriz gizon guziak gizarte komunistan langileak izango dira.

Ekonomia ta industrietza gehiagotu ta indartuko dira. Baina Marxek berak zion teknika neutroa zela. Makina berriak sozialismogintzarako edo kapitalismogintzarako erabil daitezkeela. Hau esatea kapitalismo helduak eta sozialismoak base tekniko berdina dutela esatea da. Horregatik esan daiteke elkar ukatu nahi diren bi gizarte sistimak, gure egunetan aurrerapen teknikoek duten joera jenerala agertzen dutela: teknika zapalketarako tresna lez erabiltzen dela.

### 9.—Mendebaleko etika eta sobietiar etika: bien arteko erlazioa

Orain arte esandakoetatik ikusten da burrukan dabilzan bi sistimek joera berdintsua azaltzen dutela: ba dirudi erabateko industrietzaek Mendebaleko ta Eguzkialdeko joerak elkartaritzen dituela. Teknikaren efikaziak kulturaren eta politikaren erdikoitzea ta koordinatzea ekarri du bi alderdi horietan. Mendebalean joera honek *humanismo liberalaren etika* usteldu du. Hala ere balioen sistema gorde egin da, nahiz eta errealidadeak gero ta gehiago gezurtatu sistema hori. Sobietiar Estaduan, erabateko industrietza etika liberalarekin ezin egoki zitekean giroan egin da: orduz geroztik Estadu erreboluziolari horrek bere baliogo sistema propioa jaso du. Hala ere gure garaiko erabateko industrietzaek, bere teknika ta lan metoduarekin bi alde horien artean berdintasun bat sor erazten du. Berdintasun honek mendebaleko etikaren eta sobietiar etikaren arteko oposizio abstraktua baztertze-ra eta dudan jartzera bultzatzen gaitu.

Erdikoitasuna ta koordinazioa ez dira beraz libertadean eta gizatasunean egindako aurrerapenaren etsaiak. Are gehiago, XIX marxista ta marxista ez diren pentsalariak ezertan ados baldin badira industrietza aurrerapenaren derrigorrezko oinarria dela esatean da. Protesta ez dute egingo industrietzeagatik, baizik

eta honen *antolaketa politikoagatik*. Industriatzearen antolaketa politikoak aurrerapenarentzat laguntzaile edo zapaltzaile izan daitezke.

Baina industriaren antolaketa ez du besterik gabe sobietiar etikaren muina esplikatzen eta horrexegatik ere ez honek mendebaleko etikarekin duen erlazioa. Bi etiken arteko erlazioa ikusteko lehendabizi bi etikak gonbaratuko ditugu. Gonbarazio honek bi etikek nahiko homogeneidade ba dutela suposatzen du. Sobietarrei etikaz hori suposatzea erraza baldin badirudi ez da berdin gertatzen mendebalekoarekin. Hala etika horretan jeneraliza daitezkean puntu orokar batzuek aurki ditzazkegu. Hauek dira:

1.—Libertatea da etika honen ezaugarririk handiena. Gizonak ezarritako halabeharretatik aske izan behar du zerbaiterako libre izan nahi badu.

2.—Libertate honek *arau etiko orokarki obligatzaileak* legezkatzen ditu.

3.—Gizabanakoaren legezko helburu etikoak bere honen osaketa onena adierazten dutenak dira. Baina gizabanakoaren osaketa hori bi arauen mendean dago.

Hauek dira: a) kristau etikaren edo bere laikitze humanistaren arau orokarrak; b) kolektibidade sozial eta politikoaren arau zehatzagoak.

4.—Bi arau mota hauek zerean finkatzen dira: a) Jainkoarengan eta edo “giza izaeran”; b) kolektibidade sozial eta politikoaren iraupenarengan eta hobetzearengan.

5.—Hala ere gizabanakoaren moralaren eta moral kolektiboaren artean ez dagoela fundamentuzko etsaigoarik uste da.

Etika hau, neurri handi batean, kristau tradizioan sustraitzen da. Kristau etikak “oposiziokoa” izateari utzi dionez geroztik, eta Estaduak berea egin duenez geroztik, filosofia moralek ezarritako zibilizazioa derrigorrean gizonaren ahalmenekin burrukan dela dioten heterodoxiak kondenatu ditu.

Hala ere beti izan dira filosofia "heretikoak". Denak kalidadez berria izan daitekean kondairaren hautamen bat egin dute. Kondaira berri honek ezarritako erakundeak desegin beharko ditu gizonak bere benetako ahalmenak bete ta zabaldu ahal izateko. Baita ere, heterodoxia guzti horiek, ezarritako gizartearen "ertzean" dauden behartsuen eta zenbait pentsalarien sinpatia bereganatzen dute. Heterodoxia hauek proposatzen duten moralak ezarritakoaren ukazioa da, baina, eta berean, bere hoiak eskeintzen dutela moral jatorra diote. Katolikotasunaren heterodoxiak kristautasunaren iturrira zihoazela ta benetako kristautasuna zekarkitela esan dute beti. XVI mendeko materialista ta eszeptiko handiek, Argien mendeko ezker-estremua eta honen ondorengo diren sozialista ta komunistek, bere filosofi "subversiboa", "iraultzailea" humanismoaren idealari erreferentzia eginaz justifikatzen dute. Marxismoak ere berdin. Marxek eta Engelsek beti esan dute humanista handien jarraitzaileak direla. Hau kontuan hartzen badugu sobietiar etikaren eta mendebaleko etikaren arteko erlazio historikoa ikusi al izango dugu.

Izan ere sobietiar etikak moral nagusiago bat dakarkiola dio. Pretensio hori marxismoaren eginkizun historikoan finkatzen da. Teoria honek ez du moral propiorik, baina humanismoaren etika *betetzen* duena dela demostratu nahi du. Horregatik, sobietiar filosofiaren sustrai historikoak ez dira Mendebalarentzat arrotz egiten (nahiz eta Sobieten Batasunaren interesen neurrian jarriak izan).

Ba da tesis bat marxismoak humanismoaren etika kapitalismoaren deformaziotik gorde duela diona. Tesis honek hau dio, laburki:

Mendebalean, herriak kristau-humanista etikaren espirituan hezituak izan dira. Bere harreman sakonenak espiritu honen konformidadean behar dutela uste izan da. Baina, ezarritako erakundeek ezinezkoa egiten dute hori egiaztatzea, injustiziaren, zapal-



ketaren eta errepresioaren eusleak direlako. Mendebaleko zibilizazioak diona bete ahal izateko desegin egin beharko dira beraz.

Sobietiar etikak mendebaleko etikan bakanduak dauden ideiak eta egiteak bateratzeko pretensioa du, honen balio moralak eta balio praktikoak bat egin nahi dituela dio. Hau hobeto aditu ahal izateko, libertadearen eta segurantzaren arteko erlazioa ikusi behar dugu. Libertadeak arriskua adierazten du eta horregatik segurantzaz mugatzen du. Bien artean, era horretara, sortzen den etsaigoa segurantzaz sendoaz eta libertadea ahulduaz konpontzen da, gehienetan, gaur eguneko gizarteetan. Hori da joera, gutxienez. Baina mendebaleko etikaren tradizinu ideologiko guztia joera honen kontra agertzen da; eta joera hau premiak eraginda balio liberalen kontra sendotzen denean, ideologiaren eta errealdadearen arteko diferentzia oraindik ere argiagoa egiten du. Kalterik gabe, ordea, sobietarren artean, libertade tradizionalak bazter daitezke, sobietiar marxismoaren iritzian segurantzaz ekonomikoan finkatzen ez diren bitartean, erabat ideologikoak direlako. Beharren menpetik askatzen ez diren bitartean behinepehin. Askatasun hau, Marxek dionez, gizonak bere lanaren morrontza austen ez duen bitartean ez da helduko. Izan ere "ekonomia", hau da, beharraren erresuma ezin daiteke behinere izan libertadearen erresuma.

## 10.—Etika hura: baliogoa politikaz

Jabegoa pribatua ez bada ia gehiago gizabanakoa afirmatzeko bidea, nere "ni"-aren adierazlea beste "ni"-en kontra, orduan pertsona pribatuaren alor guztia, betidanik mendebalean jabegoa pribatuaren balioez betea, politikoa egiten da, eta lege honen bitartez gizartearen aferran bihurtzen da. Mendebaleko etikarentzat politikaz honen ondorioak penagarriak dira.

Pribatuaren "gizarteratzearekin", libertadearen muinari da-

gokionez, , gizabanakoa pertsona pribatua izatetik gizartekoa izatera iragiten da. Era honetara sobietiar moralak zeregin kolektibuen baten funtzioan jaio da. Sobietiar etika instrumentala izatera pasa da. Hala ere, ez da tresna hutsa izango etika hori; izan ere historiaren egoera berri batean jaio da. Komunismoaren moralaren funtzioa Leninek 1920-gn. urrilaren 2-an Errusiako Gazteria Komunistaren III Biltzar Nazionalan definitu zuen. Hauek izan ziren punturik nagusienak:

1.—Komunismoarena, moral tradizionalaren ukazioa da. Beste hitzetan esateko, erlijioan edo planteamentu idealistetan finkatzen diren moralak baztertzen ditu.

2.—Erabat proletargoaren klase burrukaren interesen mende izango den moral “komunista” berri bat afirmatzen da. Honekin ez da esan nahi “burges” balio etikoak ez direla onhartu behar. Eskatzen den gauza bakarra zera da: klase burrukaren epe bateko premiekin bat etortzea burges balio horiek.

Horiek, behar bada, alde negatibuak dira. Positibuki “komunistarentzat, moral guzia zerean finkatzen da: disziplina solidario batean eta esplotatzaileen kontrako proletargoaren burrukan”. Leninen definizioan, garbi dago, klaseen burrukatik at ez dago balio etikorik.

Sobietiar etikaren alde instrumentala izan da mendebaleko kritikaren aldetik erasoaldi gogorrenak jasan dituenak, “Helburuak medioak justifikatzen ditu”. Baina sobietiar etika utilitarismoa baino zerbait gehiago da.

Ez dugu ahaztu behar sobietiar gizartearen ezaugarri seinagarrienak bi direla:

1.—Batetik, bere antolaketak libertadearentzat baldintza sustatuak jaso dituela dio bere buruaz.

2.—Bestetik, “atzerapen ekonomikoaren” eta “kapitalisten etsaigoaren” zirkunstanziegatik, libertadearentzat ezarrita dauden

baldintza horiek ezin dezaiokete gizabanakoari behar hainako utilidaderik eman.

Libertaderako baldintzak ez dira honela aurre-baldintzak baizik; baldintza horiek izateratzea orandikan libre ez diren gizabanakoen ahaleginen ondorioa izango da.

Sobietar gizartearen bi alde hauen arteko egon-ezinak ematen dio bertako moralari dinamika berezi bat.

Libertadearen baldintzak gaurkoz bete gabeak direlako, du hainbeste indarra moral horretan gerokoak. Izan ere, geroko honek justifikatzen ditu gaurko lanak eta nekeak. Eta horretan sobietiar moralak mendebaleko moralaren antz handia du: bait dirudi geroko honek sobietiar moralaren trszendentziak edo idealismoak mendebaleko moralean duten zeregin bear bera duela. Gizonaren azken atsedena ez dago, mendebalean bezala, barne atsedean edo beste mundu batean, oraingo gizartearen "epe berri" batean baizik. Eta honelako ikusmolde batean egia ez da fede batean finkatzen, sobietarren iritzian noski, baizik eta arrazoian eta analisi zientifiko batean, beste hitzetan esateko, premietan.

Ez dago ukatzerik arrazoiketa honek sistema errepresibu bat justifikatzeko balio izan duela. Morala, premiaren izenean, politikatu egin da eta errepresioaren zerbitzutan jarri.

Etika politikatzea mendebaleko filosofiaren hasieran eta finen ikusten da. Platonengan Hegelengan bezala, etikaren gaintasuna *herri arazoaren (res publica)*, Estaduaren gaintasunak menderatzen du. Aipatutako bi horietan ondorioa ez da pragmatismoa edo erlatibismoa, absolutismoa baizik. Moralaren problematika ez dago gizabanakoaren eta Estaduaren arteko kontrajartzean, edo bi moral diferenteen arteko etsaigoan, Estaduaren baitan izan daitekean jokabide moral edo inmorealean baizik. Ez da Sobieten Batasuna morala politikatzen hasi dena, mendebalekoak izan dira hori aspaldidanik egiten hasitakoak.

Giza balioek, eta batez ere libertadea, errealdadean izate-

ratzen ez diren bitartean, bere muina errealdade bihur eraz deza-  
keten baldintzen mendean irauten dute. Errealdade egite hau  
politikoa da, gizarte guzia jokoan jartzen duelako, ta ez gizaba-  
nako bakarra. Libertadea izateratzeko bi gauza behar direla kon-  
tuan izan behar da: ezarritako gizartea aldatu behar dela eta alda-  
keta hau une horretako baldintza historikoen mendean dagoela.

Hau kontuan hartzen baldin badugu garbi ikusiko dugu bi  
sistimek —mendebalekoa ta eguzkialdekoa— nahiz eta filosofi  
desberdinekoak izan, *libertadea probisionalki premia historikoa-  
ren eta politikoaren mendean kausitzen dutela.*

Horregatik sobietarrentzat inportantzia handiago du burges  
etikari burruka egitea, biak zenbait gauzatan berdinak direla di-  
ruditelako. Sobietarren filosofi moralaren balio handienak ikusita  
mendebalekoen berdinak direla dirudite: erresponsabilidadea,  
abertzaletasuna, lanean zaletasuna, urkoari kalte ez egitea, guzien  
ona kontuan izatea.

1961-gn. Programan azaldutako komunista moralak indus-  
triatzearen etikaren arau ezagunenak agertzen ditu:

—lanaren nagusitasuna.

—Herriaren onaren alde bakoitzak izardia atera beharra.

—eginkizun sozialaren kontzientzia handi bat.

—honestidadea, garbitasuna, xinpletasuna.

Arau hauek (ez dira aurrelariak) ez dute agertzen moral  
berrikorik ezer. Gehiago oraindik, komunismorako pausua emate-  
rako behar den “gizon berria” definitzerakoan gauza bildurga-  
rriagoak ezagutzen dira: gizon berri honek bere baitan “aberasta-  
sun espirituala, garbitasun morala ta perfekzio fisikoa” bilduko  
ditu.

Sobietiar moralak kapitalismoaren moral idealistarekin antz  
handiagoa du. Produktibidadeari buruz argi ageri da hori. Bai-  
nan gainontzeko gauza guzietan ere bai.

*Herri arazoa* bertako diren gizabanakoen *arazoa* ez den bitartean, *herri arazoa* errepresibua izango da.

\* \* \*

Hau da sobietiar marxismoaz M.-k diona. Laburpen bat da. Laburpen honetan, neronek nahi ez izanda ere, neretik asko jarriko nuen noski. Laburpena egiterakoan hautamenak egin behar izaten dira. Hautamenak egiterakoan —zer den inportanteena eta zer ez erabakitzerakoan— bakoitzaren kriterioak agintzen du. Laburtzea ta irakurtzea interpretazio bat egitea da besterik gabe. Hori da horri hauetan azaldu dena. Orain, gai hau pentsatu egin nahi nuke baina hori egitea beste baterako utzi beharko dut.

# Kalekumeon ordua eta jentilismoaren tentazioa\*

*“Aspaldi ontan,  
berrizale geralako gizagaxook  
makina bat erauntsi  
artu diagu”.* Lizardi-k.

Euskal Herria kaletartu egin da. Erdaldunek, hiritartu, hots, zibilizatu, egin dela esango lukete. Hori da gure istiluen eta iskanbilen iturria. Bainan, baita ere, hori da, beste horrenbeste gertatu denez, teknikaren bitartez aurreratatu diren Herrien iskanbila-iturria.

Aspaldidanik, Mendebaleko hiri-kulturaren jaiotzetik, hiri-baserri binomioa, baserri-kalea euskaldunontzat, izan da giza-his-

\* Rikardok, hil baino hamar bat egun lehenago, idatzitako artikulua da eta argitaragabea oraindik.

toriaren mugak erabaki dituena. Aurrerapenak edo eta beldurrak, behin eta berriro gizona galdutako Paradisura (baserrira) bultzatu du. Zorioneko Freud! Mundu honetan sinisteak, aurrerapenean sinisteak, gizona posible dela uste izateak, atzera itzultzeko joera duen gizon ber-berari aurrera eragiten dio, hots, kalera bultzatzen du. Baserritarrak eta kaletarrak, munduaren, eta gure, bizitzaren aitzinatzaile-gibelatzaileak dira.

Inguratzen ginduen Europa hiritartzen ari zen bitartean, gure Herria, ertzean gelditu zen. Euskal Herria esaten dudanean, gure oroimen kolektibua esan nahi dut. Europako hiriazioa baino atzerako heltzen den oroimen kolektibua. Horrexegatik behar bada, Homeroren Greziarena baino zaharragoa delako, indartuagoa da guregan kalearenganako mesfidantza.

Egun, bi aurpegi dituen problematikaren barruan aurkitzen gera euskaldunok. Historiaren laisterrak gizona hirira bultzatzen du, Herriak hiri bihurtzen ditu. Ito nahi ez badugu, lasterra segi behar dugu. Kaletartu egin behar dugu. Kaletarrak gera soinez, teknikaz; kultura eta euskera ere kalekume egin behar ditugu, bestela hil egingo dira. Bainan gizarte hiritartu horiek, orain zuzenduak dauden moduan, behintzat, besteratzzaileak dira. Gu, Herri bezala, historiaren laisterrean segi nahi izateagatik, ez ote gera bestea bihurtzeko? Eta honela, euskalduntasunaren aurpegia azaltzen da. Hautasuna galdu nahi ez badugu, eta besteretzea hautasunaren galtzea litzake, gure jatorrira itzuli behar dugu, oroimen kolektibua hautsi gabe jardun behar dugu.

Aspalditxo batean, Oteizaren "Quosque tandem...!" liburua irakurri ondoren, "esenzialismo" hitza aipatuaz itxiko nuen, eta kito. Egun, berriz, hori egin aurretik aztertzen saiatuko nintzake, zenbait puntuetan ados ez izan arren. Vietnamdarrek, azkeneko *Jakin*-en irakurtzen genduenez "vietnamtasunaz" kezkatu rik baldin badaude zerbaitegatik izango da. Eta ez da inor izango, noski, vietnamdarrek erreboluziogileak direla ukatuko duenik. Izan ere,

egun, Herrien hautasuna, identidate printzipioa, arazorik nausietakoa bihurtu da. Hortik dator sustraietara itzultzea.

Sustraietara itzultze honek, oroimen kolektibuan aukera egitea da, gure benetakoa historia eta gure oroimen kolektibua ez bait dira gauza berdinak. Oroimen kolektibua, garai bakoitzean, gogoramenerako gauza batzuek gordez eta besteak baztertuaz osatu bait da. Horregatik da hain zaila sustraietara itzultzea diogunean iheskerian ez erortzea. Oraingoaren txartasunak lehengoak idealizatu egiten du, hots, lehengoaren idealizazioa finkatzen den Ideologia suspertu. Euskaltzaletasunaren historian hori maizegi gertatu den gauza da. Jatorristek, esate baterako, desgaraian lehengo hori Arkadia zoriontsu bat bezala fijatu egin dute, kanpotik datorrenai oztopoak jartzeko eta mogimentua ukatzeko.

Honen kontra beste joera bat agertu nahian ibili da aspaldiko urte hauetan. Pio Barojaren obra guzia irakurtzen baldin bada, ba direla jatorristek ez bezala lehengora itzuli nahi dutenak ikus daiteke. Joera honi deitzen diot jentilismoaren tentazioa. Ba da joera bat, oso agirikoa ez baldin bada ere, jentilismoa, euskaltzaletasunaren manifestazio jatorra bezala —kristautasunera baino arago—, birbaliatu nahi duena. Joera hau, batez ere, indartsua da artisten artean. Joera honen azterketa serio bat egin behar da, ez bait da, nik inoiz idatzi izan dudana bezala, esenzialismo hutsa esanaz bazter daitekean arazoa. Joera horiek oso inportanteak dira euskaldungoarentzat, ezin bazter ditzazkegu. Marxismo primario batek, eta ortodoxoak ere bai, gutxieteko joera du. Honela dio Edgar Morin-k bere "Introduction à une politique de l'homme" liburuan: "Cette sous-estimation vient d'une sous-estimation congénitale du facteur "d'identification" dans le marxisme, au profit du facteur de projection. Le marxisme a surtout vu, dans les grandes cristallisations affectives de l'humanité, l'évasion, l'aliénation, c'est-à-dire la forme extravertie et fantasmagorique du processus de projection-identification, et non sa force de possession".



Nor ez da ohartzen puntu hau hemengo eztabaidetan kausitzen dela? Eztabaida horiek hemen diren teoriaren eta praxien muinean daude. Batzuek, oroimen kolektibua ahazturik, kaletar-tzearen lasterra segitu besterik ez dute egiten. Horiek deduktibua dira, unibertsaletik heldu nahi dute konkretura. Horregatik dira erudizio gehiena dutenak, marxismoaz gehiena dakitenak. Bainan, baita ere, horregatik dira praxia ahulena eta geldiena dutenak; hitzetan finitzen den praxia. Besteek, laisterrean oroimen kolektibua galdu nahi ez dutenek, induktibua dira. Hautasuna da hauen obsesioa. Berez fiazioaren arriskua dute, bainan ezarritako gizar-te-sistema eta hautasun hori elkar ukatzaileak direnez, hauek dira burrukalariak.

Era guzietara, argi dago, hemengo sozialismo tradizionala da lotan dagoena eta erabat burgestu dena. Gu sozialismora euskaltzaletasunetik heldu gera. Euskaltzaleok, gure Herriaren hautasunaz kezkatutik gaudenok, gera iraun, eguneratu ta burrukalari geranok gaurko abangoardi-burruken zentzuan. Ezin zitekean bestela izan. Gure planteamentua, izan ere, kalitatez, muinez, da diferentea, ez kantidadez, besteena bezala. Ez da ekonomia, ez da administrazioa, ez da teknika. Zer bait gehiago da.

Uste ezean, nahaste-borraste handi samar bat irten zait. Ez ote zaizkit jatorristek hasarretuko? Ez zait axolik, Lizardiren hitz hauek kontuan ditut eta: "Giza-asmo handi guzietan gertatzen da. Gizaldi gazteak zaharrari zirika, zaharrari bultza. Zaharra bere egonean goxo, ta aurrerago ez nai. Gazteak: "Eup! Garaia da". Zaharrak: "Ago ixillik, lotsagabea". Nik eztakit guri zer gertatuko zaigun. Gu ere, Jainkoa'k nai beza!, zahartuko al gera ta sutondozaletuko, ta uste izango al degu inor ezittekela gu baño areago. Ta Jainko onari dakiola ordurako beste gazte-sail bat agertuizatea, guri zirika, guri bultzaka, gu baino aurrerago-nahiekoa. Txakurrarenak esango dizkiegu, behar ba-da. Aitatuko dizkiegu

“odolkera”, handi-ustea, nahastu-bearra, burgoikeria eta buru-  
arlotetza. Baña, gure esanak gora-beera, gazteok bihoaz aurrera,  
gurekin nahiz gure gañetik; bihoaz, ordun min emango ba-digu ere”.  
 (“Itz lauz”, Euskaltzaleak, Donosti, 1934-gna. 58-gnean). Gu  
lizardistak ez gerala esango dute, gero.



*...eta gizona goraino...*

# euskaldunen gizagintza

Nik ez dut uste zuen buruetan darabilzkizuen galdera guzien erantzunen bila etorri zeratenik. Nere ustez, denok elkarrekin lan egitera etorri zerate. Goazen, beraz, horretara.

Gaur erabiliko dudan gaia eta gaur esango ditudenak gogor-xamarrak egingo zaizkizue seguru asko, nerontzat ere zailak dira-ta. Baina gaur egunean gure artean dabiltzan zenbait galdereri behar bezalako erantzuna emateko, nahi ta nahi-ezkoak ditugu.

Hona galdera hauetako batzuk: zer da euskaldun izatea? Zergatik euskaldun izaten jarraitu? Zer egiten du euskerak gure gaurko problematikan? Zer da euskaldun jatorra izatea? Nola behar dugu izan euskaldun?

Nork uka lezake nik orain aipatutako galdera hauek gure giroan daudenik? Gutako bakoitzak geure buruari egiten dizkiogun galderak dira, hori alde batetik; eta bestetik, nahikoa da gure inguruan, gure giroan planteatzen diren galderak nabari-

tzeko, guzien azpian problematika hori ikustea. Hasi gaitzen gaurko hitzaldiaren gaia urrutitiki aztertzen.

### *Gizona gauza guzien neurri*

Naturaleza —guk gaur ezagutzen dugun mundua— ez da bat-batean sortu; eboluzio baten ondorena da. Gaur egun, hau denek onartzen dute: jakintsu guziek eta guk geurok ere bai.

Gizona ez da beti izan munduan. Animaliak ez dira beti izan munduan. Landareak ez dira beti izan munduan... Munduaren eboluzioan poliki-poliki joan dira sortzen.

Eboluzio horretan, materia hutsetik hasita, sortzen zihoazen izaki berriak gero ta osatuagoak ziren. Lehendabizi, materia hutsa zen, izaki bizigabeak; gero, bizidunak sortu ziren, landareak. Nork uka lezake landare bat harri bat baino ostauagoa denik? Landare bat harria baino zerbait geiago da: bizi delako. Animalia landarearen baino gehiago da: bizitzaz gainera, ezaguera ere ba duelako; sentiduetan itotzen den ezaguera, hori egia da; baina animaliak ezagutu egiten du; sentiduak, landareek ez duten zerbait dira.

Beraz, puntu honetatik hasi gaitzen: gure gaurko mundua eboluzio baten ondorena da; ta gizona eboluzio honen azkena. Gizonari, azkenik eman zaio izatea; ez, ordea, nolanhiko izatea; sortu diran izaki guzietan osatuena, baizik.

Jarri ditugun adibide guziekin, sortzen zihoazen izakiak gero ta osatuagoak, gero ta hobekak eta, erderaz esateko, “perfektoagoak” zirela ikusi dugu: lehenbizi bizigabeak; gero bizidunak; gero ezaguera, sentidua zutenak; eta, azkenik, horien bukaera bezala, gizona.

Gizona sortzen denean, munduan, naturalezan, gauza izugarri inportante bat gertatuko da: kontzientzia.

Hara: animaliak edo landareak sortzen zirenean, erabat ma-

teriazkoak direnez, naturalezan bizi ziren, eta naturalezak ematen zizkien behar zituzten ahalmen guziak, bizitzen segi zezaten. Animaliak ez du ikasi beharrik ezer: naturalezak berak erakusten dio. Gizona, ordea, kontradizio handi bat da; eta kontradizio horretan dago gizonaren izaera; kontradizio hori, gizona bera den kontradizio hori behar bezala ezagutzen ez badugu, orain esango ditugun gauzak ezin ditzakegu zuzen uler.

Zertan dago, bada, gizonaren kontradizioa? Gizona, alde batetik, animalia da; hau da, naturalezako gauza bat. Natureleza denez, naturalezako legepean dago, naturalezak agintzen dio era batera edo bestera jokatzea. Naturelezak ematen dizkio instintoak; ez hiltzeko instintoa, esate baterako. Baina, eta honetan dago kontradizioa, kontzientziaren bitartez gizonak gainezkatu egiten du natureleza.

Munduan diren izaki guzien artean, animaliak ez daki bera izan ba denik. Landareak eta gauzak are gutxiago. Baina gizonak ba daki bera ba dela. Gizona naturalezaren eboluzioaren azken-frutua baldin bada eta, esan dugun bezala, fruturik osatuena ere, naturelezari frente emateko izakirik ahulena da alderantziz. Ez dut uste hau demostratu beharra dagoenik.

Naturelezak ematen die animalia ta landareei problemei frente egiteko modua; gizonak, ordea, berak sortzen ez badu ezin eginean aurkitzen da. Beraz, gizona naturelezakoa da; baina kontzientziaren bitartez natureleza gainezkatu egiten du.

### *Gizona eginkizun erlatibu*

Gauzak eginak daude; ez dute gehiago egin beharrik. Landareak, bizidunak, bizitzen doazen neurrian, egiten doaz dudarik gabe; baina naturelezak egiten ditu. Animaliekin beste horrenbeste gertatzen da. Baina gizona, alde batetik, naturelezak egiten

du; beste aldetik, ordea, berak egiten du bere burua. Hau da: gizona ez da naturalezak erabat egindako zerbait, bere burua osatzen doan zerbait baizik. Gizonak ez du jaiotzarekin erabateko izatea jasotzen; bere burua egiten jarraitu behar du, bere bizitza osoan zehar. Gaurko filosofiaren problematikan sartuaz gero, frase polit batean esatekotan, honela zertu genezake eskuartean dakarguna: gizona ez da akabatutako zerbait; gizona eginkizun da.

Pentsa dezagun bakoitzak geure buruagan: egia da eginak gaudena; gorputz bat dugunez ba gera zerbait, eta gorputz horrek bere legeak ditu; guk horretan apenas ezer dezakegun. Gizarteak ere egin egiten gaitu: joera batzuk jartzen dizkigu, zenbait gauza erakusten. Baina, hala ere, guk geure buruari era batera edo bestera eragiteko askatasuna dugu: libertade hori, aukeratu ahal izate hori da gizona gizon egiten duena.

Harriak ezin lezake aukeratu bera era batekoa edo bestekoa izatea. Harria egina dago. Animaliak ere ez du aukerarik. Naturelak egin du eta haren legea jarraitu besterik ez du: instintoak libertadea hil egiten du; instintoa ez da aukera, derrigorrezko legea segitu beharra baizik.

Gizona besterik da, ordea: alde batetik zerbait egina dago; baina bestetik eginkizuna da, egiteko dagoen zerbait, bukatu gabea. Hori da, gezurra badirudi ere, euskaldun zergatik izan eta gainontzeko galderei behar bezala erantzuteko punturik inportanteena. Horregatik, berriro diot, gizonaren izaera kontradizio batean dago; batetik, bada, egina dagoen material bat da; baina bestetik, kontzientziaren, ezagueraren, askatasunaren bitartez, materia hori, naturaleza hori, gainezkatu egiten du, zerbait gehiago da. . . Beste hitzetan esateko: materia preso dago, baina pentsamentuaren, irudimenaren bitartez, presondegi horretatik iges egiten du; bere presondegia baino askozaz ere haundiagoa da gizona.

Hain zuzen ere, gizon bakoitzaren eta gizadi osoaren histo-

ria hauxe izango da: bi dato hauen arteko burruka: alde batetik, egina dagoena, materia, naturaleza ikusten ditugu; eta, bestetik, askatasuna, kontzientzia, eginkizuna.

Gizona eginkizun hutsa dela uste izatea erru haundi bat da. Bere burua nola nahi duen absolutuki erabakitzerik ez du gizonak: hasiera ta frontera batzuk bait ditu. Baina giza-eginkizuna beti naturalezaren legeak itsu-itsuan eta burua makurturik jarraitzea dela uste izatea beste erru haundi bat da. Hau ere gizatasunaren kontra doa. Esan dugunez, erru haundia izango litzake gizona eginkizun edo espiritu hutsa dela sinestea: aingerukeria bait da hori. Baina materia hutsa dela pentsatzea materialismoa izango litzake, arrazoirik batere gabeko materialismoa.

Zer da, beraz, gizona? Eginik dagoen zerbait eta, aldi berean, bere burua osatu behar duen zerbait. Gutako bakoitzak ikusten dugu hori gure bizitzan. Erabat eginak al gaude ala geure burua geuk egiten dugu? Gure bizitzaren barruan ez al ditugu aukerak egiten? Baina, dudarik gabe, aukera horiek egitera edo gure gorputzak edo gure gizarteak edo gainontzeko gauzek askotan behartu egiten gaituzte. Orduan, zer da gizona? Eginkizun bat, baina ez eginkizun absolutua. Hasiera bat du eta bere eginkizunean frontera batzuekin topo egiten du gizonak.

Zer edo nolakoak dira gizonaren mugak, gizonak bere baitan egina duen hori? Lehenbizi, bere gorputza zerbait konkretua da; eman egiten zaio; gizonak berak ez du bere gorputza sortzen: lehen kondizio edo kondizionamentua horixe izango du, bere gorputzarena. Bere bizitzaren barruan libertatea, aukerak egiteko libertatea, baldin badu ere, beti bere gorputzaren kondizionamentupean izango du, ez du aukera absolutua egiterik izango. Bigarren, gizarteak jartzen dion kondizionamentua: nik ezin nezake ahantz non bizi naizen; nongoa naizen; zein lagun ditudan; ze lan egiten dudana... Hori ahantzirik, aukerarik egin dezakedala sinetsiko banu, neure burua engainatuko nuke.



Baina gizarteak eta gorputzak ez dituzte gizonaren aukera ta eginkizuna erabat menperatzen, erabat eginak ematen; eta horretan dago gaurko gizartearen arriskua. Izan ere, zer gertatzen da gure gizartean? Gizon izatearen irudia eskaini egiten zaigula! Hasi eskolan eta gure gizarteko giro eta lan eta periodiko eta kulturabide guzietaraino gizon izatearen irudi bat eskaintzen zaigu. Irudi honen deskribio bat egitea oso gauza zaila da; baina gutxi gora-behera ikusten duzuela uste dut.

Guk, beste puntu batetik begira, gaur egunean euskaldun izateko zailtasunik nabaritzen dugu. Hemen gaudenon arteko nork uka dezake euskaldun izatea gerò eta zailagoa zaionik. Behar bada, ez dakigu zihur-zihur euskaldun izatea zertan dagoen; sentitu, ordea, sentitzen dugu "gu" izaten jarraitzea gero eta zailagoa zaiguna, euskeraz hitz egitea gero eta zailagoa zaiguna.

Gure bizitza konkretuan nolabaiteko burruka dago: guran naturala denaren eta gizarteak eskutaratzen digunaren artean. . . Euskaldun izanik hazi bagera, gure konkretutasunean bizi izan bagera, oraingo giroak, ezarritako gizarteak edo soziedadeak, kontra egiten digu.

Eskolan ikasten dugun izatea gure konkretu izatean egin al dago? Ez! Gizonaren beste irudi bat eskaintzen digu eskolak. Zineak edo aldizkariak erakusten diguten maitasunak gure izate konkretuarekin zer ikusirik bai al du? Ez! Zinean, telebistan, periodikoetan, aldizkarietan agertzen diren neska-mutilak eta hauen arteko maitasuna-modua. . . hori da modelu bezala jartzen zaiguna; baina modelu horiek ez dira gure bizitza konkretutik atereak. Beste modu batera esango dut: gu bizi geran gizartean zer da kriterio, zein da neurria? Orain dela gutxi esaten nuenez, ekonomia-arazoetako irabazia, rentabilitadea, da kriterio ta neurri; hori da balioduna.

Baina, irabazia, rentabilitadea, kriterio on bat al da gizata-

sunaren aldetik? Ez! Zergatik? Gizona bigarren mailara pasatzen duelako. Eta betiko ejenplua jarriko dut: enpresa-gizon batek, bere lantegian, dirua nola irabazi pentsatuko du lehendabizi; eta gero, behar bada, herriaren edo gizonaren interesaz arduratuko da. Baina lehenbizi dirua irabazteaz... Dirua irabaztea beste errealidade guzien gain badago, hori bihurtuko da gauza guzien neurri. Ez da behin ere lehendabizi galdetuko: hau gizonarentzat edo herri honentzat egingo al dut? Baizik: enpresa bat eginaz dirurik irabazi al dezaket? Hori izango da enpresarioaren jokabidea neurtuko duena. Jakina dago hori modu askotara egin ditekiena...

Zer ikusten dugu, bada, gu bizi geran errealidade konkretu honetan? Guri eskaintzen zaizkigun modelu guziak ez direla guk eginak, guri jarri nahi izan zaizkigunak baizik. Jazteko modua, dantza egiteko modua, jolas egiteko modua, jateko modua, lan egiteko modua... ezarri egiten zaizkigu; ez ditugu guk egiten. Hona hemen nola ikusten den guzi hau gizatasunaren kontra doana...

Ikusten duzue orain gizon izatea zer den: hasiera bat eta muga batzuk kontuan izanik, eginbehar bat, eginkizun bat: ba-koitzak bere burua osatu beharra, alegia. Baita ikusten duzute gure instituzio ta errealidade guzietan gertatzen zaiguna ere: modelu batzuk, jokabide batzuk jartzen zaizkigula: ez guk egiten ditugunak, egin beharrean sufritzen ditugunak, pasibidadean bizi behar ditugunak baizik. Horretxegatik dira gizatasunaren kontrakoak.

Har ditzagun, esate baterako, kantuak. Nork erabakitzen du zein kantu egin? Kanturako modak nork erabakitzen ditu? Gure bizitza konkretuetatik jaiotakoak al dira? Gure minak, gure pozak, gure maitasunak azaltzen al dizkigute? Ala beste nonbait gizon batzuek egin dituzten maitasunen, minen, edo alaitasunen gauzak agertzen dizkigute? Nik bigarrena dela uste dut eta ez

lehenengoa. Beraz, kantatzeko modua jarri egiten zaigu, ez dugu aukerarik. Eta gure gizatasuna, gure gizatasunaren sail bat, hil egiten digute horrekin. Eginkizuna izan beharrean, guk gerok aukeratu beharrean, pasibuak izatea besterik ez zaigu gelditzen.

Har dezagun beste edozein gauza. Gure herriari, gure problemei dagozkien erabakietan, guk zer egiten dugu? Guk geuk erabaki ala erabaki batzuk sufritu? Bigarrena, noski.

Jeiki geranez geroztik lo hartzen dugun arteraino, zenbait errealidade, zenbait gauza eginekin arkitzen gera, eta ez guk jarritakoekin. Hori gure gizatasuna itotzen ari da: ez dugu gure eginkizuna betetzen, ez gera geure burua osatzen ari, ez gera geure gizatasuna egiten ari, gu egiten ari dira beste batzuek, egin egiten gaituzte. Hau, behar bada, izenjakua irudituko zaizue, baina mami haundikoa da.

Berriro nator puntu horretara. Gizona honetan bereizten da animaliangandik: bere buruari alde batera edo bestera eragiteko askatasuna ba duelako, eta animaliak ez. Edo txakur batek aukera al dezake era batekoa edo bestekoa izatea? Ez! Gizonak bai, ordea. Baina zer gertatzen da eguneroko bizitzan? Aukerarik ematen ez digutelako, egin egiten gaituztela...

Nork erabakitzen du, esate baterako, nola jantzi behar dugun? Hori egiten dutenek zertan pentsatzen dute: gure beharretan ala dirua nola irabazi? Lehenbizi, eta hori pentsaturik hartzen dute erabakia, ez gure beharretan, dirua nola irabazi baizik. Eta nahi ta nahi ez, derrigorrean, ezartzen digute jatzeko modua. Jakina, hau disimulu guziarekin egin ohi da, ez bait gera hogeigarren gizaldian alperrik bizi... Gaur egunean ez dira orain bi edo hiru gizaldi bezala egiten gauzak, gizonak asko ikasi bait du.

## *Gizon bakoitzaren konkretutasuna*

Gizonaz hau edo bestea dela berdin-berdin esatera iristean, gizonak gizon izatea utzi du, galdu du. Harri bat beste batekin aldatugatik ez du diferentziarik nabaritzen. Gizona, berriz, aldaketa honekin, gauzatu, gauza bihurtu da. Hori da gaurko gizarteak egiten diguna: gure askatasuna gauza bihurtu.

Guk geure burua egiteko dugun aukera hori kentzen digutenez geroztik, gauza bihurtzen ari gera. Izan ere, hori sistema-ren logikan dago: bakoitzak bere nortasuna, bere izaera, osorik gordeko balu, ez legoke gizona manejatzerik; komeni, ordea, gizona numeroa bezala manejatu ahal izatea komeni da...

Gu bizi geran gizartean, euskeraz hitz egitea guretzat gero ta zailagoa izatea kasualidade huts bat al da? Edo sakonagotik jotzen gaituen beste zertaiben seinalea? Nik bigarrena uste.

Gutako bakoitza gizon konkretu bat gera; gizon konkretu, ez gorputz espezial bat dugulako bakarrik, pasatako garai bat geurekin daramagulako baizik.

Ez dakit zuek sentitzen duzuten, baina hau ikusarazi nahi nizueke batez ere: gure gizatasunaren benetako iturria, benetako askatasuna, zenbateraino itotzen digun gaurko gizarteak, alegia. Ez digu gizon izaten uzten, gauza egiten gaitu: denoi iritzi berdinak, jazkera berdinak, joera berdinak jarri nahi dizkigu. Pentsatu orain normalidadearen kriterioa nolakoa den, gizon normala zein den. Konforme dagoena! Eta gizon anormala, konforme ez dagoena. Kriterio hau, gezur badirudi ere, gure zera guzia, gure eginkizun guzia, bereganatzen ari da.

Beraz, zergatik euskaldun izaten jarraitu? Bai al du sentidurik galdera honek? Esan ditugunak behar bezala ikusi baditugu, ez dago dudarik.

Alde batetik, gure gizarteak erdal-izaera bat jarri nahi digu.

Jarri nahi digunez gero, ia ezin dezakegu onartu: guk erabakitakoa, ez, guri jartzen digutena baizik delako; gure gizatasunaren kontra doalako.

Guk ikasten dugunak gizon izateko era bat darama oinarritzat, modelu bezala ezartzen diguten era: gizon erdalduna, erderrez dakiena; paketsua, sukalde ta etxebizitza onen jabe dena; batere builarik gabe bizi behar duena; "amen" eta "amen" esaten ikasi behar duena... Honelako gizona de gaurko gizarteak begien aurrean jartzen diguna. Horretxegatik ezin dezakegu onar. Hau da lehenbiziko erantzuna: geranak izaten jarraitzea; gure konkretutasuna, "gu", "ni" izatea ezin dezake inork utz bere soinekoa uzten duen bezala: bere gizon izatea utziko bait luke bat-batean.

Gizonak ez du bere izatean itxi behar; orain arte esan dudanean nahiko garbi gelditu da guzi hau: gizona izate irikia, bukatu gabea eta, bere bizitza-zehar, osotasun bat egiten joan behar duena dela. Baina behin ere ezin dezake ahantz bere izate konkretua zer den: bere gorputza, bere historia, bere gizarteko kondizionamentua daramazkiela. Telebistan ikusten ditugun jendeak, ordea, ez dira honelakoak: abstratuak dira, ez dute konkretutasunik; nonahi bizi daitezkeenak dira, pelikulatakoak bezalakoak. Gu ere haien antzekoak egin nahi gaituzte; beraz, gure konkretutasuna galduerazi nahi digute; hau da, gauza egin, besteen bidean jarri, besteak bezalakoak egin. Eta ni ez naiz bestea; bestea izan nahi banu, nere izatea, nere gizatasuna pobretuko nuke ta gutxituko.

Fundamentu hauek jarri beharrean (eta hasieran esan dizuedanez) gaurko hitzaldia aspergarriena eta zailena duzue. Seguru asko gai hauek abstraktuak irudituko zaizkizue eta metafisikoak ere bai behar bada, neroni ere hala gertatzen zait-eta. Baina gure jokabidea, gure gaur eguneko problematika ta gure galderak behar bezala argitu nahi izanez gero, planteamentu hau egin beharrean gaude.

Gure jokabideak oinarritze edo sustraitze-lanean, Pasaian askotan bidetik kanpo ibiltzen gerala esaten nuen lehengo batean; adibidez: euskera zergatik defenditu, euskaldun izatea zergatik defenditu, eta antzeko arazoetan. Erantzun jator bakarra zera da: gauza guzien neurri gizonak behar du izan; gizatasunaren alde doana onartu behar dugu, ta gizatasunaren kontra doana baztertu. Euskera ta gure izate konkretua besterena baino hobea edo okerragoa delakoa ez dugu defenditu behar; gure gizon izateko modu konkretua delako, baizik. Eta horretan ez dugu aukerarik; hori ez da txaketa aldatzen den bezala alda daitekean zerbait.

Datozen egunetan gure problema nagusienez mintzatuko gera; esate baterako: emigrazioak eta, Euskal Herrian bizi izan arren, euskaldun ez den edo euskeraz ez dakien zati haundi horrek planteatzen digun problematika aztertuko dugu bihar. Eta, hurrengo aldian, euskal-kultura zertan dagoen eta euskaltasuna humanismu bat den ala ez eta humanismu hori zertan dagoen ikusten saiatuko gera. Eta horretarako muga batzuk jarri behar ditugu.

Nahikoa hitz egin dugu bakoitzak konkretu-konkretuak izan behar dugulari buruz. Beraz, orain aurrera joko dugu.

### *Herri-kontzientzia edo elkarren arteko berdintasuna*

Bata bestearengandik oso diferenteak gera; baina zenbait gauza elkarren antzekoak ditugu: zenbait kondizionamentu, zenbait materia berdinak ditugu: geografia-aldekoak, historia-aldekoak eta abar. Eta hori nolabait zehaztutzearren, mugatzearren, Euskal Herriari lotuko gataizkio. Baina gure historiaren eboluzioa zehar izan duen esan-nahian artuko dugu Euskal Herria.

Euskaldunok beti sentitu izan dugu bata bestearenganako elkartasun bat; elkartasun hori, batez ere, kondizio berdinak, material berdinak, geografia eta historia berdinak osatu dute:

herri guziek, pertsonak bezala, ba dute memoria bat; eta memoria bat berdina izateak egin eta egiten gaitu herri bat.

Beraz, Euskal Herriaz mintzatzean, ez dut aipatuko ez nazio bat, ez estadu bat, ezta gainontzekorik ere. "Herria", neretzat, hau da: kondizio, geografia ta historia berdinean sentitzen diren pertsonen osatutako elkartea. Bereizkuntza honek ba du arrazoirik: "Euskal Herria" hitz hau "nazio" hitza sortu aurretik ere erabili izan dute euskaldunek. "Nazioa" hitz eta ideia modernu bat da, Frantziako Erreboluzioarekin batera sortua. Eta XIX gizaldiaren hasieran, eta askozaz lehenago ere, euskaldunek ezagutzen zuten beren arteko elkartasun hau, Euskal Herria bezala ezagutu ere. Euskaldunak ez dira askotan estadu berdinetan bizi izan; hala ere ba zuten euskaldun guziek batasun bat, nolabaiteko batasunaren kontzientzia.

Orduan, eta ia gaurko hitzaldi astun hau bukatzeko, zein da gure eginkizuna? Gizon izan eta gizon egin! Baina gizon izatea eta euskaldun izatea ez dira bi gauza diferente, gauza berdinak dira. Nik ezin dezaket nere baitan dibisio bat egin: hemendik honeraino euskaldun eta handik haraino gizon; nere gizon izateko modua euskaldun izatea da. Ni euskaldun naizela esaterakoan nere gizon izateko modu konkretua nolakoa den adierazten dut: gorputzaren aldetik, geografiaren aldetik, gauza guzien aldetik. Beraz, hori ez da guk aukeratzen dugun zerbait, gure kondizionamentua baizik, gure gizon izateko modua. Modu hau, ordea, ez da itxia; irikia da, osatzen joan behar duena, eboluzio bat bizi behar duena. Eta honetan euskaldunok arrisku haundiak ditugula aitortu behar dugu.

Euskal Herriaren historia zehar, euskaldunak ez du behin ere euskaldun izateko egokitasuna osorik izan; garai haretako gizonaren irudi eta izateko era konkretuetan, alegia. Esplikatuko natzaizue. Ba dakizue zibilizazioaren ideia eta hitza erromatarren eta grezitarren garaian jaioak direna. Hurian, ziudadean, bizi zen

gizona zen zibilizatua. Huritik kanpo bizi zena barbarua, zibilizatu gabea zen: baserritarra, basoan bizi zena. Gero kultura-gizona eta zibilizatua izateak latinu izatea esan nahi zuen: natiboa izatea, latina jakitea, Erromako ohituretan bizitzea.

Gure Herrian, kristautzea sentidu horretan egin zen. Dakizuenez, Eguzkialdeko, Orienteko, Elizak lurralde berriak kristautu zituenean, herri bakoitzaren izaerari jarraituaz kristautu zituen. Mendebaleko, Okzidenteko, Elizarentzat, berriz, Erromako Elizarentzat alegia, kristau egitea ta latino egitea gauza berdinak ziren: kristauak egitean, latinoak egiten zituzten... Euskal Herrian ere beste horrenbeste gertatu zen.

Honegatik, diborzio gisako zer bait, desegokitasun bat agertzen da: gizonaren eginkizun konkretuen eta orduko kristautasunarekin batera sortuko diren instituzioen artekoa, alegia. Hori dela-ta, modelu arrotz bat proposatuko diote euskal gizonari...

Baina gure problematarik garratzena, gaur eguneko sako-  
nena, XIX gizaldian sortzen da. Orduan Euskal Herria industrializatu egiten da, eta geroztik, Euskal Herriak, euskaldunok, ez dugu aukera egiteko biderik izan; ezarri egin digute izate-modua: gurea utzi erazi eta beste bat eskaini.

Beste referentziarik ez genuelako, askotan, gehienetan aspalditxotik, zera uste izan dugu: euskaldunon proiektua, euskal gizonaren eginkizuna, lehengo euskaldunen gizon izateko modua berpiztea, egun hauetaratzera zela. Benetako euskaldun izatea baserritar jator izatea zela uste genuen; antzinako gizon izateko modura bihurtu nahi genuen. Baina, jakina, hori ere gizatasunaren kontra doa: nik ez dut inork egindako zer bait berriz egin behar, besteak izan diren modura nik ere izan behar: nik neure eginkizuna bilatu behar dut, neure kondizionamentu konkretuek eskatzen didatena.

Gure eginkizuna gure burua osatzea bada, ezin dezakegu onar joera hori, lehengo gizona berpiztea, alegia; lehenago ere



esan ditugun bi dato horiengatik: batetik, gizona zerbaít egina delako eta, bestetik, bukatu gabea; bukatu gabe daukan hori gizon bakoitzak egin behar duelako, bakoitzak osatu behar duela-ko bere burua.

Beraz, euskaldun izateak zera esan nahi du: gure kondizionamentuak, gure konkretutasunak, ezartzen digun modua gure eginbehar dinamikoarekin bat eginik daramazkigula.

Berriro esaten dizuet: puntu hau oso inportantea da; batez ere, bihar ikusiko duzue, emigrazioari eta gaur egunean Euskal Herrian planteaturik daukagun problematikari buruz behar bezalako erantzuna ematerakoan. Euskaldun izatea ia erabat zehaztutako eta egindako zerbaít dela pentsatzen badugu, ez gera emigrazioak planteatzen digun problematika entenditzeko eta, are gutxiago, soluzionatzeko gauza izango.

Gizonaren izatea irikia da, ez da bukatua. Bestalde, euskaldunak gera; hau da: gizon konkretuak gera, ez ordea erabat eginak: neurri haundi batean egin beharrekoak. Egin behar horretan, eta egin behar horretatik bakarrik, eman genezaike aurre etorkinei eta etorritakoek planteatzen diguten problematikari.

Ez dakit zenbaiteraino adierazi dizuedan esan nahi nuena. Ba dakit gai hauek, edo modu honetara behinepein, gutxi erabiliak direna. Denok lanera etorriak gerala uste dut; eta, gauza hauek honela lehenbiziko aldiz planteatzen direlarik, zailtasun haundi bat sortzen dela dudarik ez dago. Baina biharko arazoa behar bezala uler dezagun, honekin geldi gaitezen; gure gaur eguneko problematika guzia behar bezala entenditzeko, derrigorrezkoa dugu gizona eginkizun bat bezala ikustea; ez ordea eginkizun absolutu bat bezala, hasiera bat eta muga batzuk bait ditu. Euskaldun izatea da, hain zuzen ere, gure hasiera eta gure mugak; baina ez da bukatutako zerbaít, egin beharrekoa baizik.

## INMIGRAZIOA EUSKAL HERRIAN

### *Euskal gizagintzari buruz zenbait puntu*

Atzo esaten genuenez, ez dakit gogoratzen zeraten, gizona eginkizun bat da, eta ez bukatutako izaki bat; oraindik osotu gabea da. Animaliak, harriak —gizona ez beste guztiak— izaki osatuak, erabat egindakoak, eginak zirela esaten genuen atzo; hitz batean esateko, itxiak. Gizona bakarrik da mundu honetan izate irikia, oraindik egin gabea, bukatu gabea, bere burua egin lezakeen bakarra. Animaliak ezin lezake erabaki —gutxiago harriak— berak nola izan behar duen. Gizonak, ordea, hori egin dezake, eta horretxegatik da gizona. Hori ez balu, ez litzake gizon izango, gauza bat, animalia bat baizik.

Bainan gizona egin beharreko eginkizun bat bada, ez da egin behar egiteko absolutu bat, hasiera eta muga batzuk dituta. Ni ezin ninteke edozein gauza izan; nik ba dut era batekoa edo beste erakoa izateko aukera bat, eta ez erabat era batekoa edo bestekoa izateko. Nik ez daukat absolutuan edozein gauza aukatzerik, behartua nago nire hasierak kontuan hartzera. Horixe zen atzo esaten genuena.. Hori, bada, kontuan izaki, azter dezagun gaurko arazoa.

Atzo esaten genuen baita nola euskaldun izatea guretzat gizon izateko modu konkretu bat den ere: ez dago guregan gizon izatea eta euskaldun izatea bakantzerik, banatzerik, bi gauza diferente egiterik. Ezin esan dezakedala, genion, nigan “hemendik haraino gizona naiz, eta handik ez dakit noraino gizon euskalduna”; nigan ez dira diferente bi gauza horiek.

Horretaz, gure azterketa nonbait zentratzeko, Euskal Herria

hartzen genuen neurri bezala. Eta Euskal Herria, berriz, herriak erabili izan duen sentiduan. Alegia, esaten genuen, nola “Euskal Herria” hitz hori, nazioaren ideia eta hitza, estaduaren ideia eta hitza sortu aurretikakoa den. Nola euskaldunek beti ezagutu izan duten beren arteko kidetasuna, beren arteko elkartasun hori, nahiz beti elkartuta ez bizi izan.

Gure pentsamentua, beraz, gure gaurko azterketa —hori nahi genuke gaur egin— Euskal Herriaren barnean egiten dugu: Euskal Herria frontera, eta Euskal Herria errealdade konkretu horren barnean.

Zera genion atzo: ba dabiltzala gure artean makina bat galdera, esate baterako:

Zer da euskaldun izatea?, zertan datza euskaldun izatea?, zertarako euskaldun izan?, zertarako, zergatik euskeraz hitzegin?

### *Lehen aprosimazio bat*

Guk euskalduna zer den definitu behar bagenu, apuro haundi batean aurkituko ginake segurasko. Zer egingo, ordea, horretarako? Zuek har zazute edozein hiztegi: ez dago euskerazkorik. Ba dago hiztegirik bai, baina euskerazko hitzek erderaz zer esan nahi duten eta erderazko hitzek euskeraz zer, diotenak bakarrik; ez dago, ordea, euskaldunik eta euskeraz, euskalduna zer den esplikatzen dizuen hiztegirik.

Bainan erderazkoa —frantzea edo espainola edo inglesa— hartu eta “euskalduna” jartzen duen lekuan zera esango du: “Euskal Herrian bizi dena”... Hasi gaitezen aprosimazio hone-tatik.

Gaur egun, dudarik gabe, definizio hau ezin daiteke besterik gabe onar. Izan ere, definizio horretan sartzeko zailtasun haundi bat dakarten hainbat eta hainbat jende bait dago Euskal Herrian.

Hori sentitzen da behinik behin gure artean. Euskalduna Euskal Herrian bizi den guztia baldin bada, halako larri bat sortzen zaigu gure usteetan. Baina, dudarik gabe, hau aprosimazio bat da.

Orduan, hor bi banaketa haundi daudela ikusiko duzue. Euskal Herrian, batetik, lehendik historia berdina dugunok eta, bestetik, oraingoa eta gerokoa berdina izan dezakegunok. Esplikatuko naiz. Begira gure gizartera, Euskal Herria den geografi honetara... Eta ba dira batzuek, etorri berriak direnez, historia gu-rearekin bat ez dutenak, beste historia baten parte egiten dutenak. Pertsona bakoitzak oroimena, memoria, daukan bezala, herriak ere, herri bakoitzak ere, ba du bere oroimena; ba du bere memoria. Beraz, Euskal Herrian bizi geranon artean, batzuek, hemento jatorria dugunok, elkarrekin hori dugu berdina: historia, lehena, pasatako garaia. Guk gureak bezala senti izan ditugun horien ondorengoak geraldako.

### *Euskaldun ta euskotar*

Aberri euskalduna deitzea ez da egitazko gauza bat. Garai batean bai noski: Euskal Herri osoa euskalduna zenean. Gaur egun ordea, ba dakizue euskaldun hitzak zer esan nahi duen: euskeraz dakiena, gehienbat behintzat.

Horrela bada, euskalduna euskeraz dakiena bada, ba dira, bestalde, Euskal Herrian bizi direnen artean —hainbat eta hainbat eta hainbat!— Euskal Herriko seme jator direnak, beren jatorria Euskal Herrian dutenak, euskal historian sartuta daudenak, haien ondorengo direnak: napar asko, arabar gehienak, beste horrenbeste Bizkaian. Hemen jaio eta euskal arbasoen seme jator direnak, eta euskeraz ez dakitenak.

Baina, bereizkuntza bat egin izan da hauen artean: euskotarren eta euskaldunen arteko bereizkuntza. Sabino Aranek sortu

zuen dibisio hau. Euskotarrak, zeintzuk dira? Euskal seme jatorrak izanik, euskeraz mintzatzen ez direnak. Eta zein, euskaldunak? Euskeraz hitzegiten dutenak.

Bereizkuntza hau gaztelera jatorrean ere erabiltzen da. Gaur zera gertatzen da, banderizo askok hartu dituela bereizketa horiek gaztelera jatorrean. “Baskongado” euskeraz dakien euskalduna da: “el vasco que sabe hablar el vascuence”. Eta, “vascongado” eta “vasco” berriz: “el vasco que no sabe hablar el vascuence”.

Guzti hau egiztatzearren adibide bat ekarriko dizuet; neroni gertatua behin. Ni Bilbo-ra esaminatzera joaten nintzenean, han egon ohi nintzen etxeko atezaina Bermeo-ko alaba jator bat zen. Erderaz, apenaz bazekien... Behinola; zera galdetu nion: etxera berandu iritxiz gero eia nori eskatu behar nioken ateko giltza, eta aldameneko atezainari eskatzeko erantzun zidan. Baina, erderaz ari zenez, honela esan zidan: “porque él también es vascongado”. Eta ni harrituta gelditu nintzen, ez baidugu gure artean “vascongado” hitz hori erabiltzen; baina are gehiago harritu eta arrotz egin delako hitz hori, euskeraz apenaz zekien emakume batengandik entzutean. Biharamonean Bilbo-ko jakintsu batekin arkitu nintzen eta galdera horixe egin nion: aizu, hau ta hori gertatu zait; zergatik da horrela? —Erderan, gaztelera jatorrean, herriak gaztelera hitzegin du. Eta “baskongado” hitza euskeraz dakien euskotarrari dagokio, euskalduna dela adierazteko. Orain, historiaren buruan, ez litzake komeni honela erabiltzea, politikan asko sartua bait dago bere izketa hau. Kontraposizioak egitea, etsaiak sortzea litzake “baskongado” batetik eta “vasco” hutsa bestetik, eta horrelako gauzak ametitzea.

Baina euskeran egiten dugun banaketa horrek ba du bere zera erderaz: euskotarrak, jatorriz Euskal Herrikoak, baina euskeraz ez dakitenak, eta euskaldunak, euskeraz dakitenak. Baina bi talde hauek, lehen esan dugun bezala, ba dute elkarren arteko kidesasun,

elkartasun haundi bat: historia berdina izatea, oroimen kolektibu hori berdina izatea.

Atzo, gizonak hasiera bat eta muga batzuk ba dituela esaten genuen. Eta gaur, bai euskotarren eta bai euskaldunen arteko hasiera-mugak zein hasiera eta zein mugak diren dakusgu. Ba, historia hori, oroimen hori, hori ahantz daitekkelako, eta guk definitu behar duguna gizon konkretua baldin bada, eta gizon konkretutik hasi behar badugu, eia bi hauetan alkarrekin duten zerbait arkitzen dugun: historia, jatorriz Euskal Herrikoak izatea.

### *Etorkinak*

Bainan gaur egun Euskal Herrian bizi direnen artean ba dira beste asko. Hemen jaioak ez direnez edo jatorriz hemengoak ez direnez, gurekin batera historia ez dutenak. Kanpotik etorriak badira, ezin dezakete beren historia gurearekin bat egin; zuzenak dira etorkin hauek. Hoi en arazoaz behar bezala neurtzeko, aurretik garbitu behar ditugu puntu batzuek.

a) inmigrazioak sortu duen poblazio aldaketa.

Lehendabizi, hasteko, eman genezake baiespen hau, nahiz eta berez jeneralegia izan, hau da: lurralde bat azkar industriaduz hasten denean, poblazioan ere berehala gertatzen direla aldaketak. Eta hau ez Euskal Herrian bakarrik. Edozein lekutan lurralde bat azkar industriaduz hasten denean, kanpotik jendea ekarri beharrean arkitzen da. Baiespen hau, bada, har dezakegu lege jeneral bat bezala, fenomeno hori nonahi gertatzen bait da. Baina diogun hau egia bada, baita egia da Euskal Herriko poblazio aldaketa hau beste era batera egin zitekeela ere.

Izan ere, kontradizio haundi bat dago zera honetan. Euskal Herriko alderdi bat azkar industriaduzarekin eskulanaren beharrean arkitu da. Baina euskal herrietatik batzuk lanaren bila kan-

pora joan beharra izatea eta behin bitartean Euskal Herriak bere herriez kanpoko langileak ekarri behar izatea, hori, hori kontra-dizio haundi bat da.

Kanpotik Gipuzkoara eta Bizkaira langilerik etortzen jardun den bitartean, Naparroatik eta beste aldeko Euskal Herritik milaka euskaldunek lan bila joan behar izan dute. Beraz, industriadun guziak, eta industrietan azkar eta sakonak batez ere, poblazio aldaketak ekarri dituela, hori egia bada, beste hori ere bai: Euskal Herrian gaizki egina izan dela aitortu beharrean gaude. Eta atzo esan genuena ondo aztertuz gero, ez ginake hori horrela gertatzeaz batere harrituko. Hain zuzen ere, zera galdetzen genuen, eia gizona ala errentabilitadea den kriterio gu bizi geran sistema eta gizartean... Ez ziren behin ere zer zen komeniago pentsatzen jarri; ez da behin ere herriaren interesa begiratu izan.

Izan ere ederki ikusiko dugu, Euskal-Herriaren historiari begiratu, nola 16-17gn. menderarte Euskal Herriaren historia, eta historiaren zorrotz-harria hego alde izan den. Euskal Herriaren alderdi atzeratuak berriz, Gipuzkoa eta Bizkaia izan dira luzaroan. Bainan 19gn. mendean joera hau aldrebestu egiten da, eta lehen euskal hiriak, huriak, eta Euskal Herriko bizitarik indartsuena Iruine, Gazteiz eta Baiona-n zetzan bezala, 19'gn. mendean hasita, indar hori Gipuzkoa eta Bizkai-ra pasako da eta industria gogorrena ere horietantxe gertatuko.

Orduan euskal lurralde hauek besteen erlazioan gehiegi aurreratuko dira, aberastuko; eta bestek, lehen aurreratuen eta aberatsen zirenak, berriz, atzeratuko. Eta horrela, hemengo langile beharra etxeokarekin ase orde, kanpotik ekarriaz erabaki da. Hori, edozein planteamentu egiterakoan, ezin daiteke inola ere ahantz.

Jakina, historia ezin daiteke berriz atzera jo eta zuzendu; ez dago historia berriro egiterik; historia aurrera doa. Eta gaur egun zenbait errealidade datu bezala hartzen baditugu ezin gene-

zake inola ere, egin diren zenbait gauza, beste era batera egin zitezkeela ahaztu.

b) bi etorkin talde.

Bainan... azter ditzagun hemen daudenak. Lehenbizi bana-keta haundi bat egin behar da honuntz etorri direnen artean: agintedunak eta langileak.

Lanera etorri direnei buruz galdera bat egin behar dugu eta, nik uste, guztion mingainetan dugu galdera hori.

Teoria aldetik soluziorik errexena: bihoaz beren sorterrietara. Baina abstraktuki hitz egiteak arrisku handia du-ta, goazen konkretuki hitzegitera.

Alde batetik hauek beren herrietatik alde egin behar izan badute, edota, bestetik, beren herrietatik atera egin badituzte —bi era hauek gerta bait daitezke emigrazioan— leku horietan ezarritako sistemak, ezarritako gizarteak, gizon izateko posibilitodetik eskaintzen ez zielako izan da noski.

Egin dezagun, orduan, lehendabiziko galdera. Kanpotik etorri den batek, esate baterako, ejenplu konkretu bat jartzeko, zenbateraino esan lezake “ni estremeinoa naiz, edota ni Soria-koa naiz”, zenbateraino?... Beharbada gogorregia irudituko zaizue baina 1848-ko agirian ba da guri argi asko egingo liguken frase bat: ‘Langileek ez dute aberririk. Ijito batzuek soro batean daudenean, nork dio soro horretakoak direnik?’...

Gizon bat, beraz, sorterrian gizona ez-ezik, gauza bat ere izan baldin bada, eta gauza bezala tratatu badute, nola aitor dezake hangoa denik? “Han jaioa bai, baina han ez naute gizon bezala tratatu. Horregatik alde egin behar izan dut. Han ez nuen gizon bihurtzeko posibilitadetik, eta batetik bestera ibili izan banaiz, gizon izateko lehenbizi beharrezko diren posibilitadetik txiki-nak izatearren, hartzearren, lortzearren izan da”. Bainan, hala ere, eta zerbaitegatik diot hau, asko hitzegiten dugu haien kul-



turaz, eta gauza arriskarria da horien kulturaz hitzegitea, esan dudan horretxegatik, hain zuzen.

Dударик gabe hauek ere, beste lekuetatik honuntz etorri diren gizon hauek, ba dituzte beren kondizionamentuak; hau da, neurri batez eginak daude, ez beren biologiaren aldetik bakarrik, berak bizi izan diren gizarte aldetik ere bai. Hau da, ba dituzte berak bizi izan diren gizartean ikasitako hala-moduzko ohitura, erregla batzuek. Bizi izan diren gizarteak era honetakoak, era horretakoak egin ditu. Maila bateraino eginak daude, ez dira oraindik gizon guztiak bezala, gizon bukatuak; gizatasuna oraindik galdu ez dutenez gero, gizon irikiak dira oraindik, aukeratzeko posibilitadeekin daude; baina, bestalde, maila bateraino eginak daude.

### *Euskaldunak eta euskera*

Banaketa hau egin ondoren, bada, azter dezagun zer den, edota zer litzakeen, euskaldun izatea. Nik, egia aitortzeko, galderatik gehiago daukat erantzunetik baino: ez uste, beraz, argi gehiago egingo dizuedanik. Eta, horretxegatik beharbada, zera izango litzake komenien: euskera neurri bezala hartu. Esplikatuko naiz. Dударик gabe, pertsona ez du euskerak egiten, euskerak egon behar du gizonaren morrontzan, edota euskerak, eta ez gizonak, euskeraren morrontzan. Baina gaur egun, euskera seinale bat, sinbolu bat bihurtu zaigu. Atzoko hizketa-aldian genionez, gaur eguneko gizarteak giza molde batzuk, gizon izateko modu batzuk jarri nahi dizkigu. Ez digu giza molde hauek guk gerok egiten uzten, ezarri baizik egiten digu giza molde bat. Eta hori gizatasunaren kontra doala esaten genuen atzo ere. Izan ere, honetantxe zertzen genuen gizaera: gu gizon bagera, gu izateko moduak, geren burua osatzeko aukera ahal izatean. Horretantxe zegoela generizkion gizatasuna, gizon izatea; horretantxe zegoela

gure burua osatzeko modua. Bainan, gure gizatasunaren kontra zihoela genion gure burua osatzeko modu horiek jartzea, onarraztea. Eta gure eguneroko errealidade guztietan, gure eginkizun guztietan giza molde bat bortxaz ezartzearen adibide bezala euskera-arazoa genekarren.

Euskera es dugu gure eguneroko arazoetatik, gure problematika guztietatik baztertu behar: euskera bait da, hain zuzen, gertatzen ari zaigun gauza guztien neurririk onena.

Horretxegatik bada, gure gizagintza, geren buruen osaketan geranetik hasi behar dugunez —eta euskaldunak gera gu—, euskeraz egitean egongo da. Baina, zer gertatzen da hemen? Euskaldunok —hau da, hitzaren bere jatorrian, euskeraz hitzegiten dugunok— ez dugu Euskal Herriko gizarte osoa egiten. Euskal Herrian bizi direnen artean gutxienak ez bagera ere, erdiak gera gehienez. Baina, nik nire burua euskaldun bezala, euskeradun bezala osatu behar badut, derrigorrezko dut giroa euskera-dun izan dedin.

Zergatik zaigu gero eta zailago euskeraz hitzegitea? Ez euskera-dun, erdaldun baizik, dugulako giroa.

Nik lanerakoan hizparrinkia euskeraz irakurriko banu, kaletan anuntzioak euskeraz ikusiko banitu; irratia eta telebista euskeraz entzun eta euskeraz ikusiko banitu; pelikulak, abestiak, legeak eta eskolak euskeraz baleude, ez litzake batere kostako euskera gordetzea.

Bainan errealidade guzti horiek erderaz daudenez gero, gero ta burruka haundiagoari eutsi behar diot euskerarekin jarraitzeko. Hori, bakoitzak geron baitan nabari dugun gauza da.

Euskera, beraz sinbolu eta neurkin bezala, termometru bat bezala hartu behar dugu. Ez, alegia, errealidade osoa eta bakarra bezala, neurkin bat bezala baizik. Derrigorrezkoa dugu, eta barka hitzaren gogorra, euskera dugunok inperialistak izan beharra. Esplika nadin. Gizarte guztia, hau da, Euskal Herri osoa, euske-

ra-dun iritxi dedin arte ezin esan genezake euskeraren problema konponduko dugunik: korriente kontra ibiliko gera bitartean, itotzeko zorian.

Derrigorrezkoa dugu bai, beharrezkoa, gure gizagintza behar bezala burutzeko giro euskalduna dezagun. Ezinezkoa da, bestela, gure burruka; eta horretantxe jo behar du gure burrukak.

Bi arrisku gerta litezke orduan: batetik, gu bizi geran zirkunstantziak ikusirik gure baitan istea —eta hau guretzat arrisku handia izango litzake— \* prinsipio hau galtzea, alegia Euskal Herriaren barruan nahikoa dela batzueri beren erretzasunak ematea, ba euskeraz hitzegiten segitzeko eta gainerantzekoak, ez hori ezin lezakegu behin ere onartu.\*

Euskal Herri guztia euskaldun izatera iritxi ez den artean, ezin esango dugu hori konpondu daitekeenik.

Bainan guk gure gizagintzarako derrigorrezko dugunez, ezin genezake hori alde batera utz, ezin dezakegu puntu horretan atzera egin.

Orain ikusiko duzue noski zenbaterainoko inportantzia duen gizon irikia izateak, gizona burutu gabeko izaki bat izateak, edota, gizonaren izaera bere buruaren egiten egoteak.

### *Euskaldundu al daitezke etorkinak? Nola?*

Erantzun dezagun garbi etorkinetan dagoen problema. Euskaldun izan al litezke hauek, eta zertan datza hauen euskalduntzea?

Atzo genionez, euskal humanismoa, euskal gizona, ez da repetizio bat, ez da lehen izandakoa berpiztutzea: ez konkretu geranetik hasiz gero zerbait egitea —eginkizun bat osatzea—, ez berpizte bat.

---

\* Zer esan nahi lukete parrafo honetako lerroek? Zintatik jaso zuenak eman zuen bezalaxe uzten dugu.

Zer gertatzen da, bada, orduan? Hara: bai euskaldunok, hau da, hemengo jatorria dugunok, bai etorkinak, ezarritako sistemen gaitzarekin arkitzen gerala gure gizagintzarako.

Zerbait adierazi genuen, atzo, eta ez noa hori probatzera; baina, hala ere, baiespen bat egingo dut: gure gizarte honek gaur ezarrita dauzkan mugekin, gizarte honen neurri gizona ez denez gero, izugarritzko eragozpena eta zailtasuna arkitzen dugu gure gizagintzarako.

Izan ere, gure gizatasuna ukatzen digun gizarte honek proposatu eta ezarri egiten digu nolakoak izan, eta, jakina, horrekin askatasuna kentzen digu hemen bizi geran guztioi. Ba dugu, beraz, kidetasun bat hemen bizi geranon artean, bai euskeraz egiten dugunon artean eta bai gizarte honetan gizon izateko posibilitaderik ez dugunon artean. Baina, hala ere, gizarteak nahiz euskaldunei nahiz besteei ez utzi gizon izaten, ezin dezakegu ahaztu hasiera desberdinak ditugula; erderazko delako "punto de partida" hori diferentea dugula. Batzuek historia dugu berdina; besteek berriz, ez dute hori. Segurasko gerora etorkizuna elkarrekin izango dugu... Baina geroak dibiditu egiten gaitu.

Horregatik, ezin al dezakegu galde gizona bezala gizartea ere zerbait egindakoa, bukatutakoa ez-ezik, zerbait egin beharrekoa ere ez ote den? Eta, gure gaurko gizarteak gizon izaten uzten ez digunez gero, gizarte hori —gure gaurko egunetan gizatiar deritzan gizarte hori— ez al dugu gizon izateko posibilitaderik ez dugun guztion artean egin beharrekoa?... Horretantxe dago, nik uste, arazo guztia. Zera esan dut lehenago: gure aldetik, euskaldunon aldetik, ezin dezakegula inola ere gure gizagintza alde batera utz. Gu gerala, nion; ezin dezakegula inola ere ahaztu gure konkretutasuna. Hain zuzen, konkretutasun horren barnean sartzen denez, euskera hartzen dugula sinbolu bezala, neurri bezala.

Baita esan dugu, gizarte guztia, eta ez zati bat (Euskal Herri

osoa, beraz), euskera-duna iritxi ez dedin artean ezin esan deza-kegula konpondu denik gure problema, itota arkituko bait ginake luzarora.

Hau onartzen ez dutenak gizatasunaren aurka doaz, ez digute gizon izaten uzten. Garbi dago, nik uste, hori.

Garbi jarririk, bada, puntu hori, ondoren bat dator hortik: Euskal Herria denen artean egin beharreko gauza bada —eta puntu hau onartu behar da—, hala behar dute egin honetan konforme dauden guztiek; bestela, alperrikakoa litzake lana. Eta, horretxegatik, etorkinek ere, langileek, Euskal Herria egiten dute beren izardiarekin. Izaki irikiak direnez gero, eta hemengoarentzat derrigorrezkoa denez, Euskal Herria erabat euskera-duna izan dedin, horiek ere onartu behar dute guzti hau. Orain, era konkretu hori nola burutu, egin, hori beste taktikaren diskusioa da. Hemen prinsipio hortaz besterik ez gera ari, eta hori onartu beharrean gaude.

Eta honela, atzokora noa berriro: gizonaren izaera gizagintza baldin bada, nahiz hasierak diferenteak badira ere, eginkizun bat —egin beharra— egin dezakegu berdina. Gizartea guztiok egin behar badugu —menderatutako horien artean historiak batzuk besteengandik banatzen bagaitu ere— eginbeharrak eta etorkizunak eratorri egiten gaitu, bakoitzaren errealidadea ahaztu gabe noski.

Bainan euskaldun izatea, esaten genuen, ez da erabat egingdako gauza bihurtzea, ez dago euskaldunaren definizio itxi bat. Eta hauek kondizio batzuek, zerbait erakusten diguten, adierazten diguten puntu batzuk besterik ez dira. Bainan... euskaldun izatea, zer da? Euskaldunak ez dira gizon itxiak, Euskal Herria ez da gizarte itxi bat. Euskalduna eta Euskal Herria egin behar bat bakarra da, eta hortixe bakarrik letorkiguke soluzioa; itxiak bagina, ez legoke batere konpontzeko modurik: batak ala besteak, litzake.

Etorkinek guri herrigintza horretan hasiera eskatuko baligute, hori gure kondizionamentua ahaztutzea litzake, eta gizatasunaren kontra lijoake.

Hauek beren eginkizunean inola ere ahaztu ez lezaketena zera da: ba dutela berak ere zera bat: hasiera bat, kondizionamentu bat, bai fisikoa, bai buruarekikoa, eta baita pentsamentuarekikoa ere. Bainan honuntz etortzerakoan, hemen lanean hasteko eta beren etorkizuna hemen planteatzerakoan, beste kondizionamentu batean, beste muga, beste karril batean sartzen dira.

Ez balira hortaz konturatuko beren gizatasunaren aurka jokatu lukete. Hemengoan kontra jokatzekoan beren interesen kontra jokatu lukete. Bai, beren interesen kontra. Zergatik hori? Era horretara jarrita dagoen sistemaren alde, ekonomiaren alde, gizartearen alde jokatu luketelako. Eta gizarte hori ere haien konkretutasunaren aurka doan gizarte bat delako.

Eta honekin bukatzen dut gaurko hitzaldia.

## KULTURAZ MINTZATUKO GERA

### *Desegokitasun bat*

Orain dela bi urte eman nuen beheko Zentroan, Ostegun Santu egunean, hitzaldi bat. Han zirenetakoren bat gaur hemen gertatzen bada, kontuan hartu, ez duela batere gauza berririk, entzungo.

Lehendabizi, kulturaren desegokitasunaz mintzatuko geranez gero, desegokitasun horrekin zer entenditzen dugun esan dezagun.

Gizon baten hazitzean, ez gorputza bakarrik, baizik eta bere izaera, bere pentsaera hazten doaz neurri berean. Baldin eta gizon bat, bera edadez hazia izanik pentsamentuan atzeratuta gelditzen bada, gizon mokola dela esaten dugu, gizon atzeratua, gizon hori erotzat hartzen dugu. Gorputzez berrogei urte eta espirituz zortzi urteko ume baten antzekoa den gizona anormala da. Desegokitasun bat dago bere espiritu eta gorputzaren artean. Biak ez dira batera joan.

Adibide honetaz baliatuko gera, euskal historian gertatu direnak aztertzeko.

Beraz, gorputza, gizonarengan materiala dena, naturalezkoa dena, eta naturaleza gainezkatzen duena, guk jeneralean, espiritua deitzen dugu. Bien artean neurri bereko hazitze bat ez badu, desegokitasun bat sortzen da eta gizon anormala izanen da. Herriekin ere beste horrenbeste gertatzen da. Herri bat gorputzez oso hazitzean, espirituz neurri berean hazten ez bada, desegokitasun bat sortzen da. Ez da hazitze egokia, hazitze desegoki bat da. Esplikatuko naiz: kontuan gizon bat hartuaz gero, esaten ari naizen hori argi ikusiko dugu. Herriak ere zenbait gauzetan, gizonen modukoak dire, gizon pertsonalen antzekoak; jai-

tza bat dute, hazten doaz, batzuk hil egingo dira, besteak aldatu. Herri bat bere gorputzari, bere materialtasunari buruz hezitu, eta neurri berean bere espiritua hazten ez bada, gaitz haundi bat gertatuko da hor.

Zer da herri batentzat gorputzez, materiari buruz hazitzea? Teknikaz aurreratzea. Ta Euskal Herrian gaitza kulturaren alde-  
tik, hortxen datza. Bere materiari buruz, bertan dagoen teknikari buruz bere zibilizazioari buruz Euskal Herria industrializatutako gizarteān bizi da. Baina Euskal Herriaren gorputza, Euskal Herriaren teknika, zibilizazio industrial batean bizi izanik, ez dugu hemen Euskal kultura industrializatu bat arkitzen. Ta hori behar bezala neurtzeko, euskal historiari begiratu bat egin behar diogu.

Lehendabiziko egunean esaten genuen gizona zela natura-  
lezaren eboluzioan sortutako azkenengo izatea, bainan izaterik osatuena, onena. Guzien gain zegoela. Herriak ere, gizonaren historia ikustea aski du gizona ez dela gaur bezelakoa jaio ikus-  
teko. Gizona ere asmaketan joan da, eta horrela sortu ditu teknika berriak. Gutxi gora-behera, gauzak asko sinplifikatzeko, gizo-  
naren historia lau etapetan bana dezakegu. Lehenengo ehizta-  
ritzarena, bigarren artzaintzarena, hirugarren nekazaritzarena, ta laugarren industrializazioarena.

### *Giza-kondairaren aldiak*

Gizona munduan sortu izan zenean, ez zuen harek surik ezagutzen, ez zuen kurpilik ezagutzen, horiek gizonaren historia-  
ren barruan arkitzen diren gauzak dira. Gizona zertaz bizi zen: ehizetik, eta horrelaxe mila urteetan, gizonak ez zuen etxerik, ez lurrik, batetik bestera zebilen ehizaren atzetik, eta hori milaka urteetan. Gero poliki poliki ikasi zuen gizonak animaliak hezitzen,



domestikatzan, bere mendeko egiten. Eta orduan egin zen artzai, eta horrela ere beste milaka urteetan.

Gero eboluzioa jarraituz ez animaliak menderatzen, baizik eta bere lurra lantzen ere ikasi zuen gizonak.

Horrela bihurtu zen nekazari. Ta gero azkenean naturalezan izkutaturik dauden indarrak manejatzen ikasi zuen: baporra, ikatz indarra, argi indarra eta gainontzekoak. Eta industrietako gizon bihurtu zen. Horretan ba ditugu gizonaren historiaren lau etapa hauek; etapa bakoitzak zibilizazio apropos batzuk sortzen ditu. Kultura apropos batzuk. Hau da: ehiztari izan denean, artzai izan denean, nekazari eta industriatu denean ez du gizonak berdín jokatu. Ez ditu lege eta ohitura berdinak izan. Beraz hazitze bakoitzarekin, gorputzaren hazitze bakoitzarekin, eta gizonak ehiztari izatetik artzai izatera, eta artzai izatetik nekazari izatera pauso bat eman duenean, herria gorputzez hazi egin da, teknikaren aldetik aurreratuago arkitzen da eta espiritu aldetik ere berdín gertatzen da.

Garai bakoitzean zibilizazio bat gertatzen da, eta horregatik ba da artzai zibilizazio bat, ehiztari zibilizazio bat eta horrela. Euskal Herriak lehendabiziko bi etapa horiek desegokitasun gabe pasa ditu. Hau da, teknikaren aldetik Euskal Herrian artzaiak bizi izan zirenean, ba zen garai haretako kultura bat. Adibide bat bezala bertsolaritza jarriko dugu. Bertsolariek gaur egun arte iraun dute, baina bertsolaritza teknikaren aldetik estudiatu dutenek bertsolaria, gizona artzai zeneko literatura, orduan egiten zen literatura dela alegia erakusten digute. Eta bertsolariak mundu guzian izan dira, ez Euskal Herrian bakarrik, Erroman, Grezian, leku guztitan. Zergatik? Gizona artzai izan zeneko literatura bertsolaritzak duelako. Hori etsenplu txiki batekin demostra liteke: historia noiz hasten den galdetzen denean, idatzitakoa agertzen denean hasten dela esaten da. Edozein historia hartu, eta noiz hasten den historia eta noiz bukatzen prehistoria galdetzean,

idatzia asmatzean hasten dela historia esango dizuete. Orduan idaztea asmatu aurretik, ez al zegoen literaturarik? Zer da ba literatura? Gauzak, sentimentuak, ideiak ederki azaltzen, esaten, jakitea. Ez da derrigorrezkoa idatziak izatea.

Guri zail egiten zaigu hau, gaur egunean idatzitako zibilizazio batean bizi geralako. Baina artzai zen gizonak idazten ez zekien, bai ordea gauzak ondo esaten, ederki esaten, zuena hitzetan jartzen.

Orduan literatura eta idatzirik ez izanik, nola gordetzen ziren orduko literatura haiek? Liburutegirik, idatzirik ez badago, ba-koitzaren memorian egongo dira. Orduan bertsolaritzaren teknika behar bezela estudiantuaz gero, ikusiko dugu nola gauzak errezago geldi ditezten eginik dagoen.

Alde batetik bertsoak puntuz eginak daude, bertsolaritzan lerroen bukaera berdina izateari puntuak deritzaie. Gaur ere telebistako anunzioetan ikus dezakegu hori: gauza berdintsuz eginitakoak errezago gelditzen dira oroimenean. Adibidez: "Do, re, mi, Fagor, escala de confort". Zergatik egiten ote dute hori? Horiek horrela errezago itsasten direlako gure oroimenean. Kantatzea bestalde: kantatutakoak hobekiago gelditzen dira gure oroimenean. Txikitan guk denok kantatuaz ikasi genuen dotrina, eta era berean suma eta multiplikatzea. Zergatik? Kasualidade utsez? Ez. Baizik eta errezago itsasten direlako horrela gure oroimenean.

Adibide butzuk jarri ditugu, bertsolaritzak bere barnean nola, bere garaiko literaturarentzako egoki ziren teknika batzuk daramazkien ikusteko. Esan bezala, ikusten duzuen bertsolaritza adibide modura hartuta nola artzai gizonak bere garaiko zen literatura bat zerabilkien. Eta hemengo bertsolaritzaren antzera: Israel, Grezia, Turkian... inbestigatu diren zibilizazio guztietan, modu diferentetara noski. Gaur egun ere literaturak ez dira berdin literatura bilakatu Frantzian edo Beljikan edo Rusian, baina ba

dituzte zera berdin batzuk. Euskal Herrira nekazaritza heldu arte ez da batere inongo desegokitasunik sortzen. Desegokitasun hori behin nekazaritza sortzen hasten den garaian hasten da.

Oraindik ilun dira gauza hauek, jakintsu artean maiz eztabaidatuak.

Baina pentsa, esatebaterako, gaur egun gizarte arazoetan propiedadearen konzeptu hori dela burrukarik haundiena. Nola sortu den eta gainontzekoak. Gizona ehiztari zen garaian, ezin zezakean esan: lur hau nerea da, edo, animalia hauek nere dira. Instantean jantzi eta jan behar zituztenak besterik ez zuten. Gizonak ez zuen propiedadearen sentidurik; ehizaren atzetik zihoelako eta berak jan behar zuena bakarrik hartzen zuelako. Gaur egunean ere ikusten da horrelakorik Amerika, Afrika eta Oceania herrietan. Oraindik ehiztari bizi direnak, animaliak domestikatzen ikasi ez dutenak, oraindik lurak lantzen ikasi ez duten herriak. Gure herria ere hortik pasa izan dela eta beren artean dena guztiena zela adierazten digute horiek.

Artzaintza sortzen denean, gizona artzai bihurtzean, artzai batek, "artalde hau nerea da, artalde horiek zureak dira" esan zezakean. Baina lurra denena zen. Baina, jakina, ez pentsa zera batetik bestera pasatzean, zeharo pasatzen dela izate gutzia.

Euskal Herrian nekazaritza sortzen denean, ba dira oraindik artzaiak. Eta herri industrializatu batean ba da zenbait artzai ta nekazari oraindik. Eta gure legislazio eta zenbait forutan ba dira oraindik lur komunalak, hau da, herri guztia artzai zeneko lurak. Nekazaritzarekin ez dira animaliak bakarrik menderatzen, lurra ere bai. Gizona nekazaritzara artean batetik bestera dabil, ehiztaritzakoan ehizaren atzetik, artzaintzakoan larre hobeago baten bila, gaur egun ibiltzen diren bezala. Baina nekazari bihurtzerakoan lurrakin batean gelditzen da gizona, eta orduan sortzen dira etxeak; eta guk esan genezake euskal historia orduan hasten dela. Ortik datoz gure apelidu guztiak Eta gure apelidu gehienak

arbasoen lurren izena adierazten dute, gure aintzinakoen lehendabiziko lurren izenak, lehendabiziko etxea. "Nor da hori? Halako etxetakoa, halako lekutakoa". Artzaiagatik ezin esan dezakegu horrelakorik; artzaia batetik bestera zebilen, ez zen fijo. Nekazaritzarekin, esan dugu, sortzen da halako estabilizazio bat, oso gauza inportantea.

Eta orduan hasten da nolabait desegokitasun bat sortzen Euskal Herrian. Artzaintzaren ondorengo nekazaritza herriaren teknikaren aldetik oso aurrerapen haundia da. Nekazari gizonak askozaz menderatuago dauka naturaleza artzaiak baino; artzaiak animaliak bakarrik menderatzen ditu, baina nekazaritzak ba daki lurra landu eta bere menpean jartzen. Orain ez dago bere jatekoa kasualidadez arkitu zai. Berak sorrarazi lezaioke lurrari. Pauso hori ematean, akaso lau edo bost gizaldi geroago, baina garai horretan, Euskal Herria kristau bihurtzen da.

Eta orduan desegokitasun haundi bat sortzen da, beharbada ez gaur egunean ikusten diogun garrantzi haundiarekin, baina lehenengoz orduan sortzen da. Esaten nizuela, uste dut, lehendabiziko egunean, nola Eleizak, herriak, kristautu zituenen, bi postura diferentekin jokatu zuen. Eguzkialdekoak, Orientekoak, bere herria kristautzea, haien hizkuntza eta ohiturak gordeaz egiten zuen, gainera zenbait alfabetu Eleizak sortu izan ditu. Erromako edo Okzidenteko Elizan alderantziz, esan genuen nola kristau egitea eta zibilizatzea gauza berdinak ziren.

### *Industriadun kulturarik?*

Orduan lehendabiziko aldiz Euskal Herriko kulturaren diferentzia bat sortuko da. Ba dakizute, Erdi Haroan eliza-gizonak ziren jakintsuak. Orduko errege, noble eta gerlariak, eskribitzen

ere ez zekiten; apaizak eta eleiza-gizonak ziren orduko jakintza biltzen zutenak.

Beraz, kulturadun zein izango zen: latinez zekiena, latino bihurtu zena. Eta euskeraz jarraitzen zuen euskalduna, barbarua, zibilizatu gabekoa izanen zen. Hona etorri ziren misiolariantzat euskalduna kristau eta latinu bihurtzea gauza berdinak ziren. Ez zituzten diferentziatzen.

Harrez geroztik ba dakusgu horrelako jokaera bat Euskal Herrian. Euskal Herriko jakitunak erdaldunak izango dira.. Ba dakizute latina zela jakitzaren hizkuntza. Orduan, latinetik sortuko dira Euskal Herriaren alboko herrien hizkuntzak: frantzesak, galegoak, katalanak, gaztelanoak, guztiak latinaren seme dira. Eta Euskal Herriko jakitunak, liburuetatik ikasiko dutena erderaz ikasiko dute. Eta orduan, euskal jakitunen kultura ez da herriarena izango, eta bereizkuntza bat sortuko da: batetik jakintsuak, kultura dutenak, Erromako kultura horretan sortuak izango dira, eta herria bestetik. Bai, garai berrietan sartua egongo da, baina jakintsu horientzat beti atzeratuta egongo.

Hemen ikusten dugu horietako desegokitasun haundi bat. Ikaragarriko astakeriak egin izan ohi dira Euskal Herrian. Dakizue, aspalditxo arte, orain dela larehun edo hirureun urte arte, erderaz ez zekiten euskaldunei erakusteko, dotrinak latinez egiten zituzten. Apaizak nola zebiltzen ikusteko aski da Aita Laramendi ren liburuak irakurtzea. Garai haretan naiz eta hemen gehienek erderaz jakin ez, erderaz egiten zituzten beren sermoi gehienak. Izan ere haientzat, euskera eta euskal kultura, kultura basati eta atzeratua zen. Ez da izango unibersidadeetan-eta, gizon jakitunen kultura. Baina oraindik garrantzitasunik ez da sortuko, oraindik ez du Euskal Herriak bere kulturaren heriotzarentzat arrisku haundirik nabaritutako. Hau hemeretzigarren gizaldian gertatuko da bakarrik.

Gizaldi honetan industrializatzen da Euskal Herria. Hau oso

inportantea izango da. Euskal Herriaren mapa, zazpi probintziekin hartzen badugu, XVII gizaldi arte, esaten genuen lehengo egunean, Euskal Herriko gauza inportante guziak hegoaldean gertatzen direla. Euskal Herriak izan dituen ziudadeak, uriak, Gazteiz, Iruinea eta Biarritze ziren. Hor zegoen Euskal Herriaren indar guzia. Orain dela denbora gutxi arte, Gipuzkoa eta Bizkaia Euskal Herriko atzeratuenak izango dira. Batez ere kultura eta politikaren alderditik.

XIX gizaldian bi gertaera garrantz ditugu Euskal Herrian. Alde batetik Euskal Herriak bere buruaren jabetasuna galtzea, eta bestetik Euskal Herriaren industrializatzea. Gertakizun hauek ez dira bat bestearengandik aparte gertatu, zer ikusi haundia dute beren artean. Ausartegi ote litzake Euskal Herriak bere buruaren jabetasuna galdu zuelako industrializatu zela esatea. Baina hori demostratzea gehiegikoa litzake, eta alde batera utziko dut. Baina onartu dezagun hau, alegia, Euskal Herriaren hazitzea, industrializazioaren iristea XIX gizaldian hasten dela. Jakina, esango didazute, olak, Gipuzkoa eta Bizkaiko olak ez al dira lehenagokoak...

JAKIN liburu sorta

Zuzendari: Joseba Intxausti

FEDERIKO ZABALA

# Euskal Herriaren Historia

## LUR EKONOMIA

Eta ondorengo bi tomuetan emango da XIII gizalditik gure egunetarainoko Euskal Historia

Laister izango duzue zuen aukerako liburu bikain au. Ezagunak dira gure artean F. Zabala-ren Euskal Historia-ikasgaiak, euskeratu ere egin bait dira.

Apunte horien zabalpena da eskaintzen dizuegun gure argitalpen hau. Honekin emango diogu hasiera gure JAKIN LIBURU SORTA berriari.

Gaurdaino dugun EUSKAL HERRIAREN HISTORIA zabalena eta zehatzena izango da JAKIN taldearen hau. Hiru tomu edukiko ditu eta —aparteko horri batean esaten dizuegun erara— harpidedunoi prezio berezi batean zabalduko dizuegu, aldizkari zenbaki baten partez.

Adiskideok: emazue, hastera goazen JAKIN LIBURU SORTAren berri zuen lagunen artean!

Euskerazko EUSKAL HISTORIArik zabalena

**rikardo**  
**ARREGI**

**rikardo arregi**

**alfabetatze batzordea**

**j. m. torrealday**

**joseba arregi**